

NAFARROAKO BERTSOLARITZA

Título: NAFARROAKO BERTSOLARITZA

Autor: Pablo Jose Aristorena

© Pablo Jose Aristorena

© GOBIERNO DE NAVARRA

Departamento de Educación y Cultura

Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Azala: K. Txokarro

Fotocomposición: Lente, S.A.

Impresión: GRAPHICEMS

I.S.B.N.: 84-235-1070-0

D.I.: NA-15-1992

Promociona y distribuye: Fondo de Publicaciones
del Gobierno de Navarra
C/ Navas de Tolosa, 21
Tfno. (948) 10 71 21
31002 PAMPLONA

Pablo Jose Aristorena

NAFARROAKO BERTSOLARITZA

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua

ESKAITZA

*Ostatutzarretako
anonimatoan
ito diren
nafar bertsularier.*

AITZIN SOLASA

Urtero hutsik egin gabe, urtarrilaren hirugarren igandean Victoria Eugeniara etorrira, bertso saio on batek uzten duen zimiko gozoa gogoan eta harek edo bertzeak mikrofonoaren aitzinean botatako ateraldia ezpainetan xuxurlaka, antzokiko sarreran erosi liburuxka besapean daramala etxeratzen ohi den bertsozalea harrিতuxe da, noski, aurtengo Bertsolari Egunarekin batean plazaratu den liburu honen ezberdinaz. Bertzelako itxura, potzologoa edo, eta bertzelako izenburua ere azalean, omenduen izenak agertzen ez dituen.

Ez da kasualitatea. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak urte guziz antolatzen duen Bertsolari Egunari halako filosofi aldaketa ezarri nahi izan dio 1991 honez goiti. Bertzeak bertze, Elkartearen iduriz, bertsolaritzaren protagonista nagusia betidanik eta betiere bertsolaria izan eta izanen bada ere, bidegabekeria litzateke, bertsolaria izan gaberik, fenomeno hau posible egiten duten bertze aunitzen lana -lan eskerga eta isila, maizko- aitormenik gabe uztea. Erizpide horretatik abiaturik hautatu ziren iaz aurten omentzeko lagunak: Teodoro Hernandorena, Mariano Izeta eta Emile Larre. Haietan bada lagunartean bere saioak egin dituenik, baina bakarrik ere ez da plazan sekula aritu jendaurrean. Eta, hala ere, nork uka merezimendu aski eta abasto dutela bertsolari eta bertsozaleen txalo eta esku-zartak biltzeko?

Aitzineko ekitaldietan zer egin den, ildo huraxeri jarraikiz, merezimendu horiez baliaturik osa genezakeen aurten ere liburua. Honelakorik espero duena ez da oporrik geldituko, hurrengo pasarteetan hiru omenduek egin lanaren aipamen luze eta zabalak aurkituko baititu. Hainbertzenarekin ere, berehala somatuko du irakurleak lehengoetan baino ur haundiagoetan barneratu dela orain esku artean duen orri sorta. Ez dezala pentsa, ordea, luzatu, haunditu eta emendatzearen bortxaz egin beharrekoa eskutik joan zaiola egileari. Aitzitik, berariz eta nahita bilatu den zerbaiten ondorioa da hau dena.

Izanez ere, bertsoarenganako ageriko grinaz gain, badute oraingo gure hiru omenduek ezaugarri amankomunik. Zehatz-mehatz erranda, lan egin edota egiten duteneko eremua: Nafarroa, mugaz bi aldeetako Nafarroa, Hernandorena eta Larrek beren itzala Iparraldeko bertze bi herrialdeetara ere hedatu badute ere. Hortaz, bada, esku artera ailegatu zaigun egokiera hau baliatu nahi izan dugu Nafarroan gu baino lehenago egin izan den eta gaurregun egiten ere den bertsolaritzaren berri emateko.

Nafarroak izen haundiak eskeini dizkio bertsolaritzaren historiari. Horra, lekuko, liburu honetan behin eta berriz aipatzen diren Xalbador eta Lasarte. Beti ere, badugu, herrialde gisa bederen, bertsolaritzaren historiografia "ofizialetik" kanpora gelditu ez ote den susmoa, izen haundi horiek ezin bizizko basamortu krudel batean atzeman oasis bitxiak bailira. Horren frogagarri, ateratzen hasiak edo ateratzekotan diren "bertsolaritzaren enziklopediak". Gipuzkoak, Bizkaiak eta Iparraldeak izanen dute haietan beren lekua. Nafarroak, aldiz, ez, hemen sekula ere bertsolaritzarik ez izan edo horren aipamenik merezi ez balu bezala.

Ez dugu guk ukatuko. Kalitatez nahiz oparotasunez, herrialde horietatik urrun gaude, lehenago bezala oraingo honetan ere. Alabaina, duela bi mende Ituringo arotzaren lepotik irri ederrak egin zituen bertsolari ezezagun horrengandik, jadaneko txapelketetan ate joka hasiak diren Eztitxu Arozena eta Xabier Silveira gaztetxoengana doaien bide luzeak arreta eta gogo gehiago merezi zuen, gure uste apalean.

Hain juxtu ere, gogoak, gogo gaitzak, bulkatu du Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarte, lan hau osoki bere gain hartzeko momentuan. Eta osoki diogunean, Nafarroan pentsatu, abiatu eta borobildutako lan batez ari gara, horrek ekarri duelarik aitzineko Bertsolari Egunetako liburuak argitaratzeko erabili ohi diren moldeetatik kanpo ibiltzea. Lehen-lehenik, babeslea behar zen, eta horretarako Elkarteak nahiago izan du nafar instituzioak proiektura erakarri, Bertsolari Egunaren inguruan ibiltzen diren ohizko erakundeengana jo baino. Hala bada, Nafarroako Gobernuaren Kultur Departamentuaren dirulaguntzak ahalbideratu du argitarapena.

Sosa izate hutsak ez du, dena den, berez deus gauzatzen. Hortaz, hasierako asmoa landu eta burura eramateko gai izanen zen laguna aurkitu behar zen, baita ongi aurkitu ere Pablo Joxe Aristorenarekin. Nafarroan errotzen ari den hernaniar honek, plazetan ikusten ditugun azken labealdiko bertze zenbaiten gisa, bat egiten ditu bere baitan elkarrekin parekotasun aski ageri duten bi ofizio: kazetari eta bertsolariarena, alegia. Esku artean zer zuen ederki zekiela abiatu da, beraz, kasik detektibe antzean, handik eta hemendik, hor eta han barreiatuak zeuden datuak atzeman, metatu eta papereratzera, zerrenda luzea osatuko lukeen bertze tropa galanta, Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak mugierazia, ideiak ematen, materiala biltzen eta transkripzioak eta zuzenketak egiten lagun izan duela.

Izerdi horien denen fruitu da orain irakurlearen eskutara ailegatu den liburua. Bertsozaleak aburu ausart bat baino gehiago kausituko du bere hartan, baita, gure iduriz, erakarpen kritiko berriak han-hemen, bertsolaritzaren panoramaren argigarri. Agian eskertuko zaizkio egileari. Pablo Joxe izaki bapateko lanean hezia, liburua ere halatsu idatzi du. Puxkaka ematen digu Nafarroako bertsolaritzak 1936tik hona egin dituen urratsen historia. Aixtian aipatu enziklopedien aldean, azaleko uretan gabiltzala eritziko du norbaitek. Hutsak eta okerrak ere izanen dira hain segur. Baina horiek honen ondoan etorriko diren lan berriek osatu, zuzendu eta hobetuko dituztelakoan gaude. Izanez ere, Nafarroako bertsolaritzaren historia ez dugu inola ere lan honekin bukatutzat jotzen. Aitzitik, liburu hau abiapuntu bat baizik ez da. Orain arte izan ez dugun abiapuntu derrigorrezkoa.

**Aingeru Epaltza
Iruñean, 1991-XI-25**

ESKER MILA

Esku artean duzuna irakurle, ez behar hainbertze baina, ordu eta gogoeta saio bar baino gehiagoren ondorio duzu. Bidea urratzen hasi nintzelarik hamaika supazter eta bulegotan ohartu nintzen nekien apuna deus ez jakitearen parekoa zela. Beraz, zorretan nago, eta pozik gainera, orriotan agertzen diren zenbait erakaspen berriez hornitu nautenekin.

Agian norbaitekin huts egiten ahal dut baina, dena den, ez nituzke aipatzeke utzi nahi, hurbildu natzaielarik, une oroz xehetasun nahiz gogoeta zenbait eskeintzeko gertu izan ditudan Leonie Aire, Mixel Aire "Xalbador II", Maria Jesus Berrotaran, Piarres Charritton, Pedro Diez de Ulzurrun, Jesus Gaztañaga, Jean Louis Harinordoki "Laka", Teodoro Hernandezena, Mixel Itzaina, Mariano Izeta, Emile Larre, Manuel Lasarte, Mixel Lekuona, Dionisio Mujika, Jose Maria Sartrustegi eta Joxe Urroz. Eskerrak ere beren bertsoak liburuxkarako utzi dituzten Alkhat, Argiñarena anaiak, Arozena, Elizagoien eta Mendiburu nafar bertsolariei.

Bertzalde, inolako ustekeriarik gabe eta gerora landu gogoz, lekuan lekukoei entzuna baliatuz, nahasmahaseko euskaraz emandako idatziak lerroz lerro orraztu dituztenei, Mikel Taberna, Aingeru Epaltza eta Paskual Rekalderi, liburuxkaren lerro hauexetatik bertzerik ez bada ere, eskerrak eman nahi nizkieke. Erran gabe doa, gelditzen diren akatsen erantzule bakarra ni neu naizela.

Eta azkenik -azkenak izanen bait dira lehenak-, aipatu nahi nituzke Lontxo Aburuza, Eugenio Arraiza, Manu Gomez eta Enrike Diez de Ulzurrun, liburuxka gorpuzten joan den denboran, ondoan izan eta, beraien lana baillitzan, behar zen edozertan eman didaten laguntzagatik.

Esker mila aunitz oroer eta egon bizkor!

LEHEN ATALA

OMENDUAK

OMENDUAK

Teodoro Hernandorena

Mariano Izeta

Emile Larre

Donostian, 1992.eko urtarrilaren 19an

"Euskal Herriko Bertsolarien Elkartek, Zuzendaritza Batzordeak eztabaidatu ondoren, aho baten erabakitzen du, 1992ko Bertsolari Eguna, Nafarroa eta Iparraldeko bertsolaritza indartzen eta zabaltzen ahalegindu direnei eskeintzea eta bereziki omentzea: Teodoro Hernandorena, Mariano Izeta eta Emile Larre".

Donostian, 1991.eko urtarrilaren 13an.

Imanol Lazkano Uranga, EHBE.ko Lehendakaria.

TEODORO HERNANDORENA

Espainiak Kuba galdu zuen urte berean, Euskal Herriak –bertsolaritzak bederen- Hernandorena irabazi zuen. XIX. mendearen hondarrean, euskal nazionalismoaren piztearekin batera sortu zen, beranduago, Ipar Euskal Herrian bertsolaritza piztu zuen gizona. Euskal Herria izeneko proiektuaren sendotzeak eta euskal kulturaren pizkundeak bete-bete harrapatu zuen Hernandorena jauna bere sasoirik onenean. Garaikide zituen gehienei ez bezala, euskaltzetasuna eta abertzetasuna ingurunearen eraginez baino gehiago, gogoeta sakon eta Euskal Herria herriz herri, auzoz auzo, pausoz pauso ezagutzearen ondorioz sortu zitzaion. Bere baitan jasotako deiari erantzunez, beti ere gizaki autodidaktek duten ikuspegi "sui generis" batetatik, ondrazten duen lan oparoa eta, sarritan, esker gabekoa eskeini dio ahozko euskal literaturari. Ez da jorratu duen alor bakarra, baina bere bizitza luze bezain aberatsean, bertsolaritzaren munduan egin lanari esker da gehienbat ezagun gizon txipi eta bizkor hau.

Hernandorena Barandiaran jauna Zizurkilgo "Herriko Etxean" sortu zen 1898.eko azaroaren seian. Teodoro Godofredo izenak ezarri zizkioten sorterriko eleiza nagusian bataiatu zuten egunean. "Hauek ez ziren Zizurkil batean jartzeko izenak!", erraten du oraino erdi amorraturik, baina garai haietako bizi eta pentsamoldearekin bat zetozen noski. Aita, Nikolas, sortzez Nafarroa Garaiko Mendigorriakoa, albaiteroa zuen eta ama Maria Pilar berriz, Legorretan jaio eta esposatu ondotik maistra zen Zizurkilen. Hauek sei seme-alaba izan zituzten: Augusto, Isabel, Teodoro Godofredo, Rosario Gerardo, Toribio eta Timoteo.

Zizurkilgo karrketan euskara soilik erabiltzen zen arren, Hernandorenatarrek ez zuten etxean hitz bakar bat ere hizkuntza horretan egiten. Ama sortzez euskalduna eta aitak bere lana zela eta hizkuntza ikasiagatik, Teodorok mutiko eta neskatxunekin jolasean ikasi zuen euskara. Bertsozetasuna ere ordukoa du, inoiz adierazi duenez. Pello Errota bertsolaria Asteasutik Zizurkilgo taberna batetara joaten omen zen irina eramatera. Gehienetan igandez azaltzen zen, Zizurkilgo Irazurekin bertsotan aritzeko. Han, Errotaren beraren ahotik entzun zituen Hernandorenak lehen bertsoak.

Bederatzi urte zituelarik, 1907an, herriko erretorearen bitartez etxekoek Andoaingo apezgaitegira bidali zuten. Bertan lau urte egin zituenean, gogoz kontra eta aitaren gerrikoa zer zen ederki jakinik, Gasteizko apezgaitegira abiatu zen, hiru urtez filosofia eta urte betez teologia ikasketak burutzera. Bertzeak bertze, Manuel Lekuona eta Joxemiel Barandiaran izan zituen apezgaikide. "Nik askatasuna nahi nuen", errepikatzen du behin eta berriz ordukoaz gogoratzean. Eta hala, oraingoan etxekoen borondatearen aurka, hamazazpi urteetan teologia ikasketak utzi eta Zizurkilera itzuli zen. Geroztik, Hernandorenaren ezaugarri nagusienetako bat bizitza abentura izpirituz jantzi eta beronen arabera hitzak ekintzetan gauzatzea izan da.

Apezgaitegia utzi bezain laster, etxean ikasketak ordaintzeko sosik ez zegoenez, Billabonako lagunei liburuak eskatuz urte bitan batxilergoa bere kasa atera zuen, azterketak Donostian eginez. Goi mailako jakintzaz hornitu asmoz

Zaragozara joan zen medikuntza ikasketak egitera. Bost urtetako ikasgaiak bitan gainditu zituen, azken azterketak Madrilan egin zituelarik. Aragoako hiri nagusian emandako denboran, bertako giroa berea ez zela ohartzean, euskal kontzientziak jabetzen hasi omen zen. Dena den, Zaragozatik itzuli zenean ez zuen oraino euskal munduarekin harremanik izan. Basurtoko eritetxean hasi zen mediku lanean. Urte pare bat Bizkaian eman eta Ameriketara joan zen Bartzelonako kaitik ateratzen zen itsasuntzi batetan mediku postua lortzean. Gisa honetan Espainiako itsas bazter guzira inguratu eta New Orleans, Miami, La Habana, Mississipi eta abarretan ibili zen, mundu zabala ezagutzeko zuen ametsa betetz. Itzuli zenerako Basurtoko zuzendaritzak Hernandorenaren azken txangoa gehiegikeria eritzi eta kale gorrian uztea erabakia zuen.

Bere osaba zendu baten ondoreko, Billabonako mediku izan zen lau urtez. Hori ere nahikoa ez eta Billabonako azken bi urteak tarteka Madrilera joanez, odontologia espezialitateko ikasketak prestatzeko, igaro zituen. Geroztik ogibidez dentista izan da eta bere lehen kontsulta Billabonan bertan jarri zuen. Baina Gipuzkoara itzultze honek, eraginik haundiena, Teodoro Hernandorenaren euskaltzaletasunean izan zuen. Laster Donostian zabaldu zuen kontsulta berria bertze dentista alemaniar batekin. Gipuzkoako hiriburuan bizitzeak euskaltzale eta nazionalistekin harremanetan jartzea ekarri zion. Primo de Riveraren diktaduraren azken hondarrak eta Espainiako bigarren Errepublikaren etorrera gertutik jarraituz, Euskal Herriaren alde zerbait egin asmoz, eta biderik egokiena politika zelakoan, Donostiako Euzko Gaztedin bazkide zuen. Batera eta bertzera mugitzen hasi eta 1931.ean Donostiako Irrati Nazionalean astean ordubeteko euskarazko irratsaio bat erdietsi zuen.

Gorabeherak izan zituen non bazkide: Euzko Abertzale Ekintza-ANV ala Euzko Alderdi Jeltzalea-PNVn. Euzko Abertzale Ekintzako pentsamoldea eta, batez ere, izpiritu laiko eta liberalagoa, erakargarriagoa zitzaien arren, azkenean EAJn sartu zen bete betean, alderdi honek bere proiektuak burutzeko aukera eta bide gehiago ematen zizkiolako. Gisa honetan, bazkide eta berehalakoan EGIko lehendakari izendatu zuten. Laster, Teodoro Monzón lehendakari zuen Gipuzku Buru Batzarreko kide hautatu zuten berari deus erran gabe. Teodoro Herrandorena arduratu zen 1933 urteko Aberri Egunaren antolakuntzaz. Apirilaren hamaseian ospatutako besta harek "Euzkadi-Europa" lemarekin milaka jende bildu zuen Donostian.

Urte berean "Euzkadi" izeneko 110 minututako filma zuzendu zuen. Euskal Herria ezagutarazteko dokumental hau, Donostiako Aberri Eguneko irudiez gain, politika, kultura nahiz euskal folkloreak irudien bilduma bilakatu zuen. Hernandorenak, gizarte berrian propagandaren garrantziaz jabetu eta geroari begira alderdikoek baino ikuspegi zabalago batekin, filma bere kabuz atera zuen aurrera. "Euzkadi", Teodoro Hernandorenak bere bizitza luzean egindako bertze aunitz lan bezala, burugogorkeria ukitu batez izpiritu aintzinazalez egindako lanaren fruitua zen. Santos Zunzunegi irakasleak *"Euzkadi. Un film de Teodoro Hernandorena"* izeneko liburuxkan xehetasun ugari ematen du, gerra heldu eta frankistek Donostia hartu zutenean suak betirako kiskali zuen pelikula honetaz.

Horretaz gain, zegoen kargutik egin zituen bertze ekintzen artean aipagarria da Donostiako "Euzko Abesbatza"ren eragile izan zela. Euskal Herriaren irudia kanpora zabaldu asmoz, eta berriz ere inguruan zituenak baino ikuspegi aurrerakoiago batekin, Guridiren "Amaia" opera Bartzelonako Lizeora eramane eta bertan hiru emanaldi burutu zuen astebetetz. Politikagintzari dagokionez, berriz, zizurkildarrak mailarik gorena Errepublikako urteetan lortu zuen, 1934 eta 1935ean Gipuzku Buru Batzarreko lehendakari izanez. Gerrarekin bukatu ziren ibilera hauek, bertzeak bertze Ipar Euskal Herrira iheslari joan eta familia bat hazi behar zuelakoz. Gainera, gerora eta bizitza osoan, alderdia zatitu eta Euzko Alkartasunan bazkide artean, EAJren jarraitzaile eta sarri atzerriratutako Euzko Jaurkitzaileen laguntzaile izanagatik, nahiago izan zuen bertsolaritzaren aldeko lanari ekin, oztopo gutxiago eta egiteko gehiago baitzegoen alor horretan. Hala bada, inoiz aitortu duenez, herriarengan eragiteko biderik egokienetako bat bertsolaritza garatzea zela zeritzon.

Garai haietan ez ziren bertsolariak begi onez ikusiak, ostaturako eta pikardi gaietarako bakarrik balio zutelakoan. Hernandorenak aldiz beraien aldeko apustua egin zuen. Berak dioenez, Jose Aristimuño "Aitzol"ek eragin zion alor hau jorra zezan. Euzko Ikasketak 1930ean Bergaran antolatutako biltzarrean, Manuel Lekuonak, bertsolaritza gaitzat hartuz, *"La poesía popular vasca"* izenburuarekin (Ikus Lekuona `tar Manuel, Idazlan guztiak) emandako hitzaldi ezagunak piztu omen zuen Aitzolengan bertsolaritzari bultzada emateko garra.

Ordurarte, Aitzolek bertze herrialdetako poeta haundiak miresten omen zituen, hauek kultura eta herri kontzientziarengan omen zuten eraginagatik. Teodorok azaltzen duenez, Jose Aristimuño "Aitzol"ek Goethe moduko olerkariak maite zituen, Euskal Herrian Lizardi eta Lauaxetaren itzalekoak gorai patuz. Bergarako hitzaldi horren ondorioz ordea, Euskal Herrian egiteko hori bertsolariei zegokiela jabetu omen zen Aristimuño apezka. Hernandorena eta biak uztartu ziren bertsolariak elkarrenganatzeko eta modu honetan ospatu ziren 1935 eta 1936an "*Bertsolari Guduak*" edo Euskal Herriko lehen bi Txapelketa Nagusiak Donostiako Kursaal eta Victoria Eugenia antzokietan. Lehenagotik, Teodorok ekarrazten zituen bertsolariak Donostiara, Euzko Gaztediko biltzar eta afarietara edota irratitik bertso kantatzera, baina ez aurrerantzean erabiliko zuen ikuspegi berarekin.

Baina Espainiako gerra heldu zen 1936ko udan. Gerraondoak urte ozpinduak zekartzan euskal kulturarendako. Lanean zihardutenak oro sakabanatu eta, inolako egiturarik gabe, bakarlana nagusitu zen oraino zerbait egin asmo zutenetan. Teodoro Hernandorenari ez zitzaion arrotz suertatu egoera hori eta gerrarekin batera, 1937an Bilbo utzi eta Ipar Euskal Herrira bizitzera joan zelarik, modu berrietara egokitu behar izan zuen.

Hala ere, orduan nahikoa zuen familia hazteko ardurarekin. Batera eta bertzera ibili ondotik, Ezpeleta, Azkaine eta Donibane Lohitzunen, azken honetan zabaldu zuen kontsulta berria, familia bertara eramanez. Bederatzi haurrietara heldu dira Hernandorena Albeatarrak. Teodoro 1929.eko urtarrilaren 10ean esposatu zen Mercedes Albea Urrutia billabonarrarekin. Ana Mari, Miren (sortu berritan zendua), Miren, Amaia, Iñaki, Arantxa, Itziar, Gurenda eta Xabierrek osatzen dute familia. Urte batzu bizi izan ziren Lapurdin, 1948an Parisera abiatu arte. Parisetik berriz, 1966an Euskal Herrira etorri eta geroztik Hondarribian bizi dira emaztea eta biak.

Familiakoak nolabait moldatu zituenean, eta izpiritu bizi hori itzalduta ez zitzaionez, Munduko Bigarren Gerra amaitearekin eman zituen lehen urratsak Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberuan bertsolaritzaren alde. Euskaltzaleen Biltzarrak antolatzen zituen bestetan bertsolaririk ez zen izaten. Euskal erakunde horretako arduradunek, Louis Dassance buru zutelarik, ez omen zieten -Hernandorenak aipatzen duenez- jaramonik egiten bertsolariei. Dassancek berak, kantu zaharrak bilduz hainbertze lan egin zuenak, erran omen zion Teodorori ez zela bertsolaririk Ipar Euskal Herrian eta zirenak, irrigarriak. "Halako amorrazioa eman zidan -dio-, bertan erabaki nuela Euskal Herria miatzea bertsolariren bat topatzeko". Erran eta egin. Xalbadorrek berak "Odolaren mintzoa"n gogoratzen du nola "gerla ondoan, Hernandorena abiatu zenean hemen gaindi pertsulari bila, nitarat ere gidatu zuen. Donibane Lohitzunen muntatu zuen txapelketa batetarat ereman ninduen. (...) Donibaneko egun hori enetzat munta haundikoa izan zen, eta ahalgerik gabe erran dezaket, gu, Mattin eta ni ere Hernandorenari esker ezagutu gaituela Euskal Herri osoak".

Izena eta ospea Xalbador eta Mattinek, Mattin eta Xalbadorrek bilduagatik, Hernandorenak herriz herri, auzoz auzo, hamasei bertsolari bildu zituen 1946an lehen aldikoz Donibane Lohitzunen egin zen bertsolarien bilkuran. Ez zen lan samurra suertatu bertsolariak biltzearena. Lapurdiko Hendaian hasi, Baxenabarre goiti-beheiti miatu eta Xiberuako Irurirainoko bazter eta zoko moko guztiak arakatu zituen. Denetan lehena Ahetzeko Mattin atzeman zuen. Ahoz aho heltzen diren berrien eta ezagunen bitartez osatu zuen hamaseikotea. Bankan bizi zen Juan Felix Iriarte iruritarrekin hitzegitean, baiezkoa eman eta berarekin bertze lagun bat eramanez zuela agindu zion. Lagun hori Urepelgo artzain eta laborari bat zen, Ferdinand Aire. Dena den, batzuek izena berehalakoan eman bazuten, bertzeena behin eta berriz bila joan ondotik lortu zuen. Simun Ibarra "Zubikoa" goitizenez ezagutzera eman zenak jarri zituen trabarik gehien.

Zubikoa, sortzez Sunbildarra zen baina Espainiako gerra burutu zenean iheslari joan zen Bankara. Arrazoi hori tarteko, ez zuen parte hartu nahi Donibane Lohitzuneko bestan. Hernandorenak orduan, Sunbillako bere ezagun baten etxearen izena eman zion Ibarri Donibanera hurbildu zedin. Urte batzu beranduago, Zubikoa Nafarroako Bertsolari Txapelketan aritu zelarik, "*Zubikoa*" etxeokoe gutun bat bidali zioten Pedro Diez de Ultzurrun, Iruñeko mediku eta Nafarroako txapelketen antolatzaileari, Simun Ibarri erabiltzen zuen izenordea haien etxearena zelakoz haserrea azalduz. Gisa bereko aunitz gora-behera aipagarri urratu da Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko bertsolaritzaren bidexka.

Mugaz haraindi eratutako Donibaneko lehen bertso saio harek ez zuen arrakasta haundirik lortu. Giro apala eta jende eskas hurbildu zen "Maitena" Trinketera. Zorraz poltsikotik ordaindu beharrak ez zuen Hernandorena apaldu ordea, eta berehalakoan antolatu zuen bigarren saio bat Hazparnen. Liburuxka honen bertze atal batetan ageri dira Hernandorenak antolaturik urte luzez ospatutako saioak. Ipar Euskal Herrian ez ezik Parisen ere eratu zituen bertso

bestak, Frantziako hiriburuan bizi zelarik, *Eskual Etxera* punta-puntako bertsolariak eramanez. Urruñan antolatu zen kanporaketa moduko bat Parisera joanen ziren bertsolariak hautatzeko. Lapurdiko herrixka honetan elkar ezagutu zuten Teodoro Hernandorena eta Emile Larrek, liburu honen bertze atal batean leku berezia hartzen duenak. Urruñako erretore Jean Baptiste Etcheberry bertsozalea zelarik, Larre bikario zuen eta ordutikakoa du Baigorriko euskaltzainak bertsolaritzarekiko atxikimendua.

Hernandorena 1958an Parisetik ailegatu zen saio hau antolatzera. Larrek gogoratzen duenez lepoa luzaka jende bildu zen Urruñako "Itsas Mendi" zineman. Han aukeratuak, Xalbador, Mattin, Basarri eta Uztapide joan ziren Frantziako hiri nagusira. Lehen aldikoz zabalduko zen bertsolarien irudia Euskal Herriatik kanpo, Frantziako telebista eta britaniar nahiz alemaniar irratien bidez. Egun ederrak eta bertso mordoa bota zituzten bidaia irabazitako lauek. Uztapidek "Lengo egunak gogoan II" liburuan Parisekoaz azaltzen duenez, denetarik gertatu zen. Bertako museo batetan zebiltzan eta "gure Hernandorenak -dio Uztapidek- bertsoak botatzea nai eta an ziran komeriak. An bertsotarako giroa palta, eta girorik gabe ez bertsotan egiten. (...) Baña nolabait ere kantatu giñuzen beintzat bertso bana". Geroztik, Parisen bertze behin eta Lapurdin ere saio batzu antolatu zituen, berriz Euskal Herrira bizitzera etorri aitzin.

Zahartzaroaren ateetan, sorlekura itzultzearekin Hondarribian kokatu zen 1966an. Geroztik, Txingudi badia gaineko "Arkaitz" deritzan etxean bizi da emaztearekin Kantauri itsasoari begira. Bizitasunak eta gauzak egin behar horrek bere barnean dirau oraino. Hondarribian bizi denetik bertso saioei eta pilotari, bere bigarren kuttunari, gertutik jarraitu die. Nafarroako Bertsolari Txapelketen bigarren aldia hasi zelarik, antolatzailleek gizon ttipi baten irudia dute atxiki, batera eta bertzera argazki kamerarekin zebilenarena. Belaunaldi berrikoek ez zuten ezagutzen nor zen Hernandorena.

"El Diario Vasco" egunkarian pilotaz idatzi du urte luzez. "Deia" egunkarian eta "Herria", "Elkar" eta "Principe de Viana" aldizkarietan ere agertu dira bere idatziak. Euskal gaiez aritu izan da beti eta zenbaitetan, bere ikuspuntu abertzale sutsutik zekusan errealitate ezin eramana, gainezkako sendimenduz azaldu du. Honen lekuko dira "Deia" egunkarian Nafarroaz egindako apologia edota "Herria" eta "Principe de Viana" aldizkarietan Juan San Martin euskaltzainarekin izandako tira-bira dialektikoak. Dena den, deus erran eta egiteko borondaterik onenarekin erran eta eginen zuen.

Erran ohi da badirela deitura premiarik ez duten izenak. Teodoro Godofredo litzateke horietako bat. Izena eta izana ederki uztarturik eraman ditu bere bizitza osoan. Berezia bezain bakarra eta bakarra bezain berezia izan bait da Robert Bresson zinemalari frantziarrak, bere filma batetan, Loiolako Inazio Deunaren lekuan jarri nahi zuen zizurkildarra. Langile zuhur eta borondatetsua, odol bizikoa, euskal senaz jantzia, bide ezkutuen maitalea... Bere baitakoa izanez, bertzeen eta ideia batzuen alde lan egin duen gizona. Ipar Euskal Herrian bertso molde berriak sartu zituen gizona. Bere garaiei aurrea hartzen jakin duen gizona eta, agian horregatik, usu ez ulertua eta sarriago bakardadean lan eskerga ugari egindakoa.

Hondarreko urteotan, nahiz Euskal Herriko Bertsolarien Elkarrekin ohorezko bazkide izendatu duen, nahiz Oiartzunen 1986.eko ekainaren batean, Saran 1987.eko otsailaren zortzian eta Hondarribian 1991.eko uztailaren hamaikan omenaldirik eskeini zaion, Urepeleko eta Ahetzeko bikotearen eragile izatea da merezi izan duen lanaren eskerrik onena.

TEODORO HERNANDORENARI

1

Zuri kantatu asmotan nator
nere jaun Hernandorena
bertsolaritza barruan nola
hustu zenuen barrena
gazte denboran ibili zinen
estranjerian barrena
etorri eta bilatu zenun
bertsoa nahiko herrena
Iparraldeko txorien bila

gorputz txikien kemena
Xalbador hartu aurrena
Mattin zetorren hurrena
zure langintzak eman duenez
bere emaitz nabarmena
merezi dezu bertsozaleok
eiten dizugun omena.

2

Urte txarrean uzta biltzea
beti gerta ohi da gaitza
nahiz ta adarrak lehorrak egon
bizirik zegon zuhaitza
eta orain haundi ikusten dezu
lehen txikia zen haritza
Beraz gazteok txalotu behar
zure hainbeste ekintza
enbor zaharraren muskil berriak
gaur nonnahi hortxe dabilta
lortu zendulakotz giltza
harro nahi nuke nik mintza
hartu ezazu bihotz barrutik
egin nahi dudan eskeintza
zure lanari esker bizirik
bait dago bertsolaritza.

3

Nahiz ta gorputzez txikia zaren
gizon haundi ta jatorra
behar duenai lagundutzeko
goxo bezain emankorra
bertsolarien bultzatzailea
langile fin ta bizkorra
zaletasunen sustraía eta
bertsolarien enborra
Bidasoaren bi aldeetan
egon da zure alorra
orain urteen zigorra
penitentzi derrigorra
egin duenak merezi du ta
laguntzera gatoz, horra
orain ordaintzen saiatu behar
ordaindu ezin den zorra.

Manolo Arozena, Lesaka

MARIANO IZETA

Mariano Izeta Elizalde Elizondoko "Mutilenia" etxean sortua da 1915.eko uztailaren hamalauetan. Aita, Federico, gipuzkoarra zuen Zarautzeko "Pantolingo" etxean jaio eta 1902an Baztango herri nagusienera bizitzera etorria. Ama berriz, Juana Elizalde, Elizondoko "Arginenea"koa zen. Zortzi haurride izan dira, Mariano denetan zaharrena eta Juan Julian, Maria Teresa, Bittori, Eusebio, Mikaela, Karmentxu (zendua) eta Joxe Mari.

Ikasketa ofizial bakarrak herriko eskola nazionalean burutu zituen hamalau urterarte, gazteleraz burutu ere, orduan ohi bezala. Bertze aldetik, Elizondoko karriketan erdal giroa zen nagusi. Geroztik, Baztango lur eta jendeak erakutsitakoarekin hornitu da. Eskola utzi eta 1930ean aitarekin hasi zen erlojuak konpontzen. Ogibidea hori izan du 1984ean erretiratu den arte. Dena den, oraino ere Jaime Urrutia karrikako erlojutegian izaten da anaia Joxe Marirekin. Gabriela Goñi Olaetxea lekaroztarra hartu zuen emazte 1963.eko maiatzaren hamabortzean, San Isidro, eta bi alaba izan dituzte, Maria Ines eta Juana Mari.

Baina Mariano Izeta ezaguna bada eskual gaiei buruz egin lanengatik da ezagun. Familia eskualdun eta nazionalista batean hazi eta hezitakoa da. Ttipi-ttipitandik izan du Eskual Herria eta bere kultura, folklorea, kirolak eta eskual zer duen ororekiko atxikimendua. Politikan ere ibilia da baina, "politika guzien gainetik -dio Mariano Izetak- eskuararen alde lan egiten dut orai". Hemezortzi urte bete bezain fite, Euzko Alderdi Jeltzalean bazkidetu zen. Erlikia bailitzan gordetzen duen txartelean, 1933.eko uztailaren 28ko datarekin, orduko Napar Buru Batzarreko Jesus Doxandabaraten sinadura ageri da Mariano gaztearen potretapean. Elizondoko alkate izana da 1957 eta 1958 urteetan. Demokrazia heldu ondoko lehen hauteskundeetan, Baztango Balleko Etxerako zinegotzi hautatua izan zen PNVtik legealdi baterako, kultur saileko ardura bere esku hartu zuelarik. Balleko Etxeak urte haietan eskuaraz ateratako paperik gehienak, denak ez errateagatik, Marianoren eskutik pasatakoak dira. Ondoko legealdian, Timoteo Plaza alkate nazionalistaren orde, Julio Iturralde "Unión Baztanesa" taldekoa paratu zelarik, besta egitarau eta bertze gisako itzulpen batzu borondate onez egin beharrean suertatu zen Izeta. Politikan azken urratsak, Nafarroako EAJ-PNVk, 1982an Madrileko Gorteetarako hautagaien zerrendan atera zuenean eman zituen. Alderdiak Nafarroan izandako gatazka eta zatiketaren ondotik ez du gehiago politikan parte hartu.

Gerla aitzinetik, 1936.eko urtarrilaren hamabian, Nafarroan egin zen lehen Bertsolari Txapelketa hurbiletik segitu zuen. Donostiako "*Euskaltzaleak*" elkarteak antolatutako eta, Donostia bereko "*Euzko Gaztedi*" eta Elizondoko "*Euzko Etxeak*" lagundurik ospatutako norgehiagokaren antolamendu lanetan ibili zen. Bertsolariak biltzen ibili zen batera eta bertzerara, Elizondoko "*Euzko Etxeko*" aintzindari nagusienetako bat zen Bittori Etxeberria eta bere anaia Esteban Etxeberriari lagunduz. Txapelketako eguna ailegatu zenean Rafael Garmendia taxistarekin joan ziren bertsolarien bila. Saio hartan, Iruritan sortu baina Bankan bizi zen Juan Felix Iriarte hogeitahiru urtetako gaztea suertatu zen txapeldun. Elizondoko norgehiagoka hartan, Nafarroako ordezkari bezala ondoko igandean, urtarrilaren hemeretziaren, Donostiako "Victoria Eugenia"ra joanen ziren lau bertsolariak aukeratu zituzten. Teodoro Hernandezena ere Elizondon barna ibiliagatik ez dute garai haietako elkarren oroitzapenik.

Gerla hasterekin akitu ziren bertso eta eskual bestak. Hogeitalau urteren buruan antolatuko zen hurrengo Nafarroako Bertsolarien Txapelketa, oraingoan "Príncipe de Viana" erakundearen eskutik. Bizkitartean, Mariano, bertze aunitz bezala, gisa ezberdinetako ekintzetan partaide izan zen. Lehenik, mendigoizale bezala Baztango mendi kaskoetan gaindi ibilia da. Elizondoko koralean ere aunitz urtez aritu da kantari. Beranduago, txirrindulari, lasterkari nahiz pilota lehiaketetan antolatzaile izan da. Pilotazaletasuna haundia da Baztanen eta Antxitoneako trinketeen antolatutako partidoen erataile nagusienetakoa izan da Mariano.

Bertze aldetik, Mariano Izeta "*mutil dantzaria*" da. Hamabortz urteetatik orai arte, inoiz hutsik egin gabe, atera da plazara ator zuria eta galtza ilunekin. Elizondoko bestak direlarik, Santio egunez, berari dagokio dantza hasteko ohorea. Ohore haundia baztandar batendako! Gainera, Baztango dantza nagusi hunen erakustun izan da eta aunitzetan balleko dantzari taldeekin Eskual Herrian barna abiatu da, Maurizio Elizalde txistularia eta Felix Iriarte atabalaria lagun dituelarik.

Idazle bezala ere dagokion hondar alea paratu du. Lekarozeko Aita Aurelio Ezkerra, sortzez Etxarri Aranazkoa zen kaputxinoak, luzatu zion 1957an idazten hasteko gomitea. Berrogei urte beteta ekin zion beraz, geroztik hain gogoko izan duen lanari. Bere idatziak, beti Baztan edota eskual gaiei buruz, "Zeruko Argia", "Herria", "Príncipe de Viana" aldizkarietan nahiz "Euskaldunon Egunkaria", "Diario de Navarra", "Deia" eta "Navarra Hoy" egunkarietan argitara eman dira. Hondarreko lau urteetan irratian eleteria ere da, eta astero astelehenetik ortziralera Elizondoko "Xorroxin" irratian eta ortzegunez Baxenabarreko "Irulegi" irratian ematen ditu bordatar eta herritar guzietatik arretaz aditzen dituzten berriak.

Bertze aldetik, bi eleberri eta ipuin bat idatzi ditu. Lehena, "*Dirua galgari*", 1960an izkiriatura, "Los amigos de la Academia de la Lengua Vasca" deitu taldeak antolatutako lehiaketa baterako. Garai haietan euskaltzain buru zen Inazio Maria Etxaidek erran talde horrek gisa bereko aferetan zer sarturik ez zuela eta, Gipuzkoako Foru Aldundian zokoratu zituen aurkeztutako bederatzi lanak. Halako batean, Antonio Zavalak aurkitu, gustatu eta Marianori bere lantxoak argitaratzea proposatu zion. Hala, 1962an Marianoren lehen eleberria "Auspoa" argitaletxearen bidez karrikaratu zen. Hogei urteren buruan, 1982an, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Izetaren "*Nigarrez sortu nintzan*" bigarren eleberria argitaratu zuen. Bi lan hauek Baztango gertaera triste batzutan oinarrituak daude. "Sorgiñak infernuko errekan", Baztango bertze kondaira zahar baten haritik, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurilaritzak "Isabel Lertxundi eta Jesus Maria Aldai"ren omenez antolatutako sariketara aurkeztu zuen. Joxe Ramon Belokik irabazi zuen saria eta lan hori bertze zortzi onenekin, Mariano Izetarena tarteko, argitara eman zen 1985ean.

Hiztegi gintza da Mariano Izetak jorratu duen bertze alorretako bat. "*Baxtango hiztegi tipia*" deitu lana 1985ean argitaratu zuen. Geroztik, bilketa lanean segitu eta akitu hurren duen hiztegi berri osatuan bi mila eta bortzehen hitz eta Baztango erranairuak edota esaera zaharrak azalduko dira. Lan hau burutzeko, Baztan osatzen duten lau eskualdeetan, bertakoek "*koartel*" bezala ezagutueta, nahiz hamabortz herrietan baditu hitzak biltzen dizkieten lagunak. Noizbehinka erlojutegian hartzen ditu burua bete hitz heldu diren bisitariak. Horretaz gain, Azkueren hiztegia goiti beheiti miatu eta zenbait zehaztasun egiten ari da. 1961az gero *Euskaltzaindiako* urgazlea da eta Aingeru Irigaraiak euskaltzain oso izan zedin proposatu bazuen ere, adinagatik eta, nahiz kargu hori dundu ez, lanean berdin jarraituko zuen segurtasunagatik ez zen akademikoen artean jarri.

Bertsolaritzari dagokionez lan izigarria egin du. "Príncipe de Viana" kultur erakundeko eskuara saila bertsolari txapelketak antolatuz abiatu zelarik, Marianorengana ere jo zuten. Pedro Diez de Ulzurrun, Iruñeko mediku eta euskaltzale haundia zen sail horretako arduradun nagusia. Baztan eta inguruko bertsolariak biltzen lagunduko zion galdegin zionean Izetak fite azaldu zuen laneko gogoia. Hala bada, antolatzailer taldean sartu eta 1962az gero Nafarroako txapelketako epaimahaikide izan zen. Urte batez, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko epaile ere izan zen, 1967ko Anoetako saio entzutetsu hartan. Bertsolaritza berriz ere txapelketen ildotik sartu denean, Mariano Izeta Nafarroako Txapelketetan izan da epaile, lehenik, 1979 eta 1982a artean "Paulo Yantzi" deitu sarian eta gero, 1983tik 1986ra Nafarroako Txapelketen bigarren aldian. Egin du lanik beraz, egun "Nafarroako Bertsolarien Lagunak" deitu elkarteko ohorezko presidente denak.

Liburu honen bertze atal batean ageri den bezala, gajartzailer gisara ere lan ederra egin du Marianok. Gerla ondoan Nafarroako Bertsolari Txapelketak hasi zirenean, Alfontso Irigoien etortzen zen herrialde honetara gaiak ematera. Marianok, Irigoienaren ereduari jarraituz, Nafarroako anitz herritan bete du egiteko hori. Lehen aldikoz, 1962an, Elizondon eta azkenekotz, 1991ko San Pedroz, Erratzuko bestetan izan da Mañukorta eta Sebastian Lizasori gaiak ematen. Elizondotik kanpo hogeit hamar hamasei herritan kantatu dute bertsolariek bere agindutara. Baserrit giroko gaiak erabili ditu gehienetan eta tarteka pikardi zenbaitekoak ere bai.

Lan honi ekin zionean Vaticanoko Bigarren Kontzilioa pilpilean zegoen eta apez kontuak sarri ateratzen omen ziren bertsolarien ezpainetatik. Gogoan du berak eta bai berarekin haserretutako, orduan Zubietako erretore eta egun Iruñean bizi den apez batek ere, behin Zubietan gertatua. 1970 urtea zen, abuztuko Andra Mariaren egunez. Goizez, Migel Arozamena eta Manuel Lasarte bertsolariak apezek esposatu behar zutenentz aritu ziren. Mariano Izeta bakarrik arratsalde azaldu zen saioa entzuterat. Entzundakoa arras bikaina izan zela deliberratu eta "Príncipe de Viana" aldizkarira bidali zuen egunari buruzko bere kronika goraiagarrietako bat. Aste-bete barru, telefonoz jaso zuen Zubietako erretore irainduaren purrusta. Apez honi bakarrik entzun zaio Marianoz marmarrean.

Elizondon, bere sorterrian, hasi 1962ko San Anton egunez eta 1991.eko egun bera barne, hogeit eta hemezortzi saio antolatu edo aurkeztu ditu orotara. Eskual bestak antolatzeko, orai baino estakuru gehiago jartzen zuten garai haietan, Marianok eskuz egindako txarteletan "Besta hau Nafarroako Diputazioneko Príncipe de Vianaren laguntzaz egiten da" ezartzen zuen. Bula honi esker, bertzerik ez bada ere, Gobernadoreari baimena eskatuz alferrik galdu beharreko denbora irabazten zuen. Gisa honetan, lehen aldikoz Marianok Elizondon gaia jarrita, Clemente Ezkurdia, Juan Perurena eta Juan Felix Iriartek kantatu zuten Antxitoneako trinketeetan. Azkenekoan, kezka guttiagorekin Baztango Balleko Etxeak antolatu eta Mariano Izetak deituta, 1991.eko urtarrilaren hamazazpian, San Antonez, Lazkao Txiki eta Imanol Lazkano aritu ziren Elizondoko udaletxeko kaleriatik.

Marianoren ezaugarriak nagusiena ordea, ikusten ahal den gisara, bertsozaletasunaren gainetik, eskuazzaletasuna da. Alor honetan lan ugari egin du, berari zegokion neurrian. Elizondo erdal girotu batean, eskuara erakutsi beharrean hasi zirelarik, 1969-1970 ikasturtean Izetak eskola nazionalerako mutiko andana bat hartu zuen bere kargu hizkuntza erakusteko. "Príncipe de Viana" erakundearen laguntzarekin antolatutako ikastaro hauetan Oñatibiaren metodoa erabili bazen ere, Izetak beti ematen zion baztandar ukitu bat, hango hitzak erabiliz bertako istorio zaharrak

kontatzerakoan. Eleizetan orduan kantatzen hasitako eskuarazko "Aita Gurea" ere Marianorekin ikasi zuten haur hauek. Bi urtez izan zen herriko mutiko koskorren irakasle. Ondoren, 1974 eta 1977 urteen artean sortu berri zen *Gau Eskolako* erakustun izan zen. Irakaskuntza utzi zuenetik, urtero irakasle taldeak joaten zaizkio Elizondora bere Baztango eskuara garbian solas egiten entzutera. Horretaz gain, Nafarroan barna ibilia da behin baino gehiagotan hitzaldiak ematen.

Bere herrian profeta izatea guttik erdietsi badu ere, hori lortu dutenetako bat Mariano Izeta da. Eguneroko bizitzan estimu haundian izateaz gain, dagoeneko bortz omenaldi egin dizkiote herrian. Hala, 1972an "Club Deportivo Baztán" deitu pilotari elkarteak, 1978ko Santio bestetan Elizondoko herriak edo 1983an "Baztandarren Biltzarrak" eskeinutako omenaldiak zor zaion maitasunaren lekuko dira. "Xorroxin" irriak eskeini zion 1990.eko apirilaren hogeitabian inoiz izan duen omenaldirik ederrena, bertsolari, xixtulari, abeslari, dantzari eta abarrekin. Azkenekoa, 1991.eko abenduaren hamabortzean eskeini zioten Baztango Balleko Etxeak eta "Nafarroako Bertsolarien Lagunak" elkarteak. Herritik kanpora, 1983.eko martxoaren 27an, Erramu Egunez, Dionisio Mujikak antolaturik, lesakarrek bertze omenaldi bat eskeini zioten. Urte berean, "Gipuzkoako Dantzari Elkarteak" ere bere omenalditxo eskeini zion Donostian Baztango "mutil dantzariari".

Aitari ikasitako erlojugintzan irabazi du eguneroko ogia baina horretaz gain sartu da irabazi material eskaseko zenbait aferetan. Ttipi-ttipitandik atxiki dio Baztani maitasuna eta deus gutxi izanen da Baztangoizako Arizkun, Erratzu, Amaiur eta Azpilkueta, Elizondo "koartel"eko Elizondo bera, Elbete eta Lekaroz, Erbereako Gartzain, Irurita, Arraioz nahiz Oronoz, edota Basaburuako Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandoz herrietan arrotz zaionik. Hango jendeak, mintzoak, baserriak, erreka bazterrak, mendi kaskoak eta dauden eta leudekeen zoko-moko guziak arakatu ditu. Halarik ere, egunero ikasten du zerbait berria.

Bertsolaritzari buruz egindako lanak ezagutarazi du bertze aldetik Eskual Herri mailan. Honetan ere, bere lana batez ere Nafarroara mugatuagatik, bazter guzietako bertsolari eta bertsozaleek dute Izetaren entzutea. Gaijartzaile gisara garaiari zegozkionak ezarriz atera arazi die punta bertsolariei eta, hauena gorai patuz, amorru bizia apezzen bati. Bertsolaritan, Xalbadorrek behin ohi zuena baino kopeta goibelagoa jarri omen zion Izetari, honek aitzineko igandean Oiartzunen entzundako gai berean -"Amatxiren eskuak"- kantarazi ziolako Antxitoneako trinketea. Xalbadorrek baleki zenbat estimatzen duen!

Horra bada, eskualtzale sortu eta eskualtzaletasunari zor zaion erlojulari xume baten ofizioz kanpoko ibilerak. Elizondoko "Lanbide Eskola"ko zuzendari den Joxe Urrozen iritzi "Mariano Izeta, berrogei eta gehiago urtez eguneroko lana modu askotan eskuararen alde egin duen gizona da. Eskualtzalea eta herrikoia, baztandarren aldetik gizon fin eta xalotzat hartua". Orok aitortzen dute Marianoren fintasun eta borondate ona. Mundua irrimusika gozo eta haur baten begi ninez dakusanaren irudia.

Mariano Izetak berak duela urte batzuz "Sor lekua"ri eta "Bidasoako Trena"ri jarritako bertsoak.

SORLEKUA

Airea: Xalbadorren "Aitona Gaztea" bertso sortarena.

1

Sorlekua maite dunak
badu hainbat sentimendu
bihotzak agindu hura
aditzera ematen du
gauza hori da bizi guzian
burutikan ezin kendu
eta gehienok horrekin gara
maiz hementxe nabarmendu.

2

Sorlekua utzirikan
aunitz direla urruntzen
ta erbestera joanik
penaz beterik han hiltzen
nahiz eta aunitzek duten
Eskual Herria maitatzen
bizi guzian han gelditurik
ez dira honat itzultzen.

3

Bakotxak gorai patzen du
gogoz bere Aberria
gizakiak barnean du
ai! maitasun egarria
mundu guziak horretan dauka
egun borroka larria
bakotxak berea maitatzea
da gauza zoragarria.

4

Aunitzek laudatzen dute
herriko edertasuna
bertan agertzen bait dute
noski beren maitasuna
lurralde hortan izan ohi dute
gogoko eginkizuna
kartsuki eskatuz Jainkoari
bakea ta osasuna.

5

Iduritzen zaigu gure
sorlekua ederrena
nahiz ta ez jakin guk hori
ote den beti zuzena
bakotxak bere sorterrria du
atxiki orotan lehena
eta ondoko herrialdeekin
laguntasunik onena.

6

Jendeak nahi izaren du
bizi bere sorlekuan
denek sartua bait dute
jaiotzetikan buruan
bainan ezpada ogibiderik
bilatu behar kanpuan
zoritxarrean ezin da egon
gurasoen inguruan.

7

deus e'maite ez dutenak
bainan nolakoak dira
gizaki hoiien barrenak
behar bada izanen dituzte
bihotz barrenean penak
beldurgarriak izanen dira
dauzkaten oroitzapenak.

8

Sorlekua goraipatu
dugu denen aintzinean
zaletasuna kartsuki
baitago geren barnean
jarrai dezagun beti bezala
anaioek eskual lurrean
maitasun garrak iraun dezala
eskualdunen bihotzean.

BIDASOAKO TRENA

1

Denbora batez bazen
Bidasoan trenan,
bidaiak egiteko
denetan maitena,
hori kendu zutelaik
hartu ginuen pena,
orai gelditzen zaigu
ai! oroitzapena.

2

Irun ta Elizondo
batzen zituena,
gau ta egun goiti-beiti
nekatzen ez zena,
bidaia merke eta
sakela gizena,
jendeak egiten zuen
negozio onena.

3

Ni ere sartzen nintzen
Bidaso trenetan
lasai ta goxo egonez
haren barrenean,
bidean ibiliz
erreka gainean,
politagorik ez zen
gure eskualdean.

4

Erreka gaisetikan
trena beti martxan
urak berratu ta ere
ez zegon zalantzan,
trenaren gaisetikan
zenbaitzuk arrantzan,
soinua jotzen eta
gazteria dantzan.

5

Baztandik, Doneztebe
Lesaka ta Bera,
Irunera joateko
bazuten joera,
handik etortzen ziren
errexki gain-bera,
eguna ongi pasa
ta pozik etxera.

MARIANO IZETARI BAZTANDAR BATEK

1

Udaberriko lore artean
jaio zaigun baztandarra
ogi bizitzaz erlojerua
mutil dantzari edarra
hainbeste ipuin idatzi ditun
idazle jator azkarra
bertsolaritza ta euskararen
garatzeko enbor zaharra
Gau beltzenean goibel artetik
argitzen duen izarra.

2

Abertzale ta bertsozalea
langile bezain apala
hizlari ona, gizon goxoa
gainera bihotz zabala
eguzkalderik haundienean
badauka bere itzala
zin egiten dut arbol haundi hau
herriak maite duala
kaiolan dagon txantxangorriak
askatasuna bezala.

3

Mariano da Baztan bailarak
loratzen duen arbola
altzak bezala bihotz samurra

ta gaztainaren odola
arbol haunditan ikasirikan
fruituz beterik dagola
sendimenduak borboka doaz
ezin kabitu inola
zure irria agertzen zaigu
maitasuna dariola.

Bittor Elizagoien, Arraioz

EMILE LARRE

Emile Larre Otxobi Baigorriko "Belarria" etxean sortu zen 1926.eko urtarrilaren hiruan. Aita Mañex eta ama Marik hiru haur izan zituzten, Emile nagusia, Jean Pierre etxean bizi dena eta Albert ttipiena. Hamaika urterarte, Baigorri bizi izan zen Emile giro eskualdun batetan. Gero, orduko familia gehienetan gertatu ohi zen bezala, Uztaritzeko Seminario ttipirat bidali zuten. Hamaika urte zituelarik, 1937. urteko larrazkanean atera zen sortetxetik Lapurdirat.

Bere bizitzako urterik onenetarikoak apezgaitegian eman zituen Emilek. Bertan piztu zen Larre eta bertze aunitz apezgaikiderengan eskualtzaletasun txinparta. Uztaritzen apezgai eta seglarrek batxilergo ikasketak burutzen zituzten. Urte batzu beranduago ospea eta izena lortu duren aunitz jende talde berekoak izan ziren. Bertzeak bertze, gaztaroa elgarrekilan eman zuten Jean Hiriart-Urruty, Joseph Camino, Jean Irigoyen, Jean Loustau, Beñat Dokelar, Beñat Larroulet, Emile Larre, Beñat Goiti, Michel Labeguerie, Nicolas eta Michel Inchauspe anaiak eta abar luze batek. Piarres Lafittek erein zuen heiengan sortu ziren lurrarekiko atxikimendua. Hauek, eta urtetan helduagoek, ontsa merezia dute beraz, eta harro daramate, "Lafitteren umeak" bezala ezagutuak izaita. Lafittek, bertze disziplinen artean, astero ordubetez, eskual kantutegi zaharra, Eskual Herriaren Historia, ohiturak eta abar erakasten zizkien.

Urte heietan, eskola eta lizeo zonbeitetako gazteek, "*ikasleak*" deitu mugimendua sortu zuten. Ximun Haran eta Fagoaga anaiak, Uztaritzeko ikasleekin ere harremanetan jarri ziren elgarretartzeko. Geroztik, garai heietan eman urratsen ondorio, nork bere erara herri jakintza eta herrigintzan partaidetza azpimarragarria izan du. "Denen bekatua Lafitte izan da", gogoratzen du irrifarre gozo batez Emile Larrek. Baina barkatzen dio. Bistan da barkatzen dion!

Uztaritzen zazpi urtetako ikasketak burutzean, Larre Baionako seminario haundian sartzeko gazteegia zelakoz, bertako arduradunak Mauleko kolejiara bidali zuen erakasle-lagun. Urtebetearen buruan, 1945ean Munduko Bigarren Gerla finitua zelarik, Baionako apezgaitegi nagusian sartu zen. Uztaritzetik zetorren talde berriak, apezgoari buruz ikasketak sakontzeaz gain, Piarres Lafittek piztutako Eskual Herriarekiko zaletasuna lantzeko xantza ezin hobea ukan zuen Baionan.

Berriak heldu zireneko, bertan zeudenek zonbeit lan egin zuten bide horretan. Apezgai helduagoek ateratako "*Aintzina*" aldizkariak ez zuen sobera iraun goitik heldutako agindu bat tarteko. Izpiritu horrek apezgaitegiko horma artean zirauen ordea eta hala, bertzeak bertze, Etxegaray, Giltzu, Agerre, Duhour, Bidegain eta Charritonekin egin zuten topo Uztaritzetik zetozen berriek. Charriton eta Bidegain ziren denen aitzindari eta zernahi aitzakia aski zen eskual ekintzen antolatzeke. Kantu zaharrak ez ezik, eskual dantza, pilota eta antzerkia lantzea begi onez ikusten zuen Seminarioko zuzendaritzak, ikasleak apeztean zegozkien herrietako gazteekilan harremanak sendotzeko. Emile Larrek pilota zuen maite, geroago ikusten ahalko den bezala. Baina berak gogoan ez badu ere, 1946an "*Amaren heriotza*" izeneko antzezlan eman zuen bere klasekoekilan.

Apezgai eskualdunek gainera, eskuz esku zebilen ofizialtasunik gabeko "*Aintzina*" moduko kaiera batetan izkiriataile bezala eman lehen urratsak gogoan dituzte. Jean Hiriart-Urruty eta Emile Larrek idatzitako bertsuak ere han izanen ziren. Bertzalde, aipatu gabe ezin utzi Narbaitz zutela filosofia erakasle. Hunek, eleiza liburuak itzularaziz trebatu zituen apezgaiak. Urte batzu beranduago, Vaticanoko II Kontzilioaren karietara, Erroman gauzak mugitzen hasi zirenean, Narbaitzen ikasle izandako zonbeit lehen E eskual liturgiaren itzulpengintzan lan egin zuen. Beraz, eskuararen

lantzeko erakasle eta parada ezin hobea ukan zuten Baionan emandako urteetan. Badirudi apezgaiak, geroari buruz jakitun bailiran, euskaltzain izatera jolasten zirela. Azken urteotan, Ipar Eskual Herriari dagozkion *Euskaltzaindiako* eserleku gehienak Baionako Seminario Haunditik pasatako jaunek bete bait dituzte.

Sei urte egon zen Larre Baionako Apezgaitegian, 1945etik 1952ra. Horietarik bat, 1947 eta 1948 artean soldadutza eginez pasa zuen Okzitaniako Tolosan. Azkenean, Baionako Eleiz Barrutiak ohitura duen gisa, 1951. urteko Jon Doni Petriz, hots, ekainaren hogoitabederatzian apeztu eta Baionan eman zuen lehen meza, ondoko igandean Baigorriin, bere sorterrian, kantatu zuelarik. Urte bereko buruilean, apezpikuak Hazparnerat igorri zuen bikario (Hegoaldean koadjutore). Urtebetearen buruan, Donibane Garaziko Mayorga eskolarat abiatu zen erakasle eta koadjutore. Laborantza eskolaren sortzeko bidalia izan zen eta hala 1954an "Frantzesenea" eskola sortu zuen, orai Baigorriat aldatua dena. Izen hori, Xabierreko Frantzes Donearen ohoretan jarri zioten eskola berriari.

Baxenabarreko Garazitik Lapurdiko kostaldera abiatu zen 1956an. Oraingoan Urruñarat bikario igorri eta han, geroztik estimu handian izan duen Jean Baptiste Etcheberry erretorearekilarik, aritu zen lanean sei urtez. Urte berean, 1956an alegia, "Gazte" zeritzan gazetan hasi zen idazten. Azaroan karrikaratutako "Gazte"ren lehen alean "*Lanarekin Borroka*" izenburuko lerroak "*Sokorri*" goitizenez sinatuak ageri dira. Sokorri izena Urruñako marinelen zaindariari zor dio Larrek.

Dena den, Urruñan bikario zelarik piztu zen Larrereren egiazko bertsuzaletasuna. Etcheberry, orduan erretore zenak, bertsulariak biziki maite zituen. Teodoro Hernandorena, 1958.eko udaberrian Parisetik bertso saio baten antolatzeke zinemaren galdez jiten zaiolarik, bitan pentsatu gabe eman zion baiezkua. Hernandorena eta Larrek han ezagutu zuten elgar. "Hernandorenarekilarik dut nik hasera, aunitz bertsularik bezala", aipatzen du Emilek. Pariserat zoin bertsulari joanen ziren erabakiko zen saioaren antolamendu lanetan ibili zen Emile Larre. Larrerendako lehen aldia izateko, jende aldetik saio arrakastatsua izan zen hura. Urruñako "Itsas-Mendi" sala lepoa luzaka jendez bete zen, bertsulariendako lekua doi-doi zelarik. Ordukoari atxikiz, Urruñan egon zen urteetan hutsik egin gabe bertso saioak antolatzearen ardurua bere esku hartu zuen. Apezgoa beraz, bertsuzaletasunarekin eta "*Gazte*" nahiz "*Herria*" aldizkarietako kolaborazioneekin ereman zuen. Halarik ere, bikario eta erretore izan den herrietan lan bikaina egin du, bertako berri, lekuan lekuko gazteek eman dezaten "*Herria*" astekarian.

Bapatean, 1962an bere bizitzan axola handia izan duen egiteko bati buruz abiatu zen. Hazparneko misionest talderako hautatua izan zelarik, zazpi urtez Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberuan gaindi ibili zen predikari. Jainkoaren Hitza zabaltzen ibiltzeak, Baigorriko apez gaztearendako Ipar Eskual Herriko jendeekiko harremanak sendotu eta sorterriarekiko atxikimendua emendatzea ekarri zuen. Urte gogoangarriak eta gerorako baliagarriak zinez, herriz herri ibiliak. Ez zen ordea, egiteko berrian, bertze adiskide batzu bezain eletari bikaina, memoria txarra bait zuen. Predikari bezala bere burua ariaren harian trebatu asmoz, bapatekotasuna zeritzon biderik onena. Gisa hunetan, xantza zuen aldi oro bertsutan artzen zen bere kabuz.

Urteak joan urteak etorri, zazpigarrenean misionest lanak utzi eta Aiherrako erretore izendatzen dute. Urte berean, 1969an, "*Herria*" kazetako zuzendaritza bere esku gelditzen da. Sortu zenetik, 1944etik 1967rarte, Piarres Lafitte arduratu zen astekariaz. Bi urtez Jean Hiriart-Urrutyren esku egon eta azkenean Emilek hartu zuen, beti ere Lafitte hil artino, bere aholkuak eta laguntza atxikiz.

Urte hauetan lotu zitzaion bertsularitzaren aldeko lan sakonagoari ere. "*Herria*" astekaritik lan handia egin dute bai Lafittek, bai Larrek bertsulariendako. Ipar Eskual Herriko supazter xoko eskualdun gehienetara ailegatzen den kazeta demokristau hunek astero eman ditu argitara bertsulari eta bertsuzale zonbeitek bidali sortak. "HERRIAREN urgulua izan da -erraten du Larrek- bertsulariek behar zutela bere orrietan formatu. Lafittek eta nik ez dugu egundaino bertsu makurrik agerrarazi HERRIAN". Alor huni dagokionez bertsulari eskola bat izateko xedea atxiki du "*Herria*"k.

Jakin badakite jakin "*Herria*"ra bertsurik igorri dutenek, usu etxean biltzen zutela berriz Larrek gibelerara bidalitako gutuna, makurra non zen agertuz, bertsuaren arauak zeintzu diren azalduz eta makurren zuzentzeko galdatuz. Jean Pierre Mendiburu, Ernest Alkhat, Jean Louis Harinordoki "Laka", Joanes Arrosagaray, Fermin Mihura eta bertze

zonbeitek Larrerri zor dizkiote bertsularitzaz lehen erakaspennak. Dena den, nehoiz edo behin munduko borondaterik onenarekin, denboraz juxtu zebiltzalarik, Lafitte edo Larrek berak, mamiari ahal bezain fidelak izanik moldaketarik egin dute. Horrelakoetan zaila da ordea fideltasunaren neurri zehatza zoin den jakitea eta edukiari ere ukituren bat emateaz kexu agertu denik bada.

Bapateko bertsularitzari dagokionez, bere apezgoa bertsulari gazteen bultzatzeko baliatu izan du usu. Kermeza, bataio, jaunartze, ezteiak edo gainerako eleizkizunetarako, apezek Mattin eta Xalbadorrez galdatzen ziotelarik beti saiatu da gazteren bat sartzen. Bertsu saiotarako usadioa erdi lokarturik dagoen Ipar Eskual Herri hunetan, eleizan egin saioen bidez ezagutarazteko xantza ederra ukan dute bertsulariek. Horretaz gain, Aiherrako erretore zenean urtero Bazko Egunez antolatzen zuen bertsu saiora gazterik erematen zuen. Bertsutan artzen ziren gazteen berri jaso orduko gomitatzen zituen Aiherrarat.

Larrerren eraginez hasi guziak ez dabilta egun plazan. Abiatu direnen artean aipatzen ahal dira Beskoitzeko Larre, Emilerekkin familia ez dena, edo Arrosako Jean Baptiste Irigaray. Azken hunetaz, aunitzek gogoan du gau batez egunsentirartino Xalbadorrekin aritu zela jo eta jo. Bertzalde, Xiberuarekila mugan mugan dauden Oztibarreko Arhantsusi herrixkako Etxeberri eta Jutsiko Merkapide abiatu baina isilduak dira dagoeneko. Azken hau, esposatu ondoan Ameriketarat joan zen bizitzera.

Bertsularien txapelketetan ere izan da epaimahaiko. Lehen aldikoz, 1962ko Euskal Herriko Txapelketa Nagusian azaldu zen Michel Labegueriren ordeko. Geroztik, *Euskaltzaindiak* txapelketak antolatzearen ardura utzi duen arte, bertan izan da. Nafarroari dagokionez, urtez urte, saioz saio jarraitu die eta jarraitzen bertsularien gora beherei.

Bertsularitza ez ezik bertze alor batzu jorratu ditu Emile Larrek. Ttipi-ttipitandik maite izan du pilota jokoa. Apezgaitegian trebatu zen eskual joko hunetan. Vaticanoko Bigarren Kontzilioa egin artino tarteka sotana eta guzi aritu izan da zartaka. Aiherrarat heldu zelarik, artean ez zen trinketarik herrian. 1971. urtean eraiki zuten eta 1972az gero urtero antolatu izan dute herritarrek *"Oraiko Aiherra"* deitu pilota lehiaketa. Izen hori hazpandarrek *"Lehenko Hazparne"* lehiaketa dutelako ezarri zioten. Herriko erretorra, gazteekilan bat, antolamendu eta partaidetzan aritu izan da. Hala, 1974an Andre Ospitalekila txapeldun suertatu zen lehen kategorian. Aiherran bizi azken urtean, 1980an, François Barbier eta biak garaile izan ziren hirugarren kategorian. Berrogoi ta hamalau urte zituen orduan Emilek. Larre eta bertze zazpiti, heien zaletasun eta egin lanagatik, *Pilotarien Biltzarrak* omenaldi ttipi bat eskeini zien Baigorriin 1991.eko azaroaren hamaikan.

Bapateko bertsulari bezala lagunartean kantatu izan du nehoiz. Emileri bapatean bildutako bertsu gutti izanen da. Horietako ale batzu Carmelo Etxenagusia eta Jesus Gaztañaga apezek gorde dituzte. Istorio bitxia duten bertsuak! Vaticanoko Bigarren Kontzilioan erabaki zenaren arabera, liturjia lekuan lekuko hizkuntzara itzuli behar zela eta Eskual Herrian apez talde bat arduratu zen lan horretaz. Ordainez, Eskual Herriko borts Eleiz Barrutiek Erromara bidai bat ordaindu zieten. Donostiatik 1971.eko buruilaren hamazazpitan atera eta hogoitamarrerarte Erroman gaindi ibili ziren Piarres Andiazabal, Benoit Olhagarai, Piarres Charriton, Emile Larre, Mixel Idiart, Arnaud Indart, Manuel Lekuona, Jesus Gaztañaga, Antonio Sarasola, Mikel Zarate, Lino Akesolo, Carmelo Etxenagusia, Jaime Kerexeta, Pedro Mari Zabaltza, Mikel Plaza, Martin Azpirotz, Basilio Sarobe eta Bixente Hernandorena.

Buruilaren hogoitabatean, Iruñea eta Tuterako artzapezpiku izan eta orduan Erroman kardinale zen Tabera Araoz jaunak hartu zituen. 1972.eko otsailaren hamahiruko *"Zeruko Argia"*k zekarren, *"guztion izenean eta orde, Larre'tar Emile jaunak egin zion agurra. Bertsoz agurtu ere:*

*"Euskalerrri'ak agurtzen zaitu
biotzez Kardenal jauna,
zure amaren erritarrak gu,
Erroman bilduak huna:
Liturjiak gu berriz urbiltzen
leku guztitako laguna,
arek gu, egun, euskaldun eta
berriz kristau-batasuna".*

Hurrengo egunez, Paulo VI.a Aita Sainduak, asteazkeneroko ohizko mintzaldiaren ondotik, hartu zuen apez eskualdunen taldea. Ordukoa omen Piarres Charritonek Aita Sainduari "*Liberentur e carceribus*" oihukatu ziona.

Emile Larrek bidaian botatako bertze bertsu batzu dira ondokoak. Akesolo, Etxenagusia eta Zaratek aleren bat bota zuten baina Emilerenak soilik agerturen dira. Lino Akesoloz ari denean, hunek erloju bat erosi omen zuen Genovan eta gainerako adiskideak pobreziako botuak hautsi zituela eta adar joka ari zitzaizkion.

Bertze aire bat hartuko diot
oraintxe Aita Linori,
ene erranak horrentzat dira
ez dut erraiten orori.
Bainan egia erraiten dut ta
hartazu gogoan hori:
kale batean ez ote zira
urrats txarretan erori?

Erloju hura ikusi eta
nindagon ni gustaturik
bainan gehiago erostekotan
ez bainuen nik dirurik...
Zertako hori erranen dautzut,
eta erran e' osorik:
Aita Linok bezala ez baitut
egin nik nere botorik!

Sartzen zira zu Linorekilan,
denak horren erlojuan...
Etzeinakien Erromaraino
xuxen zertara zen joan?
Orai bertsuak botatzen ditu,
bai ditu aski goguan!
Gogua alai derauka hunek
"aferak" egin onduan.

Benoit ere ixil dagola
nik ez nezake ukatu,
itzuli huntan gizon serio
plantakoa da gertatu;
hau behar diot apez jaun huni
oreren partez eskatu:
gure bekatu haundi-haundiak
ditzagun horrek barkatu.

Ene auzuan ere badaukat
liburuen egilea,
euskal gauzetan, idatzietan,
gizon zuzen ta trebea;
baina hunentzat holako bide
zuzenik egun badea?
Haizu ote du holako batek
egun lotan egoitea? (*Kerexetari*)

Ez dakit nola ibiltzen dudan
egungo guzien saltsa,

erraiten ditut erraitekoak,
ahal dutan bezain untsa;
xuxendu behar dute zonbaitek
ene erran hauen funtsa,
gizon zintzoak hortako daude
Lekuona ta Zabaltza.

Azken urteotan, Emile Larrereren bizitzan gertatu eta aipatu gabe utzi ezin dena, 1975az gero euskaltzain osoa dela. Lafonen ordez sartu zen Euskal Akademiara eta egun *"Ahozko Literatura"* batzordeko partaidea da. Bertzalde, 1980an Aiherra utzi zuenez gero, Irisarriko erretore da. Horretaz gain, Suheskune herrixkako parrokia ere berak erematen du. Gainera, *"Herria"* gazetako zuzendaritzan hogoitabi urte bete eta 1981az hona, Salaberryk utzi zuenetik, editorialista da. Egin bertze lanen artean, liburugintzari tartetxo bat utzi behar zaio. Eskual liturgiako liburuetan parte hartzeaz gain, *"Aiherra, Nafarroaren leihoa"* berak idatzi zuen. Bertzalde, Jean Hiriart-Urrutyren lanak bildu eta argitaratzen ari da, dagoeneko seigarren liburukia bidean delarik. Urruñan bere erretore izandako Jean Baptiste Etcheberryren hamahiru liburuetarik parte bat ere berak zabaldu du.

Kantugintzan, eleizetan abesten diren aunitz kantika berri, edo kantika zaharren aldaki berri, Larrek eginak dira, hala hola, "Kristorekin gu", "Zure lekuko", "Jainkoaren populua gu", "Kristo apeza", "Elizaren Ama", "Agur Maria", "Ama maite Maria", "Kristo Erregeri", "Zerua saritzat", "Fededunek Biltzarre", "Kanta zagun guziek", "Ama ezta", "Besta eder huntarat", "Laudorio ohore", "Ogi guretzat emana", "Azken gau", "Gora zu kurutzea", "Jaun ta salbatzaile", "Ama bisitari", "Piztu da lorios", "Trinitate Saindua", "Nor entzun" eta abar luze bat.

"Ni baserriko medikua bezala naiz: ezertan ez espezialista". Apezgoak agintzen dion umiltasunetik erran hitz xume hauek, dioena baino gehiago den gizon baten izpiritua adierazten dute. Bizitza osoa tarrapataka lanean, usu uzta biltzekoz beharrezkoa den lan isilean zaildutako gizon baten hitzak. Borondaterik onenarekidan bertzeer emandako gizon baten hitzak. Maila gorenak ahantziz Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberuko supazter eskualdunetara eskua luzatu duen gizon baten hitzak. Sorterriarekiko atxikimenduari eutsi dion gizon baten hitzak. Bertsularitzaren sostengu apal izandako gizon baten hitzak.

Lafitteren ume, Ipar Eskual Herriaren ezagule, *"Herria"* astekariko zuzendari, euskaltzain oso, Irisarriko erretore eta bertsularitzari buruz, Hernandorenarekidan hasi eta gero bertsularier erakatsiz eta saioak antolatuz ibili den gizon hunen irudia, bere osotasunean baxenafartar eskualdun fededun baten irudia da. Eskualdun eta fededun! Emilek Xalbadorrez erran zuena Emilez erraten ahal da: "Ez da gizon horrentzat bizia josteta bat eta ez du ezer axalez eta arinki hartzen".

EMILE LARRE ADISKIDEARI

Aiherrako erretor zinelarik Emil
idatzi zinerauztan zonbeit lerro abil
ta ni lanari lotu xintzo eta umil
bertsu xume ta xuxen batzueri hurbil
zuri eskerrak dela medio banabil.

Fakturrak zure letra zerautan ekarri
xeheatasun guziak zinauztan ezarri
truntxoak nola molda, pikoak non jarri...
jendek jakin bezate banaiz bertsulari
nitan den on guzia zor dut "Emil Larri".

Bertsutan banabila eskun eta ezker
ahalaz ateratuz zonbeit bertsu eder
atsegin eman nahiz batzu eta bester
nor den nere maixua salatzen dut dener
plazaratu naizela "Emil Larri" esker.

Jean Pierre Mendiburu, Heleta

BIGARREN ATALA

NAFARROAKO BERTSOLARITZA

I.

ILUNTASUNETIK ARGIRA, ARGITIK ILUNTASUNERA

Martin Olaetxea zuen izena. Beratarra zen eta zurgina. 1830.ean, Berakoa ere zen Legia liberalak Espainian armada batekin sartu nahi eta porrot egin zuenean, Olaetxeak trufa egin zion bertso sorta bat paratuz. Honela zioen lehenak:

*Armada eder bat ekarri digu
Berara Fermin Legiak
yudu eta sastre protestantiak
ark ere eztitu beriak,
galtzen neurria artu diote
español kazadoriak.*

Pio Baroja idazleak eman zuen Olaetxearen berri "El *aprendiz de conspirador*" bere eleberri ezagunean. Bertso sorta osoa, berriz, Julio Caro Baroja haren ilobak argitara eman zuen 1944.ean "La vida rural en Vera de Bidasoa" izeneko lanean. Alde horretatik, beraz, beratarra salbuespen bat da, bere lan apurra jaso eta ahanzturatik atera ahal izan zelako izen-deitura eta guzti. Nafarroako bertze bertsolari aunitzek, gehiengehienek hobe erran, ez zuten zorte bera izan.

Dudarik ez da, bertsolaritzak Nafarroan gainerako herrialdeetan bezain erro zaharrak dituela. Olaetxearen bertsoak baino lehenagokotik bada horren lekuko franko: "Berdabioko semea" (gero, Mikel Laboa kantariaren ezarririk "Goizuetan bada gizon bat" izenez zabaldu dena), "Ituringo arotza", "Pello Joxepe", San Migelen iduriaren lapurketaren bertsoak, Belateko lapurren bertsoak... Hauexek bezala, jatorria XVIII mendearan hondarrean edo XIXaren hasieran duten bertze batzuek ere egilerik izanen zuten, bistan da, baina, tamalez, haien izenik ez da gaurdaino ailegatu. Alde batetik, Nafarroak ez du izan, Gipuzkoak ez bezala, Juan Ignacio Iztueta bezalako kronista euskaldun eta euskaltzalerik garai hartako bertsolaritzaren berri emanen zuenik. Bertzalde ere, herrialde honetako euskaldungo gero eta erasotuagoaren oroimen kolektiboa -oroit gaitzen XIX. mendean gertatzen dela Nafarroan euskararen atzerakadarik nabarmenena- ahula izan da, ahulegia bederen, izen zahar horiek eta haiekin batean joanen zen bertso produkzioaren atalik haundiena gogoan atxikitzeko.

Anonimatoa. Horra, beraz, Nafarroako bertsolaritzaren urte zaharrenean ezaugarri nagusia, gero ere, zoritxarrez, errepikatuko dena. Badakigu bertsolariak bazirela, haien lanetik zerbait eskuratu ahal izan dugulako. Haien berri zehatzik ez, ordea.

XIX mendean gutxi izanen da egoera horretatik salbatzen den bertsolaririk. Gnarro bidarritarra, Xantxo "mandozain" baigorriarra, Manex Apezena Bankakoa, Pudent arnegitarra, Joanes Etcharren irulegiarra, Etxamendi ezterenzubierra, Larralde, Larramendi eta Lasarra eihalarretarrak, Felipe Sanziñenea etxalartarra, Exkerra beratarra eta Santxo Koblari Erroibarkoaren izenak liriateke salbuespen bakarretako batzu. Eta, hori hala izan bazen ordukoko bertsolari haundiekin batean -Juan Etxamendi "Bordel" luzaidarra, Joanes Otxalde, Zalduby- lerrokaturik agertzen direlako da, bai kronisten lanetan, bai herriaren oroimenean.

XX mende hasierarekin Euskal Herriko kultur mugimenduak hartu zuen abiadura berriak ere argi izpi bat ekarriko zion nafar bertsolaritzari. Hemen ez da Txirrita edo Pello Errota bezalako izen haundirik, lehenago ere Xenpelar edo Bilintzik izan ez zen bezala. Halarik ere, bada garai horiek oroitarazten diguten izenik: Manex Hiriart ezterenzubiarra, Juan Antonio Sanziñena "Axura" etxalartarra, Juan Migel Bera zubietarra, Pedro Maria Etxarte lesakarra, Santxo eta Jose Maritorea amaiurtarrak, Trinidad Urtasun iruritarra, Iribarren goizuetarra, Kristobal Beiñes eta Miel Joakin Barun leitzarrak, Lazaro Bengoetxea eratsundarra, Agerrebere erratzuarra, Xalbador Elorga lekaroztarra, Ignacio Larramendi, Roman Dornaku eta Joakin Aldabe beratarrak... Haien bertsoetatik, ordea, deus gutxi ailegatu da gure egunetara, ez badira behintzat, batzuen kasuan, han eta hemen argitaratutako aleak. Bertzela gertatu zitzairen Andres Astiz goldaraztarrari, Mañex Etchamendy ezterenzubiarrari eta Paulo Yantzi igantziarrari. Hauek, bederen, beren lanen lekukotasun oparoa utzi ziguten liburu banatan.

Izenak izen, erran daiteke nafar bertsolaritzak 1936.ean agertzen duela, "ofizialki" edo, lehen aldiz bere burua. Argiune llabur bat bi isialdi luzeren artean.

Bertsolaritza berrituaren hastapena, gai honetan jakitunek, Espainiako gerra aurrean Donostiari ospatutako bi "*Bertolari Eguna*" zirelakoan inguruan kokatzen dute. Gerora, Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa izena eman zitzairen bi horiei, eta bertan herrialde euskaldun guzietako ordezkariak parte hartu zuten "*Euskaltzaleak*" elkarteak deituta. Nafarrak lehen urtean ez, baina bigarrenean han izan ziren, Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" k txapela irabazi zuen urtean. Aski ezagunak diren arrazoiengatik, hasera harek ez zuen zegokion jarraipenik izan.

Donostiako "*Euskaltzaleak*" elkarteak, bertzeak bertze, Jose Aristimuño "Aitzol", Telesforo Monzón, Joseba Zubimendi eta Teodoro Hernandezenak osatua, izan zen jaialdi bi hauen eratzalea, Donostiako "*Euzko Gaztedi*" laguntzaile zuelarik. Erran den bezala, nafarrak bigarren urtean bakarrik azaldu ziren. Lehenengo "*Bertsolari Eguna*" arrakastatsua ondotik, 1936.ekoa hobe zatorren alde guzietatik. Partaidetzak gora egin zuen eta Donostiako saioa luzeegia gerta ez zedin kanporaketak jokatu ziren Tolosa, Azpeitia eta Elizondon.

Nafarroako kanporaketan hamar bertsolari aritu ziren. Antolatzaile lanetan, lehen aipatu direnaz gain, Elizondoko "*Euzko Etxea*" -bertako nazionalisten gerizpean sortutako elkarteak- aritu zen. Aipagarria da, Bittori eta Esteban Etxeberria anai-arrebek, Mariano Izeta gaztea laguntzaile zutelarik, bertsolari bila egindako lana. 1936.eko urtarrilaren hamabian Elizondoko Antxitonea trinketean hamar bertsolari bildu zituzten.

Mixel Dargaitz, Sara, Amaiurren bizi zena
Simun Ibarra, Sunbilla
Pedro Ibarra, Ziga
Juan Ibarra, Ziga
Joxe Mari Mutuberría, Eltzaburu
Jean Harriet, Aldude
Juan Felix Iriarte, Irurita, Bankan bizi zena
Martzel Larrosa, Banka
Beltran Sahargun, Banka
Patxi Elorga, Lekaroz

Ez ziren, noski, Nafarroan orduan zeuden bertsolari bakarrak. Antolakuntza Elizondon kokaturik egonik, Baztan eta inguruetako ibarretara (Bidasoak, Ultzama, Baigorriko kantonamendua) baizik ez bide zen ailegatu zabaldu zen deialdia. Bertsolaritzaren munduan zer erran ugari izan zezaketen bertze lurralde batzuetan (Larraun, Imotz, Leitza eta Goizueta aldea, adibidez) ez zen kasik haren oihartzunik izan. Bertzalde ere, txapelketaren figura bera "berrikeriatzat" hartu zuten bertze batzuek, eta uzkurto. Azkenik, ideolojia karlista zuten zenbait bertsolari -eta ez ziren gutti orduko Nafarroan- ez ziren agertu "*nazionalisten afera*" zelakoan.

Epaimahaia, bertze lekutan bezala, Jose Aristimuño "Aitzol", Manuel Lekuona, Toribio Alzaga, Joseba Olaizola, Joseba Zubimendi eta Txomin Olanok osatzen zuten. Elizondoko saiorako, ordea, "*Manezaundi*" eta "*Larreko*" nafar idazleak ere deituak izan ziren. Gai-jartzaile lanak Basarrik egin zituen. Kanporaketa hura giro ezin hobean jokatu zela gogoan du Mariano Izetak eta Joseba Zubimendik "*Bertsolari Guduak 1935-1936*" liburuxkan dioenez: "Zazpi probintziak, berak zioten eran, gogoz goraldtu zituzten. Zeiñek baiño zeñek beroago ta indartsuago. Une aietan ez zan euskeldunentzako mugarik, eta entzulei, asieran, txalorik ez egiteko esan ba'zitzaien ere, ezin eutsirik, bein baiño geiagotan ausi zan agindua. Ura zan eusko garra!".

Antxitonea trinketea Juan Felix Iriartek eskuratu zuen lehen postua. Ondotik, Joxe Mari Mutuberria, Jean Harriet eta Mixel Dargaitz gelditu ziren. Lau hauek lortu zuten Donostian ondoko igandean jokatu zen saiorako txartela. Eguna heldu zenean, urtarilaren hemeretziaren, Joxe Mari Mutuberriak ez zuen joaterik izan eta bertze hiru ordezkari nafarrak aritu ziren indarrak neurtzen gainerantzeko sei partaiderekin. "*Victoria Eugenia*" antzokian Txirritak jantzi zuen txapela, Uztapide bigarren eta Zepai hirugarren suertatu zirelarik. Laugarren eta bostgarren lekuan Mixel Dargaitz eta Juan Felix Iriarte gelditu ziren. Orduan kantatu eta talde batek eskuz bildutako nafar ordezkarien bertso batzu datoz ondotik. ("*Bertsolari Guduak*" liburuxkatik dauden bezala hartuak).

Iriarte:

Gernika'ko arbolak
gogor dauka azala.
Ni ere mintzaten nuzu
euskal zintzo bezala.
Gure zeruko Yinko jaunak
konserbatu dezala,
euskaldunak ar dezaten
arbol orren itzala.

Basarrik, laster etorriko zena iragarri bailuan, "*Gerra zitelen ondoren txarrak*" gaia jarrita Dargaitzek botatako bertsoak.

Dargaitz:

Gerla eta pakea ez dire
mundu onetan berdiñak,
gerlak beti eman bai ditu
bazter guztietan miñak.
Ba-dakizkigu negargarriak
egundo ere ez atsegiñak
gerlan aragi baiño naigo dut
bakietako zardiñak.

Zenbat amak negar egin zun
gaixuak gerratian
orain bezela desiatzen nun
euskaldunaren artian
bizi zedilla orduan ere
gustora eta pakian,
euskaldun pranko bearrik gabe
an sartu zuten lurpian,
negar egin dut amaika aldiz
gauza au gogoratzian.

Egi aundiak erran bear ditut
nere biotz-biotzetik,
bear gabe partitzen gera
bertze batzuen atzetik.
Nik zertarako joan bear nuen
gerlara euskal erritatik,
zazpirak bat izan ba'giñan

etzegoan orlakorik,
besarka gaiten orain guziok
geio lotzeko gogotik.

Ondoren Basarrik puntua emanda aritu ziren bertsolariak.

- Basarri:** *Zu zera bigarrena
adiskide Dargaitz*
- Dargaitz:** Nere izena dabilte
or aboetan maiz
Euskalerrria'n yaiota
bertan azia naiz,
gauza ori yakiten
zuk etzenduan gaitz.
- Basarri:** *Banka'tik etorrita
Harriet gaztia*
- Harriet:** aspalditik daukat nik
orlako suertia;
plazer izandu dut nik
ona etortzia,
emen ikusitzen dut
euskaldun yendia.
- Basarri:** *Nungua zaitugu zu
adiskide Iriarte?*
- Iriarte:** Irurita'n sortua
Naparra'ko parte.
Prantzian izan nauzu
ia orain arte
eta lan egiña naiz
beti gure parte.
- Basarri:** *Aunitz yende daukazu
aurrean entzuten*
- Dargaitz:** Mitxel'ek ta yendeak
konprenditzen zuten.
Naparru'tik Gipuzkoa'ra
ekarri ninduten,
benaparrak bertsoan
orain ari ganen.
- Basarri:** *Zintzoki gorde zazu
euskal izatea.*
- Harriet:** Aiskide, ez dut ukatzen
dutala maitea.
Nik nai dut beti orla
euskaldun yendea
bertan izandua dut
nik ere sortzea.

Basarri: *Donosti'n zer gustatu
zaizu, gaur, geiena?*

Harriet: Auxe dezu aspaldian
nere gogoena.
Ederra zala beti
aitu nuen fama,
oraintxen ikusten dut
ederra dagona.

Basarri: *Nekatua zaitugu
ustez onezkero*

Harriet: Pentsatu ta bota nik
nai nizuke gero.
Ni nauzu orain emen
mintzatuko bero,
plazer nuke zuekin
ementxen urtero.

Joseba Zubimendik *"Bertsolari Guduak 1935-1936"* liburuxkaren bukaeran zioen: "Bigarren urtean ospatu degu Bertsolari Eguna. Beste askoan irauko al du gure errien onerako. (...) Len gertatu zen alderdi auetan eta berriro ere gerta liteke orain agertzera guazena: Garai larriak zebilzkien gure Euskalerrria'k; guda zital baten ondoren ostu zizkiguten gure antxin eskubideak. Zeiñen deadarrak esna zezaken orduan gure errien lo-zorroa? Bertsolarienak! An azaldu zan Iparragirre erri-esnale".

Ordurako, gerraren zurrumurruak bazter guzietan zabalduak ziren. Urte bereko uztailean gerra hasi eta "erri-esnale"ak "ihesi joan dira, edo espetxean daude, desterruan" azaltzen du Joanito Dorronsorok, *"Jakín"* aldizkiaren 44. zenbakian. "Entzulerik ere -dio Dorronsorok-, egoera hartan, ezin egon. Urte batzutan behintzat zeharo ezkututzen da bertsogintza guztia alde honetatik, bai bapatekoa, bai idatzia. Baina txarra ere ez da dena. Halabeharrez, beti gertatzen den eran, Euskal Herriaren egoera eta sasi-muga hori tartean dela, askok beste aldera joan behar izan du eta han bertsogintza bizteko aukera dator. Hernandorena han dabil. Baita Monzon ere. Basarri ere bai, gerra ondorengo hiru urteetan behintzat. Errexil bertsolaria ere".

Bertsolaritza sakonki aztertu gabeko urteak dira Espainiako gerrondokoak. Nafarroari dagokionez ia daturik ez da ezagutzen, eta agian horixe izan liteke daturik azpimarragarriena. 1936.eko txapelketa medio hemengo bertsolaritzak burua erakusteko parada izan bazuen, gerraren etorrerak katakunbetara bidali zuen berriz, lehengo kontsiderazio ezari berte faktore atzerakor bat gehitzen zaiolarik: *beldurra*. Trinidad Urtasun bertsolariari behin hiru gizon hurbildu zitzaizkion Erratzun nazionalista zenentz galdezka. Bere emazteak, Perpetua Saraguetak, inoiz erran duenez Burgosetik bidali omen zituzten gizon haiek. Ez zen deus gertatu baina Urtasunek gaizki pasa zuen, eta berari bezala berte aunitzi gertatua izanen da ezertarako gogoia kendu arazten duen gisako pasadizurik.

Aldi horretan berean, ordea, adituek diotenaren arabera, egoera politikoaren eraginez Ipar Euskal Herriari egokitu zitzaion bertsolaritzaren lozorrotik pizkunde urtetara pasatzea. Nafarroa Garaian, zoritxarrez, ez bertsolaritzaren atzerakada bakarrik, hizkuntzarena ere jasan beharko da. Hogei urteren buruan, 1957an hain zuzen ere, sortuko zen "Euskararen aldeko saila" deitua "Príncipe de Viana" erakundearen barnean. Bitartean, herrialde honetako bertsolariak ezagutzera emateko paradarik gabe, nor bere ingurukoekin aritzen ziren.

Baina aipatu den bezala, Ipar Euskal Herriari zegokion aitzinapauso haundi bat ematea. Antoine d'Abbadiek XIXgarren mendean antolatutako *Lore Jokuetan* ez zela bertsolaririk falta izaten erran ohi da, baina geroztik lozorro urteak etorri ziren. Aldi honetan, Hernandorenak dioenez, *"Euskaltzaleen Biltzarra"*k antolatzen zituen euskal bestetara ez zituzten bertsolariak deitzen eta berak, Teodoro Hernandorenak, Gerra aurrean Donostian *"Bertsolari Egunek"* izandako arrakasta bizi ondoren, ez zuen ulertzen nola ez zitzaien hauei garrantzi gehiago ematen Ipar Euskal Herrian.

Gipuzkoar bat izan zen beraz, Ipar Euskal Herrian (kultur eremu bakar bat bezala, ezin da Baxenabarre bakarrik aipatu) bertsolaritza xuxpertzeari lotu zitzaiona. Urte batzu igaro ziren iheslari joan eta bertan bizitzen jarri zenetik. Baina gerra urteak ziren han ere. Espainiako Gerra bukatu zen urte berean, 1939an, hasi zen Munduko Bigarren Gerra. Sei urte iraun zuen gatazka honek. 1945ean bukatu zelarik hasi zen Ipar Euskal Herrian bertsolaritza bidea urratzen.

Teodoro Hernandorena, gerra bukatu eta hurrengo urte osoan, bertsolari bila aritu zen Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberuan. Igandero meza irteeretan, pilotalekuetan edota ostatuetan galdetzen zuen ea inork ote zuen bertsolarien berri. Banan-banan hamasei bertsolari topatu zituen 1946.eko buruilairean hogeitabian Donibane Lohitzunen eraturako lehen jaialdirako. Liburuxka honen lehen atalean azaltzen dira Hernandorenak saio honetarako bildu zituen bertsolariak eta, baita ere eranskinetan, Ipar Euskal Herrian bere bidez eraturako bertso saio eta bertsolarien zerrendak.

Donibane Lohitzuneko saioak jende gutxi bildu zuen. Bertsolariak ordea, bazter guzietakoak azaldu ziren: lapurtarrak, bi aldeetako nafarrak, xiberutar bat eta gipuzkoarrak ere bai. Azken hauek iheslariak ziren, ordurako bertan laketuak. Donibane Lohitzuneko kanporaketa izan zen eta azaroaren hamazazpian, Hernandorena gai-jartzaile zelarik, Hazparnen jokatu zen saio nagusia zortzi bertsolarien artean. Epaimahaikoek, Dassance, Eizagirre, Zerbitzari, Erramuzpe eta Lafittek, Etxahun Iruri xiberutarra eman zuten garaile. Xalbadorrek ez omen zuen oso gogo onez hartu erabakia. Urtebetez egon zen kantatu gabe, Hernandorena bere bita joan eta nolabait arrazoi bidean sartu zuen arte.

Bertsolaritzak mugaz harata bidea nola egin duen behakoa emanez gero, garbi ikusten da hemen ere txapelketek garrantzia handia izan dutela. Orduan, orain bezalatsu, bertsolariak entzutera joateko ohitura ez zegoen oso zabaldua. Hernandorenak, ez horregatik bakarrik, Donostiako bi "*Bertsolari Eguna*"ren arrakasta ere bizi izan zuelako baizik, txapelketak antolatu zituen urtez urte. Hasera batean bertako bertsolariez bakarrik jokatzeko ziren, baina 1949.eko azaroan lehen aldiz, Basarri eta Uztapide gipuzkoarrak Urruñara gonbidatu zituen. Saritzat kopa bat ezarri zuen, baina hura bereganatuko zuen bertsolariak hiru aldiz jarraian lortu beharko zuen lehen postua. Hala bada, aipatu urtean Urruñan, eta hurrengoan, hots, 1950.eko apiril eta urrian, Donibane Garazi eta Donibane Lohitzunen jokaturako sariaketetan, Basarrik irabazi eta kopa bereganatu zuen. Xalbador eta Mattinek orduan eman zuten gorakada. 1951n Baigorri jokaturako txapelketan Basarri eta Xalbador parean eta ondotik Mattin hautatu zuten jujek. Hurrengo urtean berri, Saran, Ahetzeko Mattin Uztapide eta Basarriren aurretik txapelidun gelditu zen.

Bertzalde, haseran partaide izandako bertsolari multzo handia bakantzen hasiko da. Xalbador eta Mattinekin batera Zubikoa, Juan Felix Iriarte, Etxahun, Aintziart, Errexil eta Xanpun gaztearen izenak agertzen ziren. Ipar Euskal Herriko bertsolari taldea sendotzen ari zen beraz, nahiz beranduago hauetarik zenbaitzuk izen gutxiago izan duten.

Aipatzekoa da, baita ere, bertsolaritzak urte hauetan iheslari joandakoen eta bertako zenbait jaunen babes formala bederen izan zuela. Ardura nagusia Hernandorenak zeraman arren, antolatutako bertsolari egunetan euskal munduarekin, kultur nahiz politikarekin, zerikusirik zuten gehienak han izaten ziren. Bertzeak bertze, Dassance, Constantin, Otxobi, Zerbitzari, Lafitte, Labeguerie, Dutournier, Monzón, Manu de la Sota, Aita Barandiaran eta, Euzkadiko lehendakariak, Jose Antonio Agirrek, epaile, entzule edo sari ematen, gertutik jarraitzen zieten bertso jaialdiei. Hernandorenak lortu zuen bere xedea: bertsolariak, ordurartean taberna giroko pertsona irrigarriak, goi mailakotzat hartuak zirenekin uztartzea.

Entzulegoari dagokionez, gero eta jende gehiago biltzen zuten bertsolariek. Donibane Lohitzunen 1946an ia entzule baino bertsolari gehiago hurbildu zen saiotik hasi eta 1958an Urruñan, lehen aldiz Parisera bertsolariak bidaltzeko egin kanporaketan, 700 entzule bildu artino eman zen aitzinapausorik. Dena den, kantutegi zaharretako kantu zaharragoek bertsoak baino sustraituago zirauten eta diraute Ipar Euskal Herrian. Halarik ere, garai bateko zaharrek gogoan atxiki dute arto zuritze igande arratsaldetan kantu eta kantu artean bertso botatzen zuenik bazela. Leitza aldean ere "*arrosnabarrak*" izeneko neska-mutilen arteko bertso gordinak ahoz aho ibiltzen ziren arto garaian. Egunduan plazan dabiltzan bertsolari batzuk ere, segur horrela izan dutela hasten.

Espainiako gerraondoak beraz ondorio baikorrak izan zituen eremu hauetan. Lehen aldikoz, Donostiako "*Bertsolari Eguna*" inguruan sortutako bertsolaritza berriaren ekarpenak (saioen eraketa, bertso ariketak, e.a.) baliatu ziren.

Hernandorenak antolatutako saioak gero puntako bertsolari izanen ziren batzu ezagutarazteko parada bilakatu ziren. Gainera, murrizta bazen ere, bertso entzulego bat sortu zen. Horretaz gain, bertako zenbaitengan eragina izan zuen lan honek. Zuzenean behintzat, berak aitortu duenez, Emile Larrerengan. Larrek bide berdinari ekin eta erretore izan den herrietan urtero antolatu ditu bertso saioak. Bertze zenbait, Mixel Itzaina eta Zerbitzari apezta tarteko, bide beretik abiatu ziren.

Hirurogeigarren urteko hamarkada heldu zelarik Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusiak hasi ziren eta Xalbador eta Mattin han izanen ziren aldiro. Bertzalde, Hernandorenak ez zuen saio gehiago antolatu eta Larre bera misionest dabilen urteak ziren. Beraz, bertsolari berriak bultzatzeko baino, zeudenak indartzeko urte hobek suertatu ziren. Gainera, aurrerago aipatuko den bezala, Nafarroa Garaiko bertsolaritzaren pizkunde urteak orduan hasten dira baina baxenabarrek ez dute partehartu ahal izanen egoera politikoak eskatzen zituen neurriengatik. Bi Nafarroetako bertsolaritzaren garapena ziklikoa bailitzan, ondoko urteetako protagonismoa Nafarroa Garaia dagokio.

II.

NAFARROAKO TXAPELKETEN LEHEN ALDIA (1960-1966)

Elizondon 1936.eko urtarrilaren hamabian ospatu zen Nafarroako lehen bertsolari txapelketa haren ondotik, ez zen gehiago bertze hogeitalau urtez gisako bestarik antolatu. Hirurogeigarren urteko hamarkada hastearekin, *Euskaltzaindiak* bertsolaritza indartu beharrez egindako apustua txapelketetan gauzatuko zen. Hamarkada honetan, 1960, 1962, 1965 eta 1967an Donostia izan zen, gerla ondoan, Euskal Herriko lehen bertsolari txapelketen lekuko. Saio nagusirako txartela lortzeko, *Euskaltzaindiak* lurraldez lurralde norgehiagokak antolatzea pentsatu eta erabaki zuen. Nafarroa Garaiko bertsolariak ere horrela eman ziren ezagutzera Euskal Herri mailan. Xalbador baxenabarra, Ahetzeko Mattin lapurterra bezala, zuzenean joaten zen Donostiara.

Nafarroa Garaian ordea, txapelketak ez ziren Euskaltzaindiaren izenean antolatzen. Urte batzu lehenago, 1957an, Iruñeko euskaldun eta euskaltzale multzo baten eskariari erantzunez, Nafarroako Diputazioak, "Euskararen aldeko saila" edo "Sección para fomento del vascuence" deitua sortu zuen "Príncipe de Viana" kultur erakundearen barnean. Garai hartan, Miguel Gortari Errea zen Nafarroako Diputazioeko Presidentea, beranduago Felix Huarte izanen zelarik. Sail hori antolatzerakoan Gortarik ez zuen nahi Espainiako gerla aitzinetik euskaltzale inguruetan lanean aritutako pertsonarik, ez eta apezik ere zuzendari izateko. Beraz, gizon gazte laiko bat, Pedro Diez de Ulzurrun, Iruñeko mediku ezagun eta euskaltzale prestua, izendatu zuten sail berri horretako zuzendari. Dena den, Jose Maria Satrustegi, Aita Felipe Murietakoa eta Pedro Diez de Ulzurrun apezekin, bertzeak bertze, osatu zuen lan taldea.

"Euskararen aldeko saila" deitua antolatu zituen, hasi 1958an eta 1967 urterarte, Nafarroan egiten ziren euskal besta gehienak. Euskaldunak ziren herrialdeetara aski hedatu zen elkargo honen oihartzun eta lana. Bertzeak bertze, herrietako muttiko eta neskattoei euskarazko azterketak egiten zizkieten eta gero, zonaldeko euskal besta antolatzen zelarik, Nafarroako Aurrezki Kutxaren libreta batez eta euskarazko diplomaz saritzen zituzten. Pello Salaburu Arizkungo euskaltzainak horrelaxe jaso zuen, Pedro Diez de Ulzurrunen eskutik, bere lehen euskarazko titulua, geroztik "curriculum vitae" orotan aipatzen omen duena. Behintzat, Euskaltzaindiako bere sarrera hitzaldian aipatu zuen, nahiz domina Aingeru Irigaraik eman ziola erran.

Bertsolaritza sustatzeko ardura ere elkargo honek hartu zuen. Gerla aitzinean Elizondoko saiorako "*Euzko Etxea*"koak bertsolari bila ibili ziren gisara, edota Ipar Euskal Herrian Teodoro Hernandorena herriz herri ibili zen gisa berean, Nafarroa Garaian Pedro Diez de Ulzurrun arduratu zen lan honetaz, laguntzaile batzu ere berarekin zituelarik; Mariano Izeta tartean. Lan izugarria izan zen batetik eta bertzetik bertsolariak bildu beharrekoa. Ordurarte, herriko taberna zulotan eta lagunartetan trebatutako bertsolariak, euskal gaiez ardura zuten jendeen eskutik eta Nafarroako Diputazioarenean babespean jalgi ziren plazara.

1960 eta 1961 urteetako txapelketa bietan botatuko bertsoak biltzen dituen liburuxkaren azalean honela ageri da: "La Sección -Fomento del Vascuence de la Institución Príncipe de Viana de la Excelentísima Diputación Foral de Navarra, con la colaboración técnica de la Academia de la Lengua Vasca, comenzó en el año 1960 la organización de

los concursos de bertsolaris de Navarra por considerar al bertsolarismo como la manifestación más genuina del alma popular euskaldun. (...) Esperamos que tenga una buena acogida entre la gente euskaldun de Navarra y del resto del País Vasco, por considerar esta publicación un imprescindible remate de toda actuación de nuestros sin pares bertsolaris, para que perdure para siempre el arte inimitable de estos bardos de la lengua vasca". ("Nafarroako Foru Diputazioaren Vianako Printzea Erakundeko Euskararen aldeko Sailak, Euskaltzaindiaren laguntza tekniko izanik, 1960 urtean ekin zion Nafarroako bertsolari txapelketak antolatzeari, bertsolaritza euskal senaren adierazpiderik berezkoena dela uste baitu. (...) Espero dugu Nafarroa eta Euskal Herri osoko euskaldunek ongi hartzea liburuxka hau, gure bertsolari paregabeen emankizun guztiak borobiltzeko nahitaezkozatz jotzen baitugu, euskal hizkuntzaren olerkari hauen artelan bikainak betirako iraun dezan".) Ispiritu honekin aritu izan ziren lanean. "Gaurtik begiratuta -dio Pedro Diez de Ulzurrunek- gezurra badirudi ere, urte haietan Diputazioa euskararen alde egotea ez zen gaizki ikusia eta Nafarroan ez zen diru faltarik izaten". Laguntzarik ematen zuen beraz, baina euskaltzale mordo batek, han-hemendik atxikiz, ordu libretan jarritako borondate on eta lan hobeari zor zaizkio lortutako fruituak.

"Euskararen aldeko saila"ren eraginez indartu zen bertso mugimendua Nafarroa Garaian. Herrialde honetako bertsolaritzaren pizkunde urteak izanen ziren hauek. Euskaltzaindiak antolatzen zituen Txapelketa Nagusitarako nafar ordezkariak hautatu beharrez, herrialde honetan ere txapelketak antolatzen ziren. Hiru saio, bi kanporaketa eta saio nagusia, jokaten ziren txapelketa hautatzeko, herrialdea bitan banatzen zelarik. Batetik, Sakana, Ergoiena, Burunda, Larraun, Arakil, Imotz, Basaburua biak, Araitz, Leitza, Goizueta eta Arano bailara eta herrietako bertsolariak elkar neurtzen zuten. Bertzetik, Baztan, Erroibar, Esteribar, Ultzama, Bortzirriak, Malerreka, Bertizarana, Doneztebeko Goierrikoak, Urdazubi, Zugarramurdi eta Luzaideko bertsolariak arituko ziren. Lehen hiru urtetan azken saioak Lesaka, Etxarri Aranatz eta Beran burutu baziren ere, azken hiru txapelketak Iruñeko Gaiarre antzokian jokatu ziren.

Nafarroa Garaiko bertsolaritzaren ardatza beraz, txapelketak izan ziren. Bide hau xuxpertzean ze-tzan euskararen alde lan egiteko oinarrietako bat. 1960 eta 1966 urteen artean bultzada handia eman zitzaion bapatekotasunari herrialde honetan. Bertsolariek, agian ohartzeko, euskararen aldeko proiektu zabalago baten barnean ziharduten. Euskal besten egitaraua ezagutarazteko, bertso saioak barne, "Príncipe de Viana" erakundeko euskara sailak argitaratzen zituen orrialdetxoan azpikaldean behin eta berriz irakurtzen ahal da *"Bertsolariak, zatozte muttiko eta neskattoen omenez, bai eta ere euskara indartu bearrez"*.

Nafarroako Diputazioarenean esku zegoen erakunde batetik lanean aritzeak abantailak bazituen. Bestak antolatzeko dirua eskuratzeko gain, Gobernadoreak ez zuen inolako oztoporik jartzen. Mariano Izetak ere, Elizondorako bakarrik antolatzen zituen aunitz bertso jaialditan, *"Berta hau Nafarroako Diputazioareko Príncipe de Viana erakundeko laguntzarekin egiten da"* idazten zuen txarteletan, delako laguntzarik bil-tzen ez bazuen ere. Bertzalde, Pedro Diez de Ulzurrunek aski ongi zekien zer nola eta norekin aritu eta ibili behar zuen inor ez mintzekoz. Sarri berarekin eramaten zuen, izen eta deituraz tokaioa zuen Irañetan sortutako Pedro Diez de Ulzurrun apezka. Kontzilio inguruko urte haietan, sotanadun apezkek oraino itzal handia zuten eta horrela ibiltzeak bertze zera bat ematen zion bestari. Ez zen gainera normahi Irañetan sortutako apezka Pedro. 1936an Goizuetan zegoen koadjutore Txirrita bertsolaria bertara kantatzera zihoalarik gaizkitu zenean. Pedro Diez de Ulzurrunek igurtzi zuen olio sainduz Txirrita eta Elizakoak eman.

Gisa honetako jaunaren partaidetzarekin antolatzen ziren jaialdiak oro. Hortaz, halako jaialdiek parekotasun gutti zuten gaurregungoekin. Bezperak kantatuz edo errosario saindua erreztatuz ematen zitzaion hastapena euskal bestari. Gerra ondoan, Nafarroa Garaian antolatu zen lehen bertsolari txapelketa giro bitxi bezain paregabe honetan eratu zen. Larraungo Lekunberrin, 1960.eko ekainaren 26an jokaturako lehen kanporaketa, arratsaldeko laueta bezperekin hasi zen. Ondoren, egitarauak aipatzen du nola Pingliangeko (Txina) Apezpiku Jaun guziz agurgarriak Euskara eta bestari buruz hitzaldi bat emanen zuen. Aipatu Jaun handi hori, Alta Inazio Larrañaga zen, Maoren komunistek Txinatik botatakoa. Bertsolari txapelketari ekin aitzin, Iruñeko *"Escolania de San Antonio"* deitu abesbatzak euskal kanta sorta bat abestu zuen. Orduan hasi zen, gerla ondoko lehen txapelketa *"con Dirección técnica y jurado a cargo de la Academia de la Lengua Vasca"*, dio erdarazko egitarauak. Bertan zirenek gogoan dute gaijartzaileak oholtza gainetik *"Beno, bertsolaririk ba al da plazan?"* galdetu zuela. Poliki bada ere bata bertzearen atzetik hamaikakoa osatu zen. Saioaren atsedendian, Larraungo haurrei Nafarroako Aurrezki Kutxaren libreta eta euskarazko domina eman zitzaien. Eguna Gorritiko haurtxoen antzerki llibur bat eta Iruñeko txistularien emanaldi batekin burutu zen. Bertan bizitako giroaren lekuko da Andres Narbarté "Xalto" goizuetarrak botatako lehen agurra:

Narbarte:

Lendabizikoz artu ditzagun
gradorik aundienekoak
Alkate Ayundamenduarekin
Obispo, Apaiz Jaun prestoak;
oain biotzetik maite ditugun
Nagusi Diputadoak,
gañerantzeko bertso entzule
gugana etorritakoak,
Eskerrik asko danari eta
arratsalde on Jainkoak.

Ikusten ahal da, beraz, maila gorenetan ibiltzen zirela nafar bertsolariak. Diputazioarearen babespea ez ezik Euskaltzaindiarena ere izaten zuten epaimahaia osatzen zuten bitartez. Hirurogeigarren hamarkadan ospatutako txapelketetan Aingeru Irigarai, Jose Maria Satrustegi, Aita Zavala, Antonio Arrue, Fernando Artola "Bordari" eta bertzalde, Mariano Izeta eta Pedro Diez de Ulzurrun apezka han izaten ziren. Gaijartzaile lana berriz Alfontso Irigoieni zegokion. Euskaltzaindiak antolatutako txapelketetan bera ibiltzen zenez, Nafarroarako Pedro Diez de Ulzurrun medikuak Irigoien deitu zuen. Kanporaketa nahiz saio nagusirako bezperatik Iruñera etorri eta Maissonave hotelean ematen zuen gaua, hurrengo goizean Diez de Ulzurrun jaunarekin zegokion herrira abiatzeko. "*Oroitzapen ederrak ditut* -aipatzen du euskaltzain bizkaitarrak- *Nafarroan bertsolaritzaren alde lanean ibili ginen urtetakoak*".

Gaiek beti izaten zuten baserri kutsuko ñabardura bat, partehartzaileek oro arras ongi ezagutzen zuten ingurunea. Bertzalde, urte haietan bildutako bertso bildumaren laburpenak garbi uzten du gaijartzaileak ere bertsolari bakoitza ongi ezagutu eta gehienetan zegokion gaia edo puntua jartzen ahalegintzen zela. Dena den, Nafarroari berari zegozkion gaiak gutxitan agertzen ziren bitartean, lehen aipatutakoak behin eta berriz errepikatzen dira. Bertzalde, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusien gisara, Alfonso Irigoienek egitura eta ariketa berberak erabiltzen zituen Nafarroan. Lau oinak emandako ariketan bertsolari gehienek zortziko haundia erabiltzen zuten. Gainera, taberna girotik ateratako aunitz bertsolarik, urte betez parte hartu baino bere burua txapelketaren moldean agian bortxatuegia ikusten zuenez ez zuten jarraitu.

Bertsolariak eskolatu gabeak baina jakitunak ziren, "unibertsitatean ikasten ez den jakintzan", Manuel Lekuona eta Teodoro Hernandorenak 1969. urtean zehar "Príncipe de Viana" aldizkarian agertutako idatzi batzutan adierazten denez. Honen lekuko nabarmena, 1960an Andres Narbarte "Xalto"ri, Donostian Euskal Herriko Txapelketa Nagusian gertatutakoa. Fabiola, espainiar emazte noblea, Belgikako Balduinorekin esposatu berria zen. Espainian entzute haundiko ezkontza izan zen. Bertsozaleen artean entzute haundiagokoa izan da Alfontso Irigoienek horri buruz puntua jarri eta "Xalto"k bota zuen bertsoa:

Irigoien:

*Belgatarren erregin
egin da Fabiola*

Narbarte:

Igerri diot, Alfontso,
egiya diyola;
beste gañekoan etzan
mintzatuko orla,
antxen pentsatutzen det
zerbait badagola.

NAPARRO'KO DIPUTAZIOA

«Príncipe de Viana»-Euskeraren Aldeko Sailla

LECUMBERRI'N, 1960, GARAGARRILIAREN 26 EGUNEAN

NAPARRO'KO BERTSOLARIEN NORGEYAGOKETA (LEKUMBERRI ALDERDIKOA) ETA EUSKERAZKO ESAMIÑETAN SARITUAK IZAN ZIRAN MUTTIKO ETA NESKATTOEN ARTEKO PREMIO BANAKETA.

Arratsaldeko lauetan: BEZPERAK.

ONDOREAN, pelota tokian:

- 1.-Pingliang'go Apezpiku Jaun guziz agurgarriak Euskera eta festari buruz ITZALDIA egingo du.
- 2.-Iruñeko «Escolanía de San Antonio» delakoak EUSKAL KANTAK kantatuko ditu.
- 3.-BERTSOLARIEN TXAPELKETA, Euskal Academia edo Euskaltzaindiak zuzendua.
- 4.-Larraun'go euskal neska-muttikoen artean SARI BANATZEA, (Bertsolarien sayoko bitarteko batean).
- 5.-Gorriti'ko neskattoak «zerbait» egingo dute.

Iruñe'ko txistulariek bitarteetan eta azkeneko euskal billeran joko dute.

O A R R A R.- Txapelketeko Sariak:

Txapeldunarentzat: Bi milla peseta eta Larraun'go Ayuntamentuaren kopa.

2'nentzat: Milla peseta, eta ondorengoentzat: Bosteun pesetako lau sari eta beste lau sari berreun eta berrogei t'amar pesetako.

Sayo ontara, Arano, Goizueta, Leitze. Areso, Araiz, Larraun, Besaburua, Imoz, Atez, Arakil, Berranka, Ergoyena eta Burunda Balletako bertsolariak etorri ditezke.

Zuen izenak biali; Lekumberri'n, Alkate jaunaren etxera.

Errazkiñ'en, Oreja (Txetxu) jaunaren etxera.

Iruñe'n, «Príncipe de Viana», Ansoleaga, 10.

(ASKI DA KORREOZ BIALTZEA).

BERSOLARIAK, Zatozte Lekumberri'ra Larraungo euskal muttiko eta neskattoen omenez, bai ta ere euskera indartu bearrez!!.

"Victoria Eugenia" antzokitik atera zirenean, Narbarte Pedro Diez de Ulzurrun apezari -Euskal Herriko Bertsolari Txapelketetan epaimahaiko zen Pedro apezari- galdegin zion ea nor ote zen Fabiola zelako hori. Bi urte beranduago, 1962.eko agorrilaren hemeretziaren, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren kanporaketa bat Goizuetan jokatu zelarik, Irigoienek berak azken puntua emanik Andres Narbarteri Donostiako gertaera etorri zitzaion burura. Azken puntua zen:

*"Gero Juezak irakurri zun
sententzia bat larria".*

Narbarte:

Ni Donostira neure ustetan
joan nintzan bertsolaria
aitortuko det dotore asko
eskolarikan gabia.
Eman zidaten uste gabean
Fabiolaren berria,
"GERO JUEZAK IRAKURRI ZUN
SENTENTZIA BAT LARRIA".

Bere burua "*eskolarikan gabia*" jotzen zuenaren bi bertso horiek "*Andres Narbarte*" izena daraman Goizuetako eskola publikoaren sarreran ageri dira. Herrixka honek emandako kumerik entzute haundikoenen artean daude Berdabioko semea, "Goizuetan bada gizon bat" bertso sortaren egilea eta Andres Narbarte "Xalto", Txemeneko Bordakoa.

Nafarroako Txapelketekin jarraituz, urtez urte nola burutu ziren aipatu behar da. Erran bezala, 1960an antolatu zen gerla ondoko lehena, 1936an Elizondon jokaturakoa kontutan izanik, Nafarroako bigarren Bertsolari Txapelketa. Nafarroan jokaturako norgehiagoka hauek, Donostian eratzten zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusira Nafarroa Garaiko ordezkariak bidaltzeko baliagarriak ziren. Txapeldun eta bigarrenari zegokien ordezkaritza hori, Xalbador baxenabarra zuzenean joaten zen, arestian aipatu dugunez.

Nafarroa Garaiko txapelketetan abestutako bertsoak gehienak liburuxka ttipi batzutan bildu izan dira. Pedro Diez de Ulzurrun medikua eta Estellerriko Murieta herrixkan sortutako Francisco Torres kaputxinoa, hots, Aita Felipe Murieta arduratzen ziren ordu libretan bertsoak paperera pasatzen. Gisa honetan, 1960-1961, 1962 eta 1963.eko bertsoak argitara eman ziren. 1964 eta 1966.eko txapelketak ez ziren argitaratu Aita Felipe Murieta gaisotu eta hil zelako. Dena den, Pedro Diez de Ulzurrunek gordeak ditu.

Ondoko orrialdetan azaltzen dira urte haietan Nafarroako Bertsolari Txapelketak non jokatu ziren, partehartzaileen zerrendak eta bertso zenbait.

Nafarroako II Bertsolari Txapelketa 1960

* **Lekunberri**, 1960.eko ekainaren 26an

Anjel Aldaz, Ihaben
Bautista Perurena, Goizueta
Martín Oreja, Errazkin
Manuel Iriarte, Arribe
Clemente Ezkurdia, Gorriti-Elizondo
Andres Narbarte, Goizueta
Moises Jaso, Gaintza
Pedro Narbarte, Arano
Miguel Rekalde, Arruitz
Francisco Goikoetxea, Madotz
Pedro Arrastio, Gaintza

* **Elizondo**, 1960.eko uztailaren 25an

Jose Angel Linzoain, Iragi (Esteribar)
Urbano Egozkue, Eugi
Pedro Ibarra, Arraioz
Bautista Madariaga, Arantza
Marcos Maritxalar, Lesaka
Mauricio Mitxelena, Lesaka
Juan Perurena, Goizueta-Arizkun

Joxe Mari Mutuberria, Eltzaburu (Ultzama)
Simun Ibarra "*Zubikoa*", Sunbilla-Banka
Felix Iriarte, Arizkun (atabalaria)

* Lesaka, saio nagusia 1960.eko irailaren 25an

Andres Narbarte "*Xalto*", txapeldun
Juan Perurena, txapeldun-orde
Anjel Aldaz
Felix Iriarte
Bautista Madariaga

Manuel Iriarte
Bautista Perurena
Joxe Mari Mutuberria

Gerla ondoren, 1960.eko abenduaren 18an Donostiako "Victoria Eugenia" antzokian jokatu zen Euskal Herri mailako lehen Bertsolari Txapelketara Andres Narbarte "Xalto" eta Juan Perurena joan ziren. Ordukoa da Narbartek Fabiola erregina zela eta ez zela botatako bertsoa.

Ondoko lerrotan urte hartako bertsorik adierazgarrienak datoz. Lesakako finala.

Irigoien: *Bertrolari onena
nor da zuretzako?*

Iriarte: Len entzundako gauzik
ez dauket asteko;
ona naiz olakuak
aixe ikusteko;
Manuel Uztapide
zuri serbitzeko.

Alfonso Irigoienek gaia gisa honetan eman zien Anjel Aldaz eta Felix Iriarteri. Lehena, ezkondua eta bere seme-alabekin bizi zena eta Iriarte berriz, ezkondu gabeko arlote bat.

Aldaz: Gaur pesta degu erri onetan
ez izan arren iyote;
Arizkun'go nere lagunari
zerbait esan nai nioke:
neronek ez det ikusiko baño
gendiak ala diote,
onen errian ez dala sortu
au ainbesteko arlote.

Iriarte: Nere lagunak ofenditzeko
serio artu du makiña,
bañan gauz orrek ez daut egiten
neri biotzean miña.
Lokarri gabe gozo bizi naiz
neau bai arin-ariña,
zuk berriz ez duzu atratuko
seme-alabentzat adiña.

Aldaz: Errespuesta merezi gisen
oneri nuba ematia,
onen maratilla atera det'a
onek bezelaxe nasia.
Ai baliteke gazte denboran
zu fanfarroi ibiltzia,
ikusiko deu zein dan geiena
gu gero bada zartzian.

Iriarte: Goxo-goxoki aitzen ari naiz
ni onen erran guziak,
bañan gero ere zerbait eingo dut
ikusten yenden biziak.
Aski neketan ikusten ditut

olako gizon klasiak;
andre, seme, alaba ta bera ere
fite ilko tu gosiak.

Aldaz:

Broman asi ta serio xamar
gu jartzen ari gerade,
emen gizona au aserre dago
gaur motiborikan gabe;
orain artean lagun bikañak
len izandu bai gerade,
alabatxo bat emango dizut
mutil zar gelditu gabe.

Iriarte:

Bertso lanian hasi ondoan
aitzen da gauza ederrik,
bañan orrengatik ez degu uste
izan bagera okerrik;
alaba nai daut ziria sartu
bañan zabiltza alperrik,
bakar ongi dagonak, aiskidea,
ez dauka lagun bearrik.

Aldaz:

Gure lagunak atera onak
danen aurrean baditu,
dudarik gabe soltero gisen
bikainka dala bizitu;
ez luke ba nai asunto ortan
aurrera onek segitu,
adio bada, urren artio
gure esanak buka dituu.

Iriarte:

Nere gogoan zer dagon orain
garbi ta argi kontatzeko,
adiskideak ez nago gauza
emendikan ukatzeko;
au gizonaren borondatea!
alaba dauka saltzeko;
yakin zazute bere familia
sobera du asetzeko.

Irigoienek ofizioa eman eta elkarrekin teman jarri zituen Madariaga maistrua eta Narbarte ikaslea.

Madariaga:

Gizon au ere orain denatik
asko ez bada ganbitzen,
eskola onik ikas lezaken
neri etzait ba iduitzen.

Jaiotzetikan biurria da,
orain zaigu nabaritzen;
eskola jun etxetik eta
pelotan zait ba aritzen.

Narbarte:

Orain kontesta emango diot
kopeta azala beztuta,
len onek eindako burla txarra

nola ez daukaten aztuta.
Nik eindako letra zuri danak
onek utzi zikinduta;
ni pelotara lasai joaten naiz
erakusitzen ezta ta.

Madariaga: Etzait batere neri gustatzen
mutiko onen galera,
obedentzia galdu du eta
ematen didan kolera.
Jaiotzetikan oso gaiztuba
suertatutzen da bera,
azkenerako neri kulp'egin
ezta juaten eskolara.

Narbarate: Onen arrazoi garesti ori
nik gaur salduko det merke;
Lesaka aldeko entzule on auk
untsa adituko dute.
Ni pelotara joaten naiz eta
au eskolatik aparte;
ni eskolara gustora jua
erakutsiko baluke.

Madariaga: Maixu onek erakutsia
orrek ez dit konprenitu,
dudarik gabe gaztea izan
ordenak bete balitu;

sekulan etzait biurriagoik
au dan bañan iduritu;
eskolitan liburuak ezta,
kanpoan saldutzen dittu.

Narbarate: Kontesta ere emango diot
kopeta azala beztuta,
onen aestiko arrazoi txarra
jaunak, ez daukat aztuta.
Beiñere propinik ez du ematen
aurretikan aginduta;
berriz estutu bearra dago
sosik ematen ezta.

Txapeldun suertatu zen Andres Narbarate Olaizolak, orduko Nafarroako Txapelketetan ohi ez bezala azken agurra hamarreko haundian bota zuen:

Narbarate: Despedí on bat egin nai nuke
gaur Lesaka'ko partean,
emengo gende onarentzako
ain nago borondatean.
Baten besteren zapoizkeria
geuren buruan kaltean
okasio ta gorroto gabe
parti gaitezen pakean;
ondo bizi, ta orain adios!
beste aldi bat artean.

Nafarroako III Bertsolari Txapelketa 1961

* **Irurita**, 1961.eko ekainaren 1ean

Bautista Madariaga, Arantza
Jesus Basoarte, Irurita
Miguel Arozamena, Lesaka
Felix Iriarte, Arizkun
Juan Perurena, Goizueta-Arizkun
Clemente Ezkurdia, Gorriti-Elizondo
Pedro Ibarra, Arraioz

* **Leitza**, 1961.eko irailaren 24ean

Mikel Zabaleta, Areso
Martín Azpiroz, Areso
Bautista Perurena, Goizueta
Anjel Aldaz, Ihaben
Andres Narbarte, Goizueta
Manuel Iriarte, Arribe

* **Etxarri Aranatz**, saio nagusia, 1961.eko urriaren 29an

Bautista Madariaga, txapeldun
Andres Narbarte, txapeldun-orde
Martin Azpiroz
Manuel Iriarte
Miguel Arozamena
Martín Oreja
Juan Perurena
Mikel Zabaleta

Iruritako kanporaketan, bertze aunitz alditan bezala, gai hain erabili hau eman zien Irigoienek Madariaga eta Basoarteri. Madariaga, maisterra errenta pagatzera datorrena eta Basoarte berriz, errenta kobratzeko duen nagusia.

Madariaga:

Nekazaria izan da lana
egiten det nik jai t'aste;
nagusia au portatzen dala
sekulan ez nuan uste;
gure kontura kafe ta kopa
etxian artzen dituzte;
urteko errenta kostatzen baita
etxik balio ainbeste!

Basoarte:

Maister maltea nik begitzen det
ez dakit zenbat aldetan,
eta zuk ere obeko dezu
ongi gaur artu arretan;
naiz nagusia sarritan jabe
bai ollaskoak erreta,
zuk oraindikan zor dizkidazu
ogei urteko errenta.

Madariaga: Jakin zazute neure nausia
lotsagabea nota den,
ogei bat urte betetzerako
kartel danak ia emen;
danon aurrien esango det nik
nausiak zer eiten duen:
kobratzera etorritzen zait
urtea bete baño len.

Basoarte: Aizu lagun zar neri ez esan
emen olako itzikan,
ainbat galderen aurrean ez det
iñoiz pazientzirik;
nik ez daukat beste iñorekin
oñeztua zulatikan,
kobratzeko asmoz sarri jun baña
beti aldegin utsikan.

Madariaga: Berriketa ta papela asko
gezurretan bai ekar du,
dudarik gabe gauza ortako
tenple eder ori gaur du;
pasatu ditu nere kontura
tabernetan zenbait ordu,
kunplitu baño len pagatzeko
oso tontua bear du.

Basoarte: Leno ez nuan pentsamentua
orain igo zait burura,
orregatikan daukatelako
itz egiteko gogua;
ondo pentsatzen jarri ezgero
zu zera maister modura,
gastau eziñik ez daukat nik
zuk emandako dirua.

Leitzako kanporaketan Andres Narbarteri honoko gaia jarri zioten bakarka aritzeko: "*Gizonari komeni al zaio ezkontzea?*".

Narbarte: Pentsamenduan jarrita nago
nola izan laitekean;
ezkondutzeko Narbarte dago
guztizko borondatean.
Ama ta biok bizi bai gera
baxerri koxkor batean,
nik andrerikan ez det artuko
izatekotan kaltean.

Au esateko nik ez deraukat
gaur aurpegian lotsikan,
ama gaixoa iñor e' gabe
antxen bai daukat utzikan.
Nik berriz ez det neskatxetako
beñere kurajerikan,
ark emakume txintxo polit bat
artuko luke pozikan.

Neskatxetako koarde xamar

nola izan nintzan berez,
ni ikusita emakumeak
egiten baitute iges.

Esan zazute andrean billa
asita dagola Andres,
gure etxera joaten dana
ez da biziko aldrebes.

Etxarri Aranazeko azken saiorako Anjel Aldazek txartela lortu ez zuen arren lehen agurra eginez hiru bertso eman zituen eta haietako bat hauxe:

Aldaz: Amabi ziran apostoluak
Jaungoikubak bereziak
munduan barna erakusteko
bere Legeko Egiak.
Aien antzera gabiltza orain
ementxe bertsolariak
zabaldu naian Euskal-errietan
lengo oitura garbiak.

Irigoienek honoko puntua jarri zion Narbarteri.

Irigoi: *Ezkondu nahi badezu
nerkatxak badaude*

Narbar: Ai, Irigoien jauna,
beartuak gaude.
Ama etxean daukat
iñor ere gabe.
Gauza orren segida
etorri naiz ni `re.

Madariaga, gizon alargunak, eta Narbar, neska zaharrak, egindako saioa.

Madariaga: Nere andria gaixoa juanda
etxian gaizki egondu;
naiago nuke beste munduan
alkar juntako bagendu.
Bañan nik emen bakarrik ezin
neure lanetan jaundu;
neska zar oni esaten diot
nerekin nai dun ezkondu.

Narbar: Gizon jator bat ondoan daukat
oso umilla ta fiña,
au neuretzako izategatik
ein bear det alegiña;
zubi ondoan or ikusita
biotzen artzen det miña,
naiago nuke milloi bat baño
neure senarra baziña.

Madariaga: Penak pasteko sortu giñaden

mundu ontan ta mirabe,
zure gañean jartzen det gauza
konponduko al gerade.
Neure bizitzan nik ere ezin det
iñolatan emen gorde,
biziko zera neure etxian
lan askorik egin gabe.

Narbarate:

Nik artzen badet alargun on au
Maitatuko` t gogotikan,
katillu haundi bat kafesne
emango diot goizetikan;
amaiketan e' salda beroa
atrako det eltzetikan;
neure senarrak ez du izango
gose ta egarririkan.

Madariaga:

Andregai onek ezkontuzeko
borondatia baduta,
bizi onaren jabe ingo da
neure etxera sartuta;
bere senarra jarri lezake
modu ortan indartuta.
Neri oiera eaman dezala
berak aurrena artuta.

Narbarate:

Au esateko nexka-xar onek
bat e' ez dauka lotsikan,
neure senarrak ez du artuko
beñere kafe otzikan;
andregai onek ez baitu egin
ortarako promesikan;
arrautze pare bat ere oneri
jarri lezake pozikan.

"Nola egingo zeniokean ezkontzeko mandatua neska gazte bati" gaiari ondorengo hiru bertso hauek bota zituen
"Xalto" goizuetarrak.

Narbarate:

Etorri ezgeroz begira nago
ementxen neskatx bateri
ain da zuri ta gorria eta
asko gustatzen zait neri;
beitu batian orren begiak
Ama Birjiña dirudi;
badakit eta kariño pixkat
berak dio Narbarteri.

Zu zera neskatx aintxen polita
nik emango zaitut ontzat,
aspalditikan nere biotza
gustatuik dago zuretzat;
gure etxean bada lekua
olako neskatx batentzat,
eta moldatuko ote geraden
niri iduritzen zat.

Oei t'amar ardi mendian dauzkat,
etxian dittut antzuak,

bi bel bikañek beren txalakin
ukullun dauzkat lotuak:
koneju sail bat badaukat eta
ausarki dittut olluak;
neskatx ederra, zuk non billatu
mutil aberatsaguak.

Nafarroako IV Bertsolari Txapelketa 1962

* **Erratzu**, 1962.eko uztailaren 1ean

Clemente Ezkurdia, Gorriti-Elizondo
Simun Ibarra "Zubikoa", Sunbilla-Banka
Migel Arozamena, Lesaka
Ignacio Rekondo, Oronoz
Juan Perurena, Goizueta-Arizkun
Bautista Madariaga, Arantza

* **Goizueta**, 1962.eko agorrilaren 19an

Martín Oreja, Errazkin
Juan Zabaleta, Areso
Bautista Perurena, Goizueta
Mikel Zabaleta, Areso
Manuel Uhitzi, Arano
Anjel Aldaz, Ihaben
Martín Azpiroz, Areso
MoisesJaso, Gaintza
Andres Narbarte, Goizueta
Bautista Arribillaga, Leitza

* **Bera**, saio nagusia, 1962.eko irailaren 23an

Migel Arozamena, txapeldun
Mikel Zabaleta, txapeldun-orde
Andres Narbarte
Bautista Madariaga
Martín Oreja
Simun Ibarra "Zubikoa"
Juan Perurena
Manuel Uhitzi

1962.eko abenduaren 30ean Donostiako "Astoria" antzokian jokaturako Txapelketa Nagusira Migel Arozamena lesakarra eta Mikel Zabaleta aresoarra abiatu ziren. Urte hartan Xalbadorrek hirugarren Baria jasoko zuen Uztapide eta Basarriren ondotik.

Goizuetako kanporaketan Martín Azpiroz aresoarrak bigarren aldiz plazaratu eta gerora, bertze aunitzen gisara bere berririk izan ez balo ere bertsolarien artean, lehen aldiz bukaerako puntua ariketa bezala emanik ondorengo bertso alea bota zuen:

Azpiroz:

Mundu onetan dauzkagu bada
arrazoiakin guziak,

batzuk politik izango dira
beste batzuk itxusiak;
ez dira onak oraindaño nik
arrapatutako nausiak,
"BERAK GAUZ ONEZ SÁBELA
BETI NERETZAT BETI GOSIAK"

Puntua eman eta erantzuteko ariketan Narbarte eta, bertso munduan hain ezaguna ez zen Leitzako Arribillagari honela eman zitzaien puntua.

Irigoien:	<i>Ezpañetan daukazu mats beltzaren tinta</i>
Narbarte:	Len itsusia banintzan gaur ez nago polita denak ikaritzen dira Andres ikusita; banijua igesi lagunak utzita.
Irigoien:	<i>Batian arrastaka bestian erori.</i>
Arribillaga:	Iñork ez du siñistuko gezurra da ori; sekula ez naiz ibilli ni loitan igari; olakua ez naizela neonek det nabari.

Gauza bitxi bezala aipatu liteke Goizuetako kanporaketa hartan epaimahaiaren deliberoa Alfontso Irigoienek ondorengo bi bertso hauek abestuz eman zuela:

Juradu Jaunak bazedukan gaur
zerbait eabaki bearra;
publikoa ere ori jakiten
lendik jarria da garra;
bertsolariak gaur izan dute
bere barruko indarra,
bañan txapeldun gelditu zaigu
Narbarte goizuetarra.

Esana daukat nola gerta dan
bertsolarien aurrena;
aitatu bear det oraintxen nik
baita nor dagon urrena;
ondo kantatzen du orrek ere
gaia ortik dakarrena,
Uizi fauna gertatu zaigu
txapelketan bigarrena.

Berako azken saio nagusian lau oinak eman eta Manuel Uhizik ondorengo bertsoa, gehienek bezala, zorziko haundian bota zuen. Oinak: **SASOIA, GOIA, LOIA eta ARRAZOIA.**

Uhizi:	Garai batean eder samarra idukitzen nun sasoi, nere buruta anak orduan ia jotzen zuten goia;
---------------	---

asko zanpatu gabe ibiltzen
nintzan ni azpiko loia;
nai duenak ori juzkatu
ustez badet arrazoia.

Arozamenak azken puntua emanik botatako bertsoa.

Danok, jakiña, Euskera auxe
zintzo maitatzen detela;
ta biotzez laguntza emateko
lotsarikan ez daukatela;
saia zaitezte biotz biotzez
merezi duen bezela,
"EUSKALDUNAREN IZEN EDERRA
BORRATUKO DA BESTELA".

Nafarroako V Bertsolari Txapelketa 1963

* **Areso**, 1963.eko maiatzaren 19an

Andres Narbarte, Goizueta
Manuel Uhitzi, Arano
Martín Oreja, Errazkin
Anjel Aldaz, Ihaben
Mikel Zabaleta, Areso

(Ez da zerrenda osoa azaldu)

* **Arizkun**, 1963.eko ekainaren 23an

Simun Ibarra "Zubikoa", Sunbilla-Banka
Bautista Madariaga, Arantza
Manuel Arozamena, Lesaka
Migel Arozamena, Lesaka
Clemente Ezkurdia, Gorriti-Elizondo
Felix Iriarte, Arizkun (Atabalaria)
Roman Mihura, Lekaroz
Juan Perurena, Goizueta-Arizkun
Ignacio Rekondo, Oronoz

* **Iruñea**, saio nagusia, 1963.eko azaroaren 17an

Migel Arozamena, txapeldun
Andres Narbarte, txapeldun-orde
Bautista Madariaga
Simun Ibarra "Zubikoa"
Manuel Arozamena

Manuel Uhitzi
Martin Oreja
Anjel Aldaz
Mikel Zabaleta
Roman Mihura

"Príncipe de Viana" erakundeak eraturako txapelketa kalitatez gora eta gorpuzten joan zen. Lehen aldiz, 1963an azken saio nagusia Iruñeko Gaiarre antzokian jokatu zen jendez lepo beteta. Saio honetan txapeldun eta bigarren suertatu ziren Narbarte eta Arozamena ofizioan aritu ziren gai honetan: "*Lapur bat etxe batera ostutzero dijoa, eta zakur bat ateratzen zaio*". Narbarte izan zen lapurra eta txapeldun suertatu zena zakurra.

- Narbarte:** Lapurra naizela esan dutenez
asi bear det kantari;
nunbait inbidi aundia diot
besten etxeko gauzari;
lanik ein gabe arrapatzea
ona izaten da ori,
bildurrikan e' bate ez diot
bazarreko txakurrari.
- Arozamena:** Goiz-goizetikan ementxe nago
zerbaitez konturatuta,
joan dan aspaldin lapurra onek
aziuk eiten ditu-ta;
gau eta egun guardin nago
ala ere puskak ostuta,
ai! zer koska egingo nizuken
ni ezpanengo lotuta.
- Narbarte:** Txakurra gogor mintzatu zaigu
entzuleak, aistiko ortan,
bañan lapurrak olako bildurrik
gaur ezpaitauka burutan;
an joaten nintzan denbo guzian
antxen egoten da lotan;
ia ernago jartzen al zera
lapurra billatzekotan.
- Arozamena:** Gure lapur au nola dabillen
txakurrak dio igarri,
gaur aurrez-aurre arkitzen gera
t'esango dizka elkarri;
eunen batean joan bear dezu
galtzik gabe lotsagarri;
lotan nagola ate onduan
t'etzaitezela etorri.
- Narbarte:** Berai egia aitortuta 're
bate etzait inportikan;
lapur listoak beñe ezpeitu
txakurraren bildurrikan;
ni izutzetik gaurko onetan
asi zera alperrikan;
atean zaunkaz asitzen bada
sartuko naiz leiotikan.
- Arozamena:** Kanpokuak naiko ez digula
orain asi zait barruan;
eta leiotik sartuko dala
lendabiziko saltuan;
txakurra zai an egongo naiz ni
beste askoren moduan;
au bañan lapur aundiagorik
ez dut somatu munduan.

Anjel Aldazek bakarka bi bertso kantatzeko Irigoienek gai au eman zion: "*Korbata bati*".

Aldaz: Oraintxe Alfontxok esan dirade
naizela oso langille,
eta etorri da Bilbotikan
olako batzuen bille;
ezta arrua jaiotzetikan,
ori da franko umille,
lepotik zintzilikan jarri du
berebiziko eskillle.

Ezin jua toki onetatik
auxe nik gaur esan gabe,
olako festak Iruñerrian
noiznai izaten ez dirade;
au aberatsa, bertsolariak,
ai! pobriak bai gerade;
gu etorri gera, Alfontxo jauna,
olako traporik gabe.

Alfonso Irigoienek, gartzelako ariketan "*Puru bati*" bi bertsoa jarri zien gaia Narbarte eta Arozamenari. Lehenengo bertso burutzean puru bat eman zien, gaurtik begiratuta formaltasun guziak hautsiz. Narbarteren bigarren bertsoa horrela zen:

Denbora joanta ondoretikan
zertako egon penian,
beti saiatu egin bear da
aukera eldu danian;
purutxo auxe irabazi det
bertsoetako lanian,
ederragoak bota bea-itut
au erretzen dutenian.

Migel Arozamena, egun hartako txapelkunaren azken agurra:

Goizian jaiki Iruña aldera
lendabiziko jokera,
maitetasuna izango zala
ematen nion tankera;
len larrugorin bizittu eta
gaur badaukagu jazkera
pixkana pixkan indartutzeko
ikasi gendun izkera;
danon artean maita ditzagun
Fueroak eta Euskera.

Nafarroako VI Bertsolari Txapelketa 1964

* **Beruete**, 1964.eko maiatzaren 3an

Anjel Aldaz, Ihaben
Manuel Uhitzi, Arano
Moises Jaso, Gaintza

Martín Oreja, Errazkin
Joxe Mari Mutuberría, Eltzaburu
Andres Narbarte, Goizueta
Felix Mariezkurrena, Goizueta
Mikel Rekalde, Arruiz

* **Lesaka**, 1964.eko ekainaren 14ean

Migel Arozamena, Lesaka
Roman Mihura, Lekaroz
Bautista Madariaga, Arantza
Manuel Arozamena, Lesaka
Francisco Latasa, Mugaire
Ignacio Rekondo, Oronoz
Clemente Ezkurdia, Gorriti-Elizondo
Felix Iriarte, Arizkun

* **Iruñea**, saio nagusia, 1964.eko irailaren 27an

Andres Narbarte, txapeldun
Migel Arozamena, txapeldun-orde
Bautista Madariaga
Anjel Aldaz
Manuel Arozamena
Roman Mihura
Joxe Mari Mutuberría
Moises Jaso

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa ere gero eta arrakasta haundiagoa lortzen ari zen. Gisa honetan, 1965.eko urtarrilaren lehen egunean Anoetako pilotalekuan ospatu zen lehia. Andres Narbarte eta Migel Arozamena joan ziren Nafarroatik.

"Príncipe de Viana" erakundeak ez zuen 1965ean Nafarroako Txapelketarik antolatu, Euskaltzaindiak 1964etik bi urtean behin eratzeko erabakia hartu zuelako.

Nafarroako VII Bertsolari Txapelketa 1966

* **Igantzi**, 1966.eko maiatzaren 15ean

Migel Arozamena, Lesaka
Manuel Arozamena, Lesaka
Bautista Madariaga, Arantza
Dionisio Mujika, Asteasu-Lesaka
Roman Mihura, Lekaroz
Juan Sansiñena, Arantza

* **Lakuntza**, 1966.eko ekainaren 19an

Andres Narbarte, Goizueta
Martín Oreja, Errazkin
Manuel Uhitzi, Arano
Anjel Aldaz, Yaben
Martín Goikoetxea, Gorriti

* **Iruñea**, saio nagusia, 1966.eko azaroaren 13an

Migel Arozamena, txapeldun
Andres Narbarte, txapeldun-orde
Bautista Madariaga
Manuel Arozamena
Anjel Aldaz
Martín Oreja
Dionisio Mujika
Martín Goikoetxea

Donostiako Anoeta pilotalekuan 1967.eko ekainaren hamaikan jokatu zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian, Nafarroatik Migel Arozamena eta Bautista Madariaga azaldu ziren. Andres Narbarteri zegokion partehartzea baina gaisotu eta bere ordeaz Madariaga aranztarra igorri zuten.

Donostiako saio honekin bukatu ziren Euskal Herriko eta Nafarroako txapelketak. Arratsaldeko saioan, Uztapiderekin txapela jokatzeko epaimahaiak Xalbadorren izena eman zuenean, Anoeta pilotalekuan bildutako jendetzak jokatuko ia sei minututako xixtukada ospetsua erabakikorra izan zen gehiago txapelketarik ez antolatzeko.

Bertzalde, urte berean Pedro Diez de Ulzurrunek "Príncipe de Viana" erakundeko "Euskararen aldeko saila" utzi eta "Príncipe de Viana" zeritzan euskarazko aldizkariaren ardura hartu zuen. Gainera, garai hartan hasi zen Nafarroan ikastolen pizkundea eta "Euskararen aldeko saila" zeritzanean gelditu zirenek zentru berri hauen aldeko langintzan sartu ziren buru belarri, Jose Maria Satrustegi, Carlos Garaikoetxea, Jorge Cortes Izal eta Jose Manuel Lasarte bertzeak bertze. Bertsolari Txapelketa eta Euskal bestek beraz, honainoko bidea egin zuten.

"Príncipe de Viana"tik eraturako azken "Euskal Besta" Beran ospatu zen 1967.eko agorrilaren 27an. Egun hartan, lehenik bezperak kantatu eta herriko neska-mutikoei sariak banatu zitzaizkien. Ondoren Iruñeko udaleko dantza taldea, Leitzako kantari talde bat, ohi bezala Peru Txiki txiste kontalaria eta "Ez *dok hamahiru*" taldeko Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo aritu ziren. Mariano Izeta gai jartzen zutelarik berriz, Xalbador, Manuel Lasarte eta Migel Arozamena bertsolari nafarrek abestu zuten. Egitaraua zekarren orrialdetxoaren azpikaldean "*Agur bero bat denei, eta euskaldun aurtxoei zorionak!*" bat ageri zen. Hau izan zen bada, Diputazionetik zuzendutako euskararen aldeko mugimendu zabal baten amaiera. Iraun zuen ia hamar urtetan, sei bertsolari txapelketa antolatu zituen, Nafarroa Garaiko bertsolariak ezagutzera eman eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusira ordezkariak bidaliz. Andres Narbarte eta Migel Arozamenak txapelketa hauei zor diote neurri handi batean egun ezagunak izatea.

Txapelketak itzali zirelarik ere, bertsolariak bidea urratuz joan ziren Nafarroa Garaian. Herrietatik gero eta gehiago deitzen zituzten eta bertako bertsolariak, Euskal Herrian mailarik gorenetan zebiltzenekin indarrak neurtzeko aukera izan zuten. Basarri eta Uztapide, bi txapeldunak, aunitzetan ibiliak dira Nafarroan gaindi. Manuel Uztapidek berak, "*Lengo Egunak Gogoan III*" liburuan aitortzen du nola urte luzez eta bertsolari ezberdinekin kantatu izan zuen herrialde honetan.

"Príncipe de Viana" erakundeko "Euskararen aldeko saila" deitutik bertsolarien aldeko deiak behin eta berriz egiten ziren. Iruñean. 1963.eko apirilean euskaraz eta gazteleraz argitara emandako orrialdean honoko gomitea luzatzen zen: "Napar bertsolariak bertso saio asko bear dute beren antze eta trebetasuna ongitu eta landu ditzaten, eta bide batez gure euskal-naparroek eta euskaldun guziek ere lanarteko atsedenaldiak ongi eta alai pasatu ditzaten. Au dena kontutan arturik "Euskararen aldeko Saila"k Nafarroako Euskal Aintzamentuei (batez ere errietako Alkate Yaun prestuei), Apez Jaun Agurgarri, gure errietako Anaidi, Elkargo eta Yoku-Elkartei, eskari au egiten die: urteroko errietako festetan, perietan, erromerietan, berezizko jaietan, meza berritan, ezkontza edo bataioetan, zillar edo urre eztaietan, igande edo jaiagunetako arratsaldetan, bertsolariak erakartzeko une edo aldi zoragarriak pasaerazi dazkiguten, eta orobat euskaldunek gure aintzin-aintzinetako mintzaera kutun eta maitagarria dan Euskera gero eta aberatsagoa, gero eta jasoago, are gehiago, al dan goien eta lirainena ikusi dezaten".

Gomiteak gomite, txapelketa antolatzeari utzi zitzaionetik, bertsolaritza, neurri batetan behintzat, berriz ere lagunarte eta taberna zulotara itzuli zen. Saioak antolatzen ziren baina ez lehen bezalako jaun prestu eta itzal haundikoen eskutik. Nafarroako komunikabideek ordurartekoaren berri ematen zuten. "Diario de Navarra" eta "Pensamiento Navarro" egunkarietako orrialdetan azaltzen zen txapelketaren inguruko xehetasunik. Irratietan bertsoak ere ematen zen. Txapelketak antolatzeari utzi zitzaionetik, "Príncipe de Viana" euskarazko aldizkariak jarraitu zuen bertsoak argitaratu eta bertsolaritzari buruzko gora behera, saio, omenaldi eta abarri tartea emanez. Herrietako plaza, pioleta nahiz arkupeak ez ziren hainbertzetan betetzen eta bertsolaritza erran bezala, Diputazioneko Jaun Agurgarri,

bezperak, errosario saindu edota apezpikuen hitzaldirik gabe, taberna girora edo herri batzutako apezak bere onetik ateratzen zituen gai eta jendeen ingurura mugatu zen.

LASARTE ETA XALBADOR

Nafarroak eta Euskal Herriak izan dituen bertsolaririk haundienetakoak dira Ferdinand Aire "Xalbador" eta Manuel Lasarte. Lehena urepeldarra eta leizarra berriz bertzea, Uztapide eta Basarriren izenei uztarturik azaltzen dira. Juan Mari Lekuonak "Ahozko Euskal Literatura"n bertsolaritzaren pizkundeaz (1935- 1968) ari denean hauxe dio: "lau bertsolari nagusien inguruan doake garai honetako bertsolari-ardatza: Basarri, Uztapide, Xalbador eta Lasarte". Bertsolaritzaren iragan eta orainaz aztertzen duten lanek haien itzala luze jorratzen badute ere, ezinbertzekoa da Nafarroako bertsolaritzaz ari den liburuxka honetan haien aipamen berezia egitea.

III. MANUEL LASARTE

Manuel Lasarte Arribillaga Leitzako "Franki" baserrian sortu zen 1927.eko abenduaren hamaseian. Bere osasun kaxkarrak eta txapelketetan parte ez hartzeak zerbait mugatu badute ere, mende honetako bertsolaririk haundien izenekin batera ageri da berea. Sortzez nafarra izanagatik -"kastaz, oso aurrekoz gera leitzarrak", dio "Gordean neuzkanak" liburuan- Nafarroatik kanpo hasi zen bertsotan. "Nik amabi urte inguru edo eskax nituen garaian -dio bere liburuan- Gipuzkoako Aiara etorri giñan bizitzera fameli osoa". Lehen aldiz plazan Zaldibarren (Bizkaian) kantatu zuen eta denbora gutxi barru Basarri eta Uztapiderekin aritu zen Amezketan San Bartolome gau batez. "Basarri ta Uztapide -idazten du- lenengo Aian ezagutu nituen nik, mutil koskorra nintzala, Leitzatik Aiara etorri berrian. (...) Bazan jendea ugari egun artan Aian. Ni ere an ibili nintzan urrutira gabe (...). Nik egun artan zenbat estimatuko nuen gizon oiekin itz bat edo beste egitea, ezin nezake adierazi, geroztik amaika bider itzegin badegu ere".

Manuel Lasartek orduko bertsolari guziekin kantatu zuen baina gehiena, hogeitazazpi urtez beste Manuelekin, Uztapiderekin alegia, aritua da. Herri Irratiak 1946an Donostiako Konstituzio Plazatik zuzenean emandako lehen bertso saioan Basarri, Uztapide eta Paulo Txikiarekin abestu zuen. Uztapide 1973.eko apirilaren 30ean isildu zen arte berarekin abiatu zen plazaz plaza. "Ni gehiena Uztapiderekin ibilia naiz", aitortzen du leitzarrak. Uztapidek "Gordean neuzkanak" liburuan egiten dion hitz-aurrean, "Ni neroni -dio- asko ibillia naiz Manuel Lasarte'rekin. (...) Nik Manuel Lasarte ezagutzen dedala, badira ogei ta amar bat urte. (...) Ogei ta amar urte erraz esaten da; bañan sekulan ez degu itz bat bestea baño indartsuago egin bearrik izan alkarri. Beti bestela konpondu izan gera. (...) Neretzako gizon ona da; gizon serioa eta errespetokoa; gizon apala ta atsegiña; itz batean esateko, gizon osoa".

Nahiko garbi ikusten ahal da beraz bi protagonista hauen hitzetan, Lasarte eta Uztapide, Uztapide eta Lasarte bikotea garrantzi haundikoa izan bide zela garaiko bertsolaritzan. Halarik ere, gehienek, Basarri eta Uztapideren ondoko belaunaldian kokatzen dute Lasarte. Joanito Dorronsorok "Bertsotan 11" liburuan dio: "Gerra ondorengo urte luzetako hutsunea BasarriUztapide bikote historikoak bete zuen". Joan Mari Torrealdyren "Euskal Idazleak, gaur" liburuan ere, Lasarte hirurogeigarren urteko hamarkadako bertsolariekin batera aipatzen da.

Lasarte ordea, hemezortzi urtetarako bertsotan hasia zen eta berehalakoan bilduko zaio mitikoa bilakatu den bikote horri. 1946an Herri Irratiak zuzenean emandako lehen bertso irratsaioan bikote ezagunarekin batera ageri da. Geroztik, bertze bertsolari batzurekin tartekatuz, elkarrekin egin dituzte Euskal Herriko plaza mordoa. Basarri bere burua plazetatik atera zuenean, Lasarte eta Uztapidek jarraitu zuten orpoz-orpo. Beraz, oraindik datu zehatzik ez bada ere, Uztapide Lasarterekin Basarriekin baino saio gehiago egingo izanen da. Basarri eta Uztapide, urtebeteren gora beheran, 1943an hasi ziren plazaz plaza eta leizarra 1946an hurbildu zitzairen. Aurrerantzean, gerraondoko bertsolaritzaz mintzatzen delarik, mahai gainean ezar liteke gogoetagai bikotea ala hirukotea den Hego Euskal Herriko bertsolaritzaren pizkunde garaiko bidea urratu duena.

Izanen da, arrazoi pertsonalez gain, Basarri-Uztapide bikotearen irudia puztutzen lagundu lezakeen bestelako arrazoirik. 1935 eta 1936an Donostian jokaturako bertsolari txapelketetan Basarri eta Uztapidek ezaguna den arrakasta lortu zuten. Lehenengo aldian Basarri Txirrita zaharrari gailendu zitzaion. Hurrengo urtean berriz, Uztapide txapeldun-orde suertatu zen. Beraz, gerra aurrean kokatzen dira orain artean historiak bi bertsolari haundi hauek bikote

bilakatu ditueneko erroak. Lasarte, bederatzi urtetako mutil koskorra, "Franki" inguruko zuhaitzi ederretan ibiliko zen artean *"Jostalluz tiragomak da txori-zepuak"* eta *"satsazalezko txistu zar bat ezpañetan"*.

Horretaz gain, berrogei eta hamargarren urteko hamarkadan plazaz plaza ibili ondoren, Euskaltzaindiak Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusiak antolatzeari ekin ziolarik, Lasartek ez zuen sekulan parte hartu. "Bertsolariak ez du txapelketa beharrik -dio-, herriak ezagutzen bait du bertsolari bakoitza". Bertsolari herrikoia izatearen aldeko apustua egin eta hari eutsi dio azkenerarte. Urte batzu lehenago, Teodoro Hernandorenak Luhuson (Lapurdi) antolaturik, mugaz bi aldetako bertsolarien desafio batean parte hartu zuen. Uztapide, Joxe Lizaso eta Lasarte, Xalbador, Mattin eta Zubikoarekin aritu ziren norgehiagoka. Gipuzkoarrek irabazi eta Lasartek bereganatu zuen bertsorik onenarentzat zegoen saria. Txapelketek indar hartu zuten urtetan, berauetan parte ez hartzeak puntako bertsolari bezala dagokion baino protagonismo gutxiago izatea ekarri ziola esan liteke, oker haundiegirik gabe. 1968an, ehun mila pezetako sariketa hartan, "presio" askoren ondorioz eman omen zuen izena. Otsailaren hamaikan saio nagusia jokatu zenean, Basarri eta Xalbador pareko eman zituen epaimahaiak, eta hurrengoa berriz Lasarte izan zen. Maila goian utzi zuen Leitzan sortutakoak.

Bada Lasarteri buruz ariz gero aipatu gabe utzi ezin den beste arlo bat. Nafarroa eta Lasarte. Sortu zen eskualdea eta bertsolariaren arteko loturari dagokionez, bertsolaritzaren nafar ikuspegi batetik bederen, Leitzan jaio eta herrialde honetan zehar saio dexente egin dituela besterik ezin da esan. Joanito Dorronsorok *"Bertsotan II"* alean Lasartez ari denean, "Nafarroa Garaiko bertsogintzaren lekuko paregabea da gure egunotan" dio. *"Euskal Idazleak, gaur"* liburuan aipatzen da: "Desde comienzos de los sesenta el estímulo de los campeonatos provoca una nueva floración de bardos populares. (...) Navarra ofrece un Lasarte;...". Aita Zavalak bere aldetik, Leitzak bere seme bertsolariari eskeini zion omenaldi egunean, 1975.eko martxoaren bian, emandako hitzaldian zioen: "Nafarroa'n bertso zaletu ta asi; Gipuzkoa'n trebetu eta Bizkaia'n lenengoz plazara azaldu. Asiera egokia, nik uste, Euskalherri guzian erriz-erri ibili bear zuen bertsolari batentzat". *"Jakin"* aldizkariaren 44. zenbakian Dorronsorok berak, Basarri eta Uztapide goraiatu ondotik, "Gipuzkoan bertsolari gazteak badatoz horien atzetik: Joxe Lizaso, Lasarte,..." aipatzen du. Lasarte, Basarri eta Uztapideren atzetik heldu dela esatea eztabaidagarria izan liteke baina, behintzat, berez dagokion gune egokiago batean kokatzen du Orion bizi den bertsolaria: Gipuzkoan.

Lasartek Nafarroan barna saio ugari egin du. Goi mailako bertsolaritzat zeukaten Euskal Herrian; eta Nafarroan, zer esanik ez urte haietan saioen antolaketaren ardura zeramatenek. Bada ordea, beti ere bertsolaritzaren nafar ikuspuntu batetik, Lasarte bertsolari bezala nafarra baino gipuzkoarra baiezatzeko arrazoirik. Nafarroan, bertsolaritzaren garapena txapelketei lotua azaltzen da. "Príncipe de Viana" erakundeko "Euskeraren aldeko saila" deituak antolatzen zituen norgehiagoka hauetan parte har zezan eskeini zitzaion. Xalbadorri, bestelako arrazoiak medio, Nafarroa Garaiko txapelketetako ateak -antolatzaileen borondatearen aurka- haseratik itxiak zegozkion bezala Lasarteri parez pare zabaltzen zitzaizkion. Baina lehenago aipatu da leitzarrak txapelketei buruz duen iritzia eta ez zuen izenik eman. Egia da, ordurako Lasartek itzal handia zuela Euskal Herri osoan eta lehiaketa hauen beharrik gabe nahikoa eta gehiago zuela.

Beraz, urte haietan Nafarroarekin izandako harremana, "Príncipe de Viana" erakundeak antolatutako saiotan partehartzera eta behin, 1972ko irailean, izen bereko euskal aldizkarian bertso sorta bat argitaratzera mugatzen da. *"Dama eder bati"* izenarekin hamar bertso ageri dira aldizkari honen hirugarren orrialdean. Bertso hauek Jose Mari Satrustegi, apez eta euskaltzainaren, proposamenez egin zituen. Lasartek orduan ez zuen idazten eta hala, buruz egokitu eta Loiola Irratitik kantatu zituen. Joxe Mari Iriondok paperera pasa eta bidali zizkion Arruazuko apezari "Príncipe de Viana"n argitara zitzan. Hauek dira nolabait, Manuel Lasarteren lehen bertso paperak.

Geroztik bertso asko eta asko idatzi du. Hasera batetan, buruz moldatu eta atxiki zituen Aita Zavala zintaz jasotzera joaten zitzaion arte. *"Gordean neuzkanak"* liburu mardula horrela egina da bi urte eskasean. "Auspoa" sortak *"Bertso mordoxka"* liburua argitaratu zion bapateko bertsoekin. Orain esku artean dauka prosa eta bertsoz idatzitako liburuxka berria, *"Beranduko lanak"* ala *"Zaarraren ametsak"* izenetako batekin bataiatzea pentsatzen duena. Gainera, sei zinta grabatu ditu *"Lasarte I"*, *"Lasarte II"*, *"Zuentzat kantari"* eta hiru gehiago *"Nere bertsoak"* izenarekin.

Euskal Herrian hain maitea den bertsolari herrikoi honek bazterrik bazter jaso du omenaldi andana bat. Leitzan hirutan, Eibar, Añorga, Donostia, Azkoiti, Ala, Orlo, Zegama, Alegi nahiz Getarin jende mordoa bildu da Lasarteri bere esker ona azaltzeko. 1975ean sorterrian egin ziotenaz oroitzapen goxoak gordetzen ditu. Bertaratutakoak bertso hauekin eskertu zituen:

*Gaur erregaliz jantzi naute ta
pozik arkitzen naiz zñez,*

*nik onenbeste merezi nunik
nago siñistu eziñez;
baño leitzarrak au dena egin
dute borondate piñez;
kezka bat daukat: zueri zorrak
nola ordaindu jakiñ ez.*

*Nere iduri bat ere or jarri
dute erriko kalean,
ongille denak eskertu naian
nabil iñundik alean.
Esan nezake: jaio nintzan lur
bedeinkatu zabalean,
bularra artzen ari naizela
gaur amaren magalean.*

*Ez nuen uste garai batean
maila ontan ibiltzia,
erri batean nere izena
ain aundi erabiltzia;
nik naiko nuke bizi naizela
zuekin sarri biltzia,
ta eriotza datorrenean
gorroto gabe iltzia.*

*Zalla da bertsoz adierazten
sentitzen dedan poz dana,
bakarrik ez da beiñere bizi
senide asko dauzkana;
agur, entzule maitagarriak
ta agur, Leitza laztana,
Oriyo'n dezu zeure seme bat
zutaz aztuko eztana.*

Eta bertsoaritzak ere izanen du nortaz ez ahaztua. Urte askoz, berrogei eta biz hain zuzen ere, ibili da Manuel Lasarte herriz herri, plazaz plaza. Gerra ondoko bertsolari guztiekin, hirurogeigarren hamarkadako txapelketek sortutako belaunaldi berrietakoekin eta azken urteotan punta-puntan dabiltzan guztiekin kantatu du. Osasun kaxkarrak zailtasunak jarri dizkion arren, beti jakin du txukun eta zuzen erantzuten. Oiartzunen, 1981ean Mattinen omenaldian, bertso batean zioen: "Triste bizi naiz baino kanturako listo". Halarik ere, sarri esaten du: "Gogorik gabe zenbat saio egiña naizen ni!".

1986.eko ekainaren lehena zen Lasarte azkeneko aldiz plazan ikusiko zen eguna. Eguerdiz, bataio batean Usurbilgo Saizar sagardotegian kantatu zuen Lazkao Txikirekin. Arratsaldean, Anoeta herrian aritu zen Lazkao Txiki bera, Peñagarikano eta Egañarekin. Kolikoak jo eta eritegian egon zen egun batzuz. Urdailak ere arazoak sortzen zizkionez bapateko bertso gintza uztea erabaki zuen.

Gutxi gota behera, Aita Antonio Zavalaren hitzak erabiliz, Nafarroan sortu, Bizkaian plazaratu, Gipuzkoan trebatu eta Euskal Herrian "iturriari bezain errex ixurtzen zaizkion" bertsoak eman eta zabaldu dituen gizonari, mende honen bigarren aldirian bertsoaritzan dagokion lekua egingo zaio noski.

IV. XALBADOR

Ferdinand Aire, etxekoentzat Ferrando eta Eskual Herrian "Xalbador" goitizenez ezagutua, Urepeleko "Xalbadorrenea" baserrian sortu zen 1920.eko ekainaren hemeretziaren. Bizi zelarik, hil ondoan lortuko zuen arrakastaren lehen oihartzunak entzuten hasi ziren. Eskual Herriko bertze bazterretan ez ezik, Nafarroan ere, aunitzek zuen

Xalbadorrentzat fede kartsua. Bertze herrialdetan ospea eta itzala erdietsi aitzin, nafarrek ikusten zuten urepeldarrarengan balizko bertsulari eta poeta haundi baten irudia. "Príncipe de Viana" erakundeko partaideek estimu haundian zuten. Urte haietako egoera politikoa tarteko, amatxi Aurizperrikoa izanagatik, *"frantses"* batek nafartar gisa jokatzeari barka ezina gerta zitekeen. Bertzeen artean, Pedro Diez de Ulzurrun medikuak eta Aingeru Irigarai euskaltzainak Nafarroako Bertsulari Txapelketetara gomitea luzatu nahi zioten arren, gauzak arras ongi neurtuta egin beharreko urte heietan, Xalbadorrek ez zuen nehoiz Nafarroako Txapelketetan parte hartzeko xantzarik ukan. *"Goi ta beherik ez da enetzat, Naparro bat da bakarra"* zioenak, nafar eskualtzaleen borondatea bertze egoera batek mugatzen zuelako, Nafarroatik kanpo lortu zuen bertsulari izanari aski ongi merezita zegokion izena.

Horiek hala, herrialde huntatik haratago trebatu zen. *"Odolaren mintzoa"* bere liburuan agertzen ditu, *"Pertsutan hastea"* atalean, bertsularitzarekin ukan lehen harremanak. Aitortzen duenez, gipuzkoarrek haste-hastetik izan zuten eragina beregan eta *"ondoren zer esanik ez"*. Gipuzkoak ezagutarazi zuen. Gipuzkoarrek xixtukatu zuten Anoeta pilotalekuan 1967an. Gipuzkoan gelditu zen nehoiz nafar batek hain hurbil izandako Eskual Herriko txapela. Baxenafarra izanik ere gipuzkeraz kantatu behar izan zuen. Ordu arte bezala geroan ere, Gipuzkoan egin zuen saiorik gehien. Eta hil ondoan, gipuzkoarrek altxatu dute aldaletara.

Berak aitortzen zuen Hernandorenari esker ezagutu zituela Eskual Herriak, bai bera eta bai Mattin. Baina Eskual Herria zioenean, zonbeitetako ote zegokion Gipuzkoari? "Asko maite *duenak asko* softitzen du" zioen bertze batean eta hori gertatu zitzaion Gipuzkoarekin noski. Gisa huntan ulertu liteke behintzat herrialde horretaz ari denean:

O, Gipuzkoa maitatu zaitut eta maitatzen *oraindik,*
bainan nik zutan nahigabeak *noiznai hemendik ta handik;*
esan ba ene bihotzari zuk itxaron dezaken txandik,
ala nai dezun behin betikotz aldegitza zu gandik.

Ez zuen Gipuzkoak egin Xalbador bertsulari. Ez dago dudarik berezko jatorri aberatsa zuela urepeldarrak, baina aipatutakoak aunitz lagundu zuen. *"Odolaren mintzoa"*n dio irinik hoberenarekin egin oreka ere ez dela ogia, labean axala egin artean. Bapateko Xalbador bertsularia beraz, zaila litzateke Gipuzkoa gabe ulertzea.

Bapateko Xalbadorrez ariz gero, erran behar da ez dela egungo bertszuzale gehienek ezagutzen duten Xalbador. Urepelen sortutakoak *"Odolaren mintzoa"* liburuari zor dio gehienik duen itzala. Hil ondoan "Auspoa" sortak argitara eman *"Herria gogoan"* liburuxkan Aita Zavalak argi eta garbi azaltzen du kezka hori. "Xalbador itzali ondoren -dio Antonio Zavalak-, batek baño geiagok, manetofon-zintetatik aren bertsoak atera eta beste liburu bat egin bear zela esaten zigan. Bañan zailtasun aundia ikusten genduan, eta nun eta "Odolaren mintzoa" liburuan. Liburu ortan, izan ere, Xalbador zena goeneko maillaraño iritxi zan. (...) Orrela, bigarren liburu orrekin, goratu bearrean, ez ote genduan Xalbador beeratuko?".

Bapateko Xalbadorrek, bertsulari orok bezala, gota-beherak izaten zituen. Dena den, egungo bertszuketan eredutzat hartzen da urepeldarraren bertsuak eratzeko moldeak. Solasean ari balitz bezala jalgi zaizkio bertsuak. "Eragin haundia du Xalbadorrek gaia zehazteko eta banatzeko eretan", dio Juan Mari Lekuonak *"Ahozko euskal literatura"*n. Aita Zavalak egindako bilduman bertsurik onenetakoak ematen dira, beraz ez da beheratua izan. Baina Xalbadorren goratzarrerako, bera bezain mitikoak bihurtu diren bertsuak aipatu gabe ezin utzi. Txapelketan aritu den bertsulari gutiz gogoratzen da herstura horretan bota eta urrezko hitzez historiara pasa den alerik. Xalbadorrek baditu. Basarri berak idatzia da *"Zeruko Argia"* aldizkarian: "Egundo geure denboran kristauaren aotik entzun ditugun bertsurik onenak, Txapelketa egunean Xalbadorrek kantatutakoak izan ziran, emazte zanaren soñekoari kantatutakoak alegia". Bertsu horiek Anoeta pilotalekuan bota zituen 1965.eko urtarilaren lehenean.

Xalbador:

*Pentsa zazue alargundu bat
ez daike izan urusa,
dolamen hunek, oil, ez dezala
ainitz gehiago luza,
orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan
penan ikusten dut hutsa.*

*Geroztik nihaur ere nabila
guzia beltzez jantzirik,
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak hersterik,
ez pentsa gero, andre gaixoa,
baden munduan besterik
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.*

Bi urteren buruan, 1967.eko ekainaren hamaikan jokatu Txapelketa Nagusian gertatutakoak, antologikoa bilakatu den bertsua botarazi zion. Anoetako xixtukadak gogoetarako ateak zabaldu eta dirudienez eten nabarmen bat ekarri zuen. Juan Mari Lekuonak nehoiz erran duenez epaimahaiak atsekabetua gelditu zen. Josu Landak *“Jakín”* aldizkariaren 44. zenbakian adierazi bezala, "Geroak frogatu zuen, txistualdi hark irekitako zauria ez zela hain erraz sendatu". Lehendik ordea, Basarrik berak, *"Zeruko Argia"*n, eta bertze aunitzek aipatu zuten euskalkiaren arazoa. 1967.eko ekainaren zazpian, saio nagusia jokatu baino lau egun lehenago beraz, *"Diario de Navarra"* egunkariak A. Apat Echebarnek, igarlea izan balitz bezala, idatzitakoa zekarren: *"La final de San Sebastián"* izenburupean dio: "El conocido Shalbador sería un temible contrincante de los mejores que vayan al Frontón Anoeta de San Sebastián, si no estuviese bajo un regular handicap al tener que esforzarse, saliéndose de su vascuence natural, en buscar términos y vocablos conocidos del enorme auditorio que vaya a llenar el Frontón, cuya gran mayoría estará compuesta de guipuzcoanos". ("Xalbador ospetsua, Donostiako Anoetara joan behar duten onenentzat kontrario gogorra izan liteke, baina bere eguneroko euskara baliatu ezin izatea eragozpen koxkorra izanena da beretzat, Frontoia beteko duen jende gehiena gipuzkoarra izanena baita, eta horiek ulertzeko moduko hizkera erabiltzen saiatu beharko du".)

Uztapiderekin txapela jokatzeko epaimahaiak Xalbadorren aldeko deliberoa eman zuenean, jendea xixtuka hasi zen. Uztapidek berak zioen *"Lengo Egunak Gogoan II"* liburuan: "Jendeak erabaki oneri txistuak jo zizkion, eta, nere iritzirako, oso gaizki dago Xalbadorri txistu jotzea".

Baina jo zioten eta xixtu artean, apal eta sentiberatasunez, hasitako bertsua txalo zaparraden arrear bukatu zuen:

Xalbador:

*Anai-arrebak, ez, otoi pentsa
neure gustura nagonik,
poz gehiago izango nuen
albotik beha egonik;
zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez nik,...*

(Jende guzia txaloka asten da -aipatzen da "Auspoa" sortako 67 zenbakian-, ta ezin jarraitu du denborapuska batean; gero, onela bukatzen du bertsoa:)

*zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik,
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet orainik!*

"Jendea Xalbadorren bertso orrek jarri zuan txaloka -dio Uztapidek-. (...) Xalbadorrek negar egiten zuan, eta ez da gutxiagotarako, izan ere. Txistuka ari zan jendea bertso batekin txaloka jartzen duan gizonak badauzka merituak. Ez dago ari zertan txistu jorik".

Manuel Uztapidek jantzi zuen hirugarren aldikoz txapela. Josu Landak, lehen aipaturiko bere idatzi berean dio "Uztapideren txapela guztiz goibeldurik eta itzalean geratu zen, Xalbadorrekiko injustizia zela kasu". Uztapide haundiaren txapela hori geratu zen agian goibeldua, baina lehenagotik ere aski ezaguna zen zestoarraren bapatekotasunerako dohai paregabekoa. Dena den, urte hartakoari dagokionez, txapelketa horretako liburuxkan datozen bertsuek salatu dezakete jendeak zer eragin izan zuen epaimahaiarengan.

Xalbador eta Mattinek muga goibel pasa zuten gau hartan. Xanpunen etxera joan ziren. Egun berean izan zen lapurtar bertsulariaren alabaren jaunartzea eta Xalbadorren emaztea eta alaba Mari Helen heien etxean ziren. "Guttitan ikusi dut nik Xalbador hain triste", gogoratzen du bere emazte Leoniek.

Geroztik ez zen txapelketarik antolatu 1980. urterarte. Halarik ere, 1968.eko otsailaren lau eta hamaikan Donostian jokatu zen ehun mila pezetako sariketa bat, "Onena" pentsu-etxeak bere aldetik antolatuta. Lehen aldikoz puntuazioa agerian eman zen. Gainera, plazetatik erretiraturik zegoen Basarrik eta lehia maite ez zuen Lasartek parte hartu zuten. Basarri eta Xalbador parean gelditu ziren eta Lasarte hauen ondotik. Sekulan ez dute bertsulari nafarrek hain maila gorenik lortu Eskual Herriko norgehiagoketa batean.

Bertzalde, Xalbadorrek Nafarroan eta, bereziki, Ipar Eskual Herrian izan duen eragina ere aipatzekoa da. Nafarroari dagokionez, argi eta garbi azaldu zuen bere sendimendua "Nafarroari" deitu bertsu sortan. Bertsulari bezala ondea, baxenafar bezala ibili behar izan zuen, eta lehen aipatu arrazoiak erabakikorrek izan ziren Xalbador Nafarroako Txapelketetan ez ikusteko.

Halarik ere, "Príncipe de Viana" erakundeko "Euskararen aldeko Saila"k batetik eta aldizkariak bertzetik, urepeldarra bertsulari nafartzat jotzen zuten eta denetan onena gainera. Erakunde hunek deiturik, aunitzetan kantatu zuen Nafarroan eta oraino gogoan dute herri andana batetan. Eugi, Erroibar, Esteribar, Baztan inguruan, Xalbadorren oroitzapen ezin hobea atxiki dute. Usetxiko (Esteribar) Juankonia etxeko emazte eskualdunak gogoan du gazte zelarik Eugiko bestetan "Xalbador bertsulari haundiarekin" dantzan aritu izana. Urbano Egozkue, eugiar bertsulariak ere, egunsentiartino saio mordoa egin omen zuen tabernetan auzo herrikoarekin, urepeldarrekin alegia. Baztandarrek ere, eta Mariano Izetak partikularzki, ez dute ahanzi Urepeleko adiskidea, hainbertze urtez Elizondoko ferietan ibili zena. Xalbadorrek berak gogoan zituenaren lekukotasuna utzi zuen:

*Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde
diot: "Aurrean Baztan daukazu, gibelean Erro alde
ezkerretarat Eugi herria, erkuin alderat Luzaide;
zure guziak Nafarroaren hegalean azpian daude".*

Ipar Eskual Herriari dagokionez, bertako bertsularientzat ezin bertzezko erreferentzi puntua bilakatu da. Liburuxka honen bertze atal batean aipatzen da, orduan bertsulari gazte eta egun plazan dabilzan ipartarrek, paradaren bat edo bertze izan zutela urepeldarrekin artzeko. Nahi ala ez, Urepelekoak maila oso gora utzi zien eta ondotik heltzean zailtasun horrekin egin dute topo. Dena den, Jean Pierre Mendiburu heletar bertsulariak bere "*Bertsutan ariz ikasten*" liburuxkan "Xalbador gure gidari" bezala aipatzen du.

Dagoeneko Xalbador mito bat da eta izanen. Bertsularitzaren hesia urraturik, Kanboko "Xalbador" ikastegia, Iruñeko "Xalbador" liburudenda eta "Xalbador" literatur saria edo Xiberuako Larrainek 1991n emandako "Xalbador" pastorala dira hunen lekuko. Ezin aipatu gabe utzi, pastoral baten ikusteko nehoiz ordurarte Xiberuan bildutako jendetzarik haundiena 1991.eko udan, agorrilaren 15 eta 25ean, bildu zela. Xalbador izenak badu beraz erakargarritasun berezirik. Halarik ere, zinezko "Xalbadorzaleak" kexu ageri dira, zonbeitetan, gizon hunen irudiaz egiten omen den erabilera ez zuzenarekin.

Zaila da ordea, hil berritan gisa hortako begirune eta arrakasta erdietsi duen izen baten erabilera zuzena zein den jalotea. Alta, Xalbador denek ezagutu zuten, denek zuten lagunmin, denek dute estimu haundian. Bertze aunitzi bezala, ordea, bere herrian profeta ez izaita suertatu zitzaion bertsulari haundi huni ere. Zonbeit urepeldarrek ez du ulertzen Xalbadorri bai eta Jean Baptiste Uharriet herriko erretor ohiari, zergatik ez zaion omenaldirik egiten, "ez al zuen merezimendurik?". Ezin zuten ulertu noski, Xalbador hil eta bortzgarren urteurrenean, Iruñea eta Tuterako artzapezpikua, Jose Maria Zirarda, Urepeleko elizatzuan ikustea, aunitz herritarrentzat -bertsutan hasi zenetik"enbata" izandako bati goratzarre eginez. Nola konprenitu bertsozale andana batek urtero Urepelera egin beila! Mixel Lekuona apez bertsuzaleak dioenez, "urepeldarrek Ferrando artzaina, herriko gizon gisa ezagutu dute eta ez noski Xalbador bertsularia".

Xalbadorrek bertsulari bezala "*curriculum vitae*" aberatsa du. Bapatekoan, Eskual Herriko Txapelketetan, 1960an laugarren, 1962 eta 1965ean hirugarren eta 1967an txapeldun-orde suertatu zen. 1968ko ehun mila pezetako sariketan berriz, Basarriarekin batera lehen saria. Idatzizko bertsuekin Xalbadorrek laueta jaso du "*Xenpelar Saria*": 1972an "Sortetxeari", 1973an "Gure artzain etxola" eta "Mendian galdu direnei", 1975ean "Ortzirale saildu batetako gogoetak" eta 1976an "Ene ama zenari" bertsu sortekin. "Jainkoa eta ni" sortarekin Mendaro Txirristaka Saria jaso zuen 1974ean.

Bertzalde, Anje Duhalde, Mikel Laboa, Txomin Artola eta abarrek Xalbadorren hitzak darabiltzate, dagoeneko, zoritxarrez, zonbeitek kantarienak bailiran jotzen dituztelarik. Gainera, "Entzun Jaun Zerukoa", "Jainkoa eta ni", "Ortzirale saildu batetako gogoetak", "Espos berrier kantatzeko" edota "Kantikak", Baionako Eleiz Barrutiko liburutxoan ageri diren Xalbadorren bertze zonbeit kantu, eleizan erabiltzen dira.

Liburugintzan aipatu beharrekoak dira "Ezin bertzean", "Herria gogoan" (hil ondotik) eta bere lanik nagusiena, Eskual Herriko aunitz supazter xokotan dagoen "Odolaren Mintzoa". Joxe Mari Aranaldere hitzetan "bertsolari bakar batek inoiz idatzi duen bertso libururik onena". Lan oparo hau egin zuen bertsulariak, bizi zelarik hiru omenaldi jaso zituen. 1969.eko irailean Donostian, 1976.eko ekainean Donibane Lohitzunen eta azkena hil zen egun berean, 1976.eko azaroaren zazpian Urepele bere sorterrian. Geroztik, urtero antolatzen da saio bat Urepelen.

Xalbador, bere garaiko gizon eta bertsolari bezala ulertu behar da. Badira ordea zonbeiten ustez arrazoi batzu, lortu duen arrakasta ulertzen laguntzen dutenak. Jatorri aberatseko Xalbador, Anoetan xixtukatu zutenez gero hasi zen maiteagoa izaten. Lehen aipatzen zen Gipuzkoak eman zizkiola zorion eta saminak. Bertzalde, lehen aipatu bezala, jende gehienak ezagutzen duen Xalbador ez da plazaz plaza bapatean ibilitakoa, "Odolaren mintzoa" liburuan isladatzen den gizon izpiritu haundikoa baizik. Gainera, hil zenean hiltzeak eta hil zen bezala hiltzeak eragin haundia izan du mitoaren eremura eremaiterakoan. Bere omenaldira bildutako ehundaka jendek "Gernikako Arbola" abesten zuten bitartean eman zuen azken hatsa, Urepelen profeta ez eta Eskual Herrian geroztik poeta mitiko bilakatu denak.

Hil berritan, Xabier Lete poetak ateratako "Urepeleko artzaina" kantuak, betirako hilezkortasunean sartu duen gizonaz gauza gehiago erraten ahal da eta emanen noski. Emile Larrek laburbildu du xuxen "Odolaren mintzoa" liburuari egin aintzin solasean, familiako maitasun mina, herrimina eta jainkomina gizon hunen ezaugarri nagusienak duela azpimarratuz. Horra bada, osoki nafar bertsularia izaiterik ukan ez zuen gizon bati buruzko gogoeta zonbeit. Dena den, bertsolari familian, Nafarroakoan bereziki, bizirik dirau "Xalbadorrenea"ko jaunak.

XALBADOR ZENARI

Lau aste huntan euriek zuten itotzen hasia lurra
Ez ginakien, noiz geldituko zen zeruaren nigar hura
Azaroaren zazpian zaiken denbora txarra burura
Iduzkiak e' bota zeraukun bere behako samurra
Zuri Xalbador, hark ere nahiz eskaini bere agurra.

Urepeleko zero gainean gora zitazken urtsoak
Haize ezti bat ekartzen zuen mendi artetik hegoak
Zer ote zuen izpirituan gure Xalbador gaisoak?
Bozkarioa, dudarik gabe, gordea bihotz xokoak
Eguna zuten horri eskaintzen herriak eta Jainkoak.

Parerik ez du nehoiz izanen Xalbador zure biziak
Zure alderat zordun gelditzen dira Euskaldun guziak
Horren ordaintzen, igande hortan, xumeki ginen

/hasiak

Bainan Jainkoak nahi zauzkitzun eman zeruko graziak
Hemen nigarrez utzi ondoan zazpi Euskal probintziak.

Xalbador, zure omenaldia nork ez du bere gogoan
Egun handia izango zela ageri zen zure soan
Apostoluen artetik Kristo, nota zerurat zen joan
Halaber zira zu ere sartu betiko bakezko loan
Euskal Herriko haur ta anaiak zintuelarik ondoan.

Zure lagunen bertsu ederrez orroitzen naiz arras ontsa
Denek zioten Jainko Jaunari egina beren otoitza

Senda zezala, lehen bait lehen, Xalbador zure bihotza
Bainan bertzela, zeruak dautzu helarazi bere botza
Hango sailduak ta aingeruak zutaz zitazkela goza.

Ez ditut hemen nik aipatuko zure lan miregarriak
Zure liburu xoragarrian asko laude ezarriak
Nahiz oraino gelditzen giren gose eta egarriak
Akabo zure ezpainek zuten bertsuak eta irriak
Dolatan daude Euskal Herriko mendi eta iturriak.

Urepeleko izar argia joan zauku beraz ihesi
Egia dela onhartu behar, alta ezin da sinetsi
Begiak goiti altxatu eta otoitzean nintzan hasi
Ilargia zen, bete betean, Xalbador ez du ahantzi
Hau nahi zuen bere argian zeruraino helarazi.

Egun edema, egun txarrerat kanbiatu da bet-betan
Zure bihotza ezin zaiteken senda ahal ohoretan
Uzten daukuzu, zer etsenplua!, odolaren mintzo
/hortan

Euskal Herria ahuspez lango, Xalbador zure oinetan
Zure izena sartua baita Euskaldunen bihotzetan.

Egin ziloa ezin da estal iduritzen zeraut eni
Euskal Herritik hola joaitea, nola ditake komeni?
Lehen erranak, oral obretan, zure "Jainkoa eta ni"
Bainan etxean daudenak ere Jaunak ditzala konpreni
Kontsola bitza familia ta laguna zuen Leonie.

Betiereko bake ta pausu Xalbador dautzut opatzen
Zeruko alki ederrenean zaudela ez dut dudatzen
Guziz zorretan izana gatik hau derautzut nik eskatzen
Euskal Herria, hortikan ere, lagun dezazun salbatzen
Bai eta ere gure nigarren zure bihotzaz xukatzen.

Ernest Alkhat
Armendaritze, 1976, azaroak 7-8

V. GIBELERATZE URTEAK (1967-1979)

"Príncipe de Viana" erakundeko "Euskeraren aldeko saila" deituak txapelketak antolatzeari utzi zionetik bertsolaritzaren protagonismoak beheiti egin zuen Nafarroa Garaian. Bertze atal batetan azaltzen den modura, Nafarroan bertsolaritzaren garapena txapelketei lotua dago hein handi batean. Hamahiru urtez ez zen bertso lehiaketarik jokatu eta tarte horretan bertsolariak, bistan den bezala, herrietako besta eta taberna giroan murgildu ziren. Historiara pasa zen garai hartako bertsolari peto-petoeak eta Diputazioneko ordezkari nahiz eleiz gizonak elkarrekin egindako bidea. Erdi ilunpeko urteak beraz, bi txapelketa aldien artean pasatakoak.

Bizkitartean, probintzietan, Xalbadorren xixtukadaren eraginez eta epaimahaia atsekabetua geratu zelako, txapelketarik jokatu ez baten ere, bertsolariek aitzinapauso nabarmenak eman zituzten. Erran gabe doa, bertsolaritza betidanik egon dela Bizkaia eta, batez ere, Gipuzkoan herrialde honetan baino sustraituago. Bertzalde, goi mailako bertsolaririk ez zen urte haietan Nafarroan. Eta nafarrak zirenak, Xalbador eta Lasartek, aitzineko ataletan aipatzen diren arrazoiengatik, ez zuten beren itzala Euskal Herriko bertze zoko batzuetan bezainbat Nafarroan hedatzen ahal, nahiz mugaz harata urepeldarraren eragina haundia izan. Gainera, Andres Narbarte "Xalto" goiztiar hil zen, 1971.eko urtarrilean, eta Migel Arozamenak, nafarra izanagatik, Hernanin bizi zenez, Gipuzkoan burutu zuen gehienbat bere bertsolari lana 1976. urtean hil zen arte.

Nafarroa Garaiko txapelketetan ezagutzera emandako bertsolari gehienak, eta aunitz baziren ibiltzeko sasoiak zeudenak, jarraipenik gabe gelditu ziren beraz. Lehiaketarik ez antolatzeak eta horren ondorioz propaganda ezak, bertsolaritza mailan aurreratuagoak zebiltzan herrialdeetakoekin harremanak galtzea ere zekarren. Denbora pasa ahala, gazteagoak bazetozen baina urtetan, duela gutxi arte, Nafarroaren ordezkariak beren gain izan dutenak, Argiñarena anaiak, Gipuzkoan bizi ziren. Hauek, beren garaikide gehienak bezala, Gipuzkoan antolatutako gazte eta bertsolari ez profesionalentzako sariketan parte hartuz hasi ziren bapatekotasunaren munduan bidea urratzen. Gainera, "Orixe", "Zepai" eta "Lizardi" sarietan eginen zuten topo berantago, Nafarroako txapelketen bigarren aldia hasi zelarik, bertsokide izanen zituzten Ipar Euskal Herriko adiskideekin. Joxe Fermin Argiñarenak irabazi zuen 1977an Lizardi Saria. Baxenabarren, aurrerago azalduko den bezala, gazteak indarrean heldu ziren. Jean Pierre Mendiburuk jasoko zuen 1977an Idiazabalgo "Zepai Saria" eta Mixel Xalbadorrek, aita hil ondoan hasi bezain laster, jasoko zuen "I Patxi Errota eta Artxanberri" sariko txapela Zaldibin.

Bertzalde, Nafarroa Garaian bertan sortu, hazi, hezi eta bizitako bertsolari gazteak esku bateko hatzez zenbatzen ahal dira. Garai hartako adibiderik aipatzeagatik, Iturengo Joxe Mari eta Eusebio Fagoaga anaiak, hamaika eta hamabi urte zituztelarik Elizondoko Antxitonea trinketean ikusten ahal dira lehen aldiz bertsotan, Mariano Izetak zuzendutako saio batetan. Bittor Elizagoien arraiotarrari dagokionez, hamazazpi urte zituelarik "Paulo Yantzi" deitu lehen sariketan plazaratuko zen Lesakan. Nafarroako txapelketen bidez zaildutako bertsolariak dira gazte hauek. Halarik ere, ez dute aukera haundiegirik izan Nafarroatik kanpo beren burua ezagutzera emateko, azken urteetan ez bada. Lehen aldiz bertsotara Nafarroatik kanpora abiatu zirelarik, 1983ko "IV Patxi Errota eta Artxanberri" sariketan azaldu ziren, Zaldibin.

Zoritxarrez, bertsotan trebatzeko ingurune ez apropos batekin egin dute topo hemengo bertsolari gazteek. Usadio apalagoaz gain, bertze herrialdeetan komunikabideek izan duten aldeko eraginik ez da eman Nafarroa Garaian. Irratiek, Gipuzkoa eta Bizkaian ez bezala, ez dute bertso emanaldirik eskeini. Aldiz, "Príncipe de Viana" erakundeak txapelketak antolatzen zituenean, Iruñeko irratiek eta "Diario de Navarra" eta "Pensamiento Navarro" egunkariak tarterik eskeintzen zioten bertsolaritzari, nolabaiteko prestigioa emanen. Txapelketak bukatu zirelarik, "Príncipe de Viana" euskal aldizkariak jarraitu zuen bertsolaritzaren inguruko berri emanen, 1973an, hainbertze lan egindako Pedro Diez de Ulzurrun medikua gauetik egunera kendu zuten arte. Dena den, euskal munduari zuzendu hedadura murrizteko publikazio honek, jende arruntak bertsolariak taberna giroarekin ez uztartzeko hainbertzeko eragina ez zuen lortu. Basarrik "bere bordatxotik" idazten edota erraten zituenak izandako garrantzia aztertzea izanen da Gipuzkoan. Nafarroa Garaian maila horretako apologista eta apología nondik egina falta izan da. Bertsolariak, beraz, nor bere gisara egin behar izan du bidea, aunitz oztopo eta laguntza gutxirekin.

Garai berean, mugaz harata, bertzelako bide batetik lerratu da egoera. Xalbador hil zen artean beregan zetzan, nolabait errateko, herrialde horretako bertsolaritzaren ordezkariak nagusia. Dena den, Baxenabarre ez da bertso eremu bakar bat bezala aipatzen ahal. Ipar Euskal Herrian urepeldarrarekin batera ibiltzen ziren, Mattin nola ez!, Xanpun eta Ezponda. Zubikoa, Errexil eta Aintziart, eta Xiberuako Etxahun Iruri, gutxiago bazen ere, gehitzen zitzaizkien tarteka.

Txomin Ezponda, Jatsukoa sortzez, belaunaldi hori eta gaurkoaren arteko zubia dela erraten ahal da. Gazterik hasi zen herriko lagunekin. Donibane Garazira bere dantzari taldearekin joan eta Xalbadorri Mattinek huts egin zionez, bere lehen plaza urepeldarrarekin egin zuen 1955ean. Beranduago "Radio Adour" irratiara bertsoak bidaltzen hasi zen eta, hala behin batez, Beskoitzerako gomitea luzatu zioten Jean Baptiste Otxalderi egin omenaldian parte har zezan. Geroztik, plazaz plaza dabil eta egun Ipar Euskal Herrian, Alkhat lagun duelarik, saiorik gehien egiten duen bertsolaria da.

Liburuxka honen bertze atal berezi batean azaltzen den gisan, Emile Larre izan da eragin haundikoa gazteagoengan bertsolaritza txertatzerakoan. "Herria" kazeta (Basarriren "Nere bordatxotik" sailak izan duen baino hagitz garrantzi haundiagokoa) eta bere apezgotik, bertsolari ez hain ezagun eta maila apalago batean zeudenen aldeko lanari ekin zion. Emile Larrek zernahi aukera zuelarik, feriak, herriko bestak, kabalkadak, toberak, galarrotsak, kermezak, bestaberriak, ezteiak eta abar, Xalbador eta Mattin galdatzen ziotelarik ere, ia gehienetan, ahal zuenetan behintzat, bertsolari gazte bat sartzen zuen. Alkhat, Arrosagaray eta Mendiburu izan ziren lehenak Larrek finkatutako bideari lotu eta oraino plazan diharduten bertsolariak. Bertze batzu, hala nola, Beskoitzeko Larre, Irigaray, Etxeberri edo Merkapide, hasi bai baina arrazoi bat edo bertzegatik egun ez dira plazan ibiltzen.

Jakina ere da Xalbadorrek itzal haundia duela bazter hauetan. Baina bistan da, itzalik haundiena hain segur bere seme Mixelengan duela. Mixel Xalbadorrek aita hil zenez gero ekin dio gehienbat kantuari. Gainera, 1969 eta 1974 urteen artean Ameriketara egona da artzain, bertze aunitz euskaldunen moduan. Joan aitzin bertsorik bota zuen eleizan edota bertsolari gazteekin antolatzen ziren afarietan. Itzuli ondoan pixkanaka hasi, Zaldibin txapela jantzi 1977an, eta ondoren Nafarroako txapelketetan nabarmendu da gehien, hirutan txapeldun izanik.

Baxenabartarren artean Jean Louis Harinordoki "Laka" abiatu zen azkena bertsolaritzari buruz. Emile Larrek, "Laka" eta Fermin Mihura lapurtarra astero elkarrekin bertsotan aritzeko biltzen zirela jakin zuenean, Aiherrara deitu zituen berak antolatu saio batetara, urte batzu lehenago Alkhat eta Arrosagarayrekin egin zuen gisa berean. "Herria"ko zuzendariari zor dizkiote hauek ere bertsotako lehen erakaspenak.

Aipatzeak merezi ere du Ipar Euskal Herriatik eta Nafarroa Garaitik Ameriketara joan eta zenbaitetan behintzat bertsolari "karrera" bertan behera utzi dutenen kasua. Zenbat talentuko artzain-bertsolari nafar ibili ote da bazter haietan! Aunitz ezagunak dira. Larrerekin hasitako Jutsiko Merkapide, eta Oronozko Jesus Goñi, Erratzuko Arriada, Ezterenzubiko Kurutchet, Luzaideko Juan Cruz Arrosagaray, Bortzirietako Paulo eta Josetxo Yantzi, Mixel Xalbador bera edota sortzez Aldudekoa zen Jose Mendiageren berririk bada, bertzeak bertze.

Juan Cruz Arrosagarayk "*Californiatik kantuz*" liburuxka eta "Príncipe de Viana" euskal aldizkarian utzi du bere hazla, Paulo Yantzik bere liburuan bezala. Mixel Xalbador eta Josetxo lantzi Ameriketatik etorri eta bertsotan dabilta. Merkapidek, ordea, bertze aunitzek bezala, ez dio jarraitu bertsotan aritzeari. Jose Mendiage ezaguna da Ipar Euskal Herrian, batez ere Buenos Airesen "*Zazpiak bat. E.rkualdun kantuak*" deitu liburua argitaratu zuelako. Dena den, Piarres Charritonek egin berri duen liburu batean azaltzen dira bertsolari honen xehetasun eta bertso mordoa. Azkenik, aipatu behar da 1988an Nevadan jokatu zela "Estatu Batuetako I Bertsolari Txapelketa". Mila entzuleren aitzinean Goñi, Arriada eta Kurutchet nafarrak, eta Txurruka bizkaitarra aritu ziren. Jesus Goñi oronoztarra, Xalbadorrekin sarri kantatua, suertatu zen garaile.

Dena den, Ipar Euskal Herrian Xalbador eta Mattin zendu ondotik beherakada txiki bat izan du bertsolaritzak. Hauek bizi zirenean, la bazter guzietatik deitzen zituzten. Gazteagoek ez zuten aukera haundiegirik eta beti maila apalago batetan ibiltzea zegokien, Emile Larrek ahalegin guziak eginagatik. Xalbador eta Mattin herriak maite zituen, eta ez da hemen gehiegikeria "herria" hitza erabiltzea, nor berari zegokion papera betetzen zutelarik, herrikoiak bait ziren. Halarik ere, egun plazan dabiltzan bertsolari baxenabarrek, "Lakak" ezik, beranduago hasi bait zen, Xalbador bertsolari bezala ezagutzeko eta berarekin kantatzeko paradaren bat edo bertze izan zuten. Jalonen zuen urepeldarrak ondotik zetozenentzat maila oso goien uzten zuela. Arrazoi honi, Xalbador eta Mattin itzaliz pero, eskualde honetako bertsolaritzak bertze lekuetakoentzat zuen xarma galdu duela eransten bazaio, ez da harritzekoa egun bizi duen egoera xumea.

Ipar Euskal Herriko leku jakin batzutan urtero bertso saioak eratu, "Euskaltzaleen Biltzarrak" bertsolariei tartea egin eta nahiz alde guzietarik borondate ona bertzerik ez azaldu, bertsolaritzari zahar kutsu amiñi bat zerion. Indar berritu asmoz, 1980an "*Bertrularien Lagunak*" deitu elkarte sortu zen egoera berriari erantzun berriak emateko. Urte hauetan emanen ziren gainera irakaskuntzan lehen urratsak. Dena den, Nafarroako txapelketen aldi berriaren bidez emanen zitzaion indartzeko behar zuen arnasa.

VI. NAFARROAKO TXAPELKETEN BIGARREN ALDIA (1979-)

Laurogeigarren urteko hamarkadan, txapelketarik ez antolatzeak ekarritako etenaldiaren ondotik, Nafarroako bertsolaritzaren berpizkunde urteak etorri ziren. Inor gutxik pentsatuko zuen artean herrialde honetan bertsolaririk bazenik, baxenabarrak salbu. Ondoren izanen zuen garrantziaz jabetu gabe, Dionisio Mujika eta Antton Erkizia lesakar bertsozaleek, herrian ohizko bertso saio arrunt bat eratu beharrean "Paulo Yantzi" izenarekin sariketa bat antolatzea erabaki zuten 1979an. Ez ziren noski nafar bertsolaritzaren urterik hoberenetan abiatu egiteko horretan.

Ordurako, Gipuzkoan sariketa dexente antolatzen zen bertsolari berriak ezagutarazteko. "Orixe" eta "Zepai" sarien ondotik etorri ziren "Lizardi", "Patxi Errota eta Artzanberri" edo "Xenpelar" sariak. Aurreko atalean erran den bezala, nafar bertsolari zenbaitek, hala nola, Argiñarena anaiak, Mendiburu, Xalbador edo Alkhatek, Gipuzkoan eta egun, 1991 n, puntapuntan dabiltzan bertsolari gipuzkoar eta bizkaitarrekin neurtu zituzten indarrak. Sasoi hartan txapela batzu etorri ziren Nafarroara, baina hemengo bertsolari batzuentzat Gipuzkoa, bertsolari hasi berrien "Hollywood" modukoa, ez zegoen hain eskura. Argiñarena anaiek izan zuten, izatekoz, bertzeek baino aukera gehiago. Ipar Euskal Herrikoek zailagoa zeukaten, ez Xalbador eta Mattinen maila ematen ez zutelako bakarrik, mugaz bertzaldeko ordezkari Xanpun eta Ezpondarengan zetzalako ere baizik. Gainera, 1981ean hil zen Mattin lapurtarra, garai bateko bikote parega-bearen mitoa areagotzeko falta zen ezinbertzeko osagaia.

Bizkitartean, Nafarroa Garaian bertso saioak antolatzeke ohiturarik zuten herrietan jaialdiak eratzen zituzten beti ere, bertakoak ez ziren bertsolariekin. "Xalto" 1971 n zendu zen eta Arozamenak, Gipuzkoan bizi zenak, zerbait ibiltzeko aukera izan zuen arren, 1976an hil zenez, ez zuen Nafarroako bertso giroaren berpiztean partehartzerik izan zoritxarrez. Baxenabarren berriz, saio gutxi eta gero eta entzule eskas eta zaharragoak biltzen ziren. Honi aurre egiteko 1980an "*Berularien Lagunak*" elkarteak sortu zen, Ipar Euskal Herriko bertsolari eta bertsozaleak bilduko zituena. Halarik ere, saio gutxi batzu eta eleizaren bestak ziren bertsolarien topagune ia bakarrak. Zikiro jateetarako bertsolaririk eskatzen zen eta den arren, bistan da ez dela giro egokienetakoa bertsotan aritzeko, zenbaitetan bertsolariei kontalarien lana betetzea bait dagokie.

Gauzak hala, erran liteke bertsozaletasun izpirik nabari zela baina zerbait falta zuen. Herrialde zabal honetako bertsolarien azpiegitura ezak, bertsolaritzaren dinamikan mugitzen eta garatzen zirenetatik urrunagotzen zituen bertakoak. Zerbait egin behar zen. Eta orduantxe, Anoetako xixtukadaren oihartzunak nolabait ahantzi eta belaunaldi berriarekin batera, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketen aldi berri bati ekinen zitzaion une berean, hilabete batzu lehenago, hasi zen Nafarroa Garaian zerbait mugitzen. Erran den bezala, seguruenik izanen zuen garrantziaz ohartzeke, Dionisio Mujika eta Antton Erkiziak "Paulo Yantzi" izenarekin bataiatu zuten, urte antzuen ondoren, Nafarroako bertsolaritzaren berpizkundearen hastapena izanen zena.

Behin eta berriz errepikatzen da Historia. Gerra aurrean Elizondorako, edo hirurogeigarren urteko hamarkadan "Príncipe de Viana" erakundetik antolatu txapelketetarako, bertsolari bita abiatu behar izan zuten gisa berean, Nafarroako Txapelketen Bigarren Aldiaren hasmentan lan berbera zegokien antolatzaileei. Batetik eta bertetik, bertsolariak biltzeari lotu zitzaizkion. Oraingoan bertsolariak bultzatzea ez zegoen euskararen aldeko antolamendu zabalago baten barnean kokatua, hirurogeigarren urteko hamarkadan bezala. Bapateko ideia eta lana izan ziren. Dena den, Ameriketara barna ibilitako Paulo Yantzi igantziarraren izena eman zitzaion eta, bezperak eta Pingliangeko Apezpiku guziz Agurgarriaren hitzaldiaren orde, Juan Mari Lekuonak, ordurako sotanarik gabeko apez eta bertsolaritzaz jakitunak, igantziar horren gorantzak egin zituen garai berriari hasera emateko. Ia hogeitamar urteko aldean gauzak zertxobait aldatu ziren, bada.

Sariketa honen antolaketak alde guzietatik izan zuten "Príncipe de Viana"tik eratutakoak baino maila apalagoa, nahiz borondate onez berdintzen zuten. Ez bakarrik bertsolariak biltzeko lana, antolaketa guzia ere Mujika eta Erkiziaren gain joan zen, laguntzaren bat edo bertze izan zuten baina. Sariketa egunean gaiak Dionisio Mujikak berak emanagatik, lanak aritzeko, gaiak prestatzeko ardura Errenteriako Zamarbideko frantziskotarrek zeramaten. Bertzalde, epaimahaia Mariano Izeta, Fernando Artola "Bordari", Jesus Lete "Ibai-Ertz" eta Iñaki Zabaletak osatu zuten lehen urteetan. Saioak Lesakako pilotalekuan egin ziren lehen bi aldietan, hurrengo Metan Lesakako Udaletxeko Areto Nagusian ospatu zirelarik.

Lehen urte horretan, 1979.eko ekainaren hemeretziaren, zazpikote bat aritu zen Lesakako pilotalekuan. Txapelketen lehen aldiaren aritu zirenetatik Bautista Madariaga eta Juan Perurena azaldu ziren, urte luzez plazarik egin gabe egon ondoan. Bertzalde, Oronozko Jesus Goñi (egun Estatu Batuetako bertsolarien txapelduna) agertu zen, noiz behinka herrian eta tarteka-marteka Xalbadorrekin ere bertsotan aritutakoa. Gainerantzeko lauak gazteak ziren. Argiñarena anaiak, Gipuzkoan zerbait ibilitakoak; Eusebio Fagoaga, inoiz bertsoren bat edo bertze botatakoa; eta, Bittor Elizagoein, lehen aldikoz plazaratzen zen arraioztar gaztea. Joxe Migel Argiñarenak jantzi zuen txapela eta horrek ate batzu irekiko zizkion berari eta anaia Joxe Fermi ere, gehienbat Gipuzkoan bizi zirelako.

Bigarren urterako partaidetza zabalduta eta lehen aldiz "goi ta beherik" gabeko Nafarroaz mintzatzen hasiko da. Ordurarteko Nafarroa Garaia eta Baxenabarre bertsolaritzari dagokionez eremu bakar batean bilduko dira, antolatuko diren Euskal Herriko Bertsolari Txapelketetarako ere -horrelakoetan lapurtarrekin batera- baliogarria izanen delarik. Jean Louis Harinordoki "Laka" bertsolariarekin izandako harremanak, "Paulo Yantzi II Saria"n lau baxenabarren parte hartzearekin gauzatu ziren. Lakarekin berarekin, Joanes Arrosagaray, Jean Pierre Mendiburu eta Mixel Xalbador joan ziren Lesakara. Mixel Xalbador izanen ten Nafarroa guziko lehen txapelduna.

Dena den, garai berean Iruñean bertsozale gune berri baten somera martxan zegoen. Euskara ikasteko modaren arrakastarekin batera, euskal kulturari buruz antolatutako zernahi ekitaldi eta ikastarok harrera ona izaten zuten Nafarroako hiriburuko euskaltzale eta euskalduntzen ari zirenen artean. Bertsolaritzari berari dagokionez berriz, Euskal Herriko lehen bertso eskolak orduan hasi ziren indarrean. Nafarroako "*Eusko Ikaskuntza*"k ere, urte haietako giroa ikusiz, 1981ean bertso ikastaro bat antolatu zuen. Bertze leku aunitzetan bezala, Xabier Amuriza, orduan Euskal Herriko bertsolarien txapeldunak, eman zuen Iruñeko ikastaro hau. Berrogei ikasle inguruk eman zuen izena, bertzeak bertze, Eugenio Arraiza, Mikel Burgi, Lontxo Aburuza, Mikel Taberna eta Aingeru Epaltzak, ondoko urteetan Nafarroako bertsolaritzaren garapenarekin zerikusia izanen zutenak neurri bat edo bertzean.

Ikastaro honen arrakastak ikasle batzu adoretu eta hurrengo urtean Iruñeko *"Zaldiko Maldiko"* elkartean bertso eskola berri bat zabaldu zuten, irakasle berria Lontxo Aburuza izanzen zelarik. Geroztik, urtez urte antolatu dira ikastaroak, irakasle eta partaidetza ezberdinarekin, eta dagoeneko Nafarroan eta Euskal Herriko bertsozaleen artean Iruñeko *"Zaldiko"* bertso eskolak entzuterik badu. Laurogeigarren urteko hamarkadaren haseran Iruñean sortutako bertsozaleen aldeko mugimendu honek laster izanzen zuen islada Nafarroa osoan.

Bertze herrialdeetan dagoeneko -Ipar Euskal Herrian ere "Bertsularien Lagunak" deitu elkartearen bidez-, bertsozaleen ikastola eta eskolatan sartzen hasia zen. Nafarroan beraz, irakaskuntzaren erronka berriari aurre egin eta bi txapelketaldien artean jasandako gibelatzea gainditu beharra zegoen. (Irakaskuntzaz liburu honen hurrengo atalean Lontxo Aburuzari egin elkarriketaren ematen dira xehetasunak). Gisa honetan, Lesakan eratuak *"Paulo Yantzi"* sariak Nafarroan eta Euskal Herri mailan oihartzun haundiagoa izan zezaten *"Nafarroako Bertsolari Txapelketa"* izenarekin bide berri bati ekitea erabaki zen.

Dudarik gabe, Lesakan lau urtez jokatuak *"Paulo Yantzi"* sarietekin urrats haundi bat eman zen. Baina bertsozaleen Euskal Herri mailan zeraman dinamikaren ikuspegitik, urtean behingo ospaketa hori ez zen nahikoa. "Príncipe de Viana" erakundeko "Euskararen aldeko salla" deituak bertsozaleen bultzatzea euskararen garapenerako tresna bat gehiagoren moduan erabili zuen bezala, oraingoan bertsozaleen beraren garapena helburu izanik tresna ezberdinak erabili nahi ziren. Poliki bada ere, ideiak gauzatu joan eta lehen aldiz Nafarroako bertsozaleak azpiegitura baten jabe eginen ziren.

Lau urtez, bertze izenik bazuen ere, ordurako Nafarroako Bertsolari Txapelketa balitz bezala hasitako jaialdiaren antolaketa Lesakako bi bertsozaleen eskutan egon ten. Aipatu da garai berean bertsozale berriak sortu árela eskolen eraginez. Elkar ezagutu eta elkar lanean zenbait gauza egiten hasiagatik, 1983an jokatuak ten lehen aldikoz, *"Nafarroako Bertsolari Txapelketa"* izenarekin nafarren arteko norgehiagoka. Lesakarek urratutako bideak lanak erraztu zizkion antolatzaile talde berri osotuari, bertsozale bertze ordurako nafar bertsozaleekiko harremanak sendotu zirelako. Egindako lanaren ahormen gisa, Lesakan antolatutako lau *"Paulo Yantzi"* sariak, ondotik baten ere, *"Nafarroako Bertsolari Txapelketa"*ren izena jasoko zuten eta aurrerantzean izen honekin ekin zitzaion lanari.

Izenak izanaren aldaketa ere ekarri zuen. 1983az gero kanporaketak eta saio nagusiak burutuko ziren. Aldi berri honetan ospatutako lehen kanporaketak Iruñeko Eskolapioen areto nagusian eta Elizondoko Antxitonea trinketean izan ziren. Azaldu ere da, 1980an joan zirela lehen aldikoz baxenabarrak Lesakara. Geroztik, mugaren bi aldeetako bertsozaleak elkarrekin dihardute. Dena den, anaitasun hori ekintzetan gauzatu zedin, urte hartako azken saioa Donibane Garazin jokatu zen, txapelketa berria Txomin Ezponda jatsuarra suertatu zelarik.

Hedapen proiektu berri honek bertsozaleen aldetik ere erantzun zabalagoa izan zuen. Azken "Paulo Yantzi" sarietan aritutako hamahiru bertsozale hemeretziro igo zen partehartzaileen kopurua Nafarroakoa antolatu zelarik. Aipagarria litzateke, finalerako txartelik lortu ez bazuen ere, gaztetandik Bankan bizi zen Juan Felix Iriarteren partehartzea, 1936an Elizondon jokatu zen Nafarroako lehen Bertsozale Txapelketako txapelketa. Gainera, 1983an azaldu zen lehen aldikoz ere Txomin Ezponda, Donibane Garazin lehen saria jaso zuena. Eta bertso eskolek emandako lehen fruituen artean, Lontxo Aburuza ageri zen, azken saiorako txartelik gabe geldituagatik. Hurrengo urtean, 1984ean, Aburuzarekin batera parte hartuko zuen Mikel Tabernak. Bertzalde, Nafarroako Txapelketen Bigarren Aldi honi izen haundiagoa ematearren Manuel Lasarte bertsozale gonbidatu zuten. Baina ordurako osasunez gaizkiago zebilen eta txapelketen oso aldekoa ez zenez, nahiago izan zuen ez parterik hartu.

Txapelketa mugaren bi aldeetan jokatu eta bi aldeetako bertsozaleen partaidetzarekin antolatzen zenez, hasmentatik jabetu ziren antolatzaileak gaijartzaile eta epaimahaiak Nafarroaren aniztasunari erantzun behar ziotela. Dionisio Mujikak bere esku hartu zuen gaiak jartzeko ardura 1986.eko txapelketa arte. Lekuan lekuko euskara erabiltzea komeni zela eta, Baxenabarren antolatutako saioetan Iriederren agindutara aritzen ziren bertsozaleak 1984az gero. Baigorri 1989an jokatuak azken saioan Daniel Landart eta Mikel Taberna aritu ziren, eta 1991.eko txapelketan Iriederren ordean, Beñat Soule izan zen ardura hori hartu zuena Baxenabarren jokatuak kanporaketan. Nafarroa Garaian antolatutako saioetan berriz, erran den bezala, Dionisio Mujika aritu zen lan horietan 1986 arte. Hurrengo bi urteetan, Iñaki Zabaleta leiztar irakaslearen esku utzi zen egiteko hori eta geroztik Patxi Larretxea eta Mikel Taberna dabilta. Dena den, azken urteetan talde bat arduratzen da gaien aukeraketa eta lekuan lekuko euskaraz emateaz.

Epaimahaiari dagokionez, erran behar da "Paulo Yantzi" sarian ere mugaren bi aldeetako ordezkariak osatzen zela mahaia. Hasera batean nafarrak ez ziren Fernando Artola "Bordari", Jesus Lete "Ibai-Ertz", Jon Azpillaga eta Jon Enbeitaren izenak ageri baziren ere, txapelketa gorpuzten joan zelarik, nafarren ardurapean geldituko da deliberoak ematea. Haseratik ageri dira Mariano Izeta, Emile Larre edo Mixel Itzaina. Izetak, osasun arazoak medio, 1986an uztea erabaki zuen. Baxenabarretik, Larre eta Itzainarekin batera hirukotea osatuz Jean Haritschelhar, Santos Beloki eta

Fermin Mihuraren izenak tarteka azalduagatik, azken urteotan Jean Pierre Etxegoien bildu zaie. Nafarroa Garaitik berriz, Mikel Bufanda, Joxe Urroz eta Aingeru Epaltzak osatzen dute mahaia. Epaltza Izetaren ordezkotzat izendatu zuten 1987an.

Gaijartzaile eta epaimahaiaren gora-beherak, ikusten ahal den bezala, Euskal Herri mailan antolatutako txapelketetan baino eztabaida gutxiagorekin moldatu dira. Aldiz, laurogeigarren urteko hamarkadaren erdialdean Gipuzkoatik Iruñera ikastera joandako bertsolari gazte batzu Nafarroako txapelketetan parte hartzen ikusteak iritzi ezberdinak sortu zituen. Lehen aldikoz, 1985ean, Bernardo Azpillaga errezildarra Nafarroako txapelketan arituko zen. 1986an Donezteberako saio nagusirako txartela lortu zuen. Hurrengo urtean, Azpillaga Gipuzkoara joana zelarik, Nikolas Izeta, Felix Iñurrategi eta Pablo Jose Aristorena gipuzkoarrek izena eman zuten. Urte bete beranduago Manu Gomez donostiarrak ere parte hartu zuen. Finalean beti gipuzkoarren bat sartzen zelako, azkenean gaztetxo hauek antolaketa lanetan aritu zitezela erabaki zen.

Gipuzkoar ikasleek parte hartu zuten azken urtean, 1988an, Manolo Arozena Lesakan bizi zen goizuetarraren debuta izan zen. Lagunartean bertsotan aritzetik, lehen aldiz plazara Nafarroako Txapelketan atera eta bigarren saria irabazi zuen. Hasera ia ezin hobea beraz, Aranoko Andres Mitxelena bertso jartzaile ezagunaren bilobarentzat. Hurrengo urtean, 1989an Baigorriin, bigarren saria ere eskuratu zuen. 1990ean txapela bildu zuen taldean bera partaide zen eta azkenik, 1991.eko norgehiagoketan txapela jantzi zuen. Nafarroan ez ezik, egun bertze herrialdeetan ere saiorik gehien egiten duen nafar bertsolaria bera da.

Nafarroako bertsolaritzaren berpizkundearen mailarik gorena azken urte hauetan lortu da. Agian, Nafarroan inoiz izan den bertso mailarik onena. Oraino herrialde honetan bertsolaritza txapelketekin uztartuegia azaltzen bada ere, ezingo zaio uko egin bide honi bertsolariek orok, txapela buruz buru dabilerarik, elkar lanean jarraitzeko biderik egokienetakoa dela iritzi bait dute. Urtez urte, udaberriz udaberri, lehiaren hersturan ibili beharrak bertsolariak eta antolatzailak ere zenbaitetan nekatuagatik, jendearen gero eta erantzun hobeak eta lortzen den oihartzunak aitzina segitzeko rodar berriak ematen dizkiete. Gainera, orain artean Nafarroako Eskolarteko lehiaketetan nahiz mugaren bi aldeetako bertso irakaskuntzari esker trebatzen ari diren bertsolari gazteak, dagoeneko pentsaketan ari dira noiz ailegatuko zaien txapelketan parte hartzeko parada.

Dena den, txapelketaren moldea ez da guztiz egokitzen eskola zaharreko bertsolarientzat. Arazo txiki honi erantzun bat eman nahian "*Nafarroako Bertsolarien Lagunak*" elkarteak eta Nafarroako Gobernuak azken bost urteotan antolatutako udako bertso saioek egiteko haundia betetzen dute. Txapelketatik kanpo, urtero hogeitase saio inguru eratzen dira gisa honetan, zenbait herri bere kasara antolatzen dituen jaialdiak kontuan hartu gabe. Herri ttipietako plaza eta arkupetan gai librean, txapelketako ariketarik gabe, edota zikiro jate eta bestetan botatako bertsoek eskola zaharreko bertsolarien erudia bizirik iraun arazten dute.

PAULO YANTZI SARIA

Ondotik datozenak Argiñarena anaiek jarritako bertsoak dira, Nafarroako bertsolaritzarentzat eta beraiarentzat ere axola haundia izan zuen sariketari buruzkoak.

Joxemiel

Yantzi sariak zer suposatu
zigun adieraztea,
nahi baduzue hitz bitan dena
noa esaten hastea,
lore berrien bultzada eta
zahar askoren berpiztea
gaitz txarrak jota zegon zuhaitza
berriz ere gorpuztea.

Joxe Fermin

Txapelketa bat antolatu zen
Paulo Yantziren izenez,
parte hartzera ausartu nintzen
garrantzitsua izanez.
Gaur aitortzen dut berari esker
naizen pittiña naizenez
bertso kantari jarrai nahi nuke
beraren oroitzapenez.

Joxemiel

Orain badauka osasuna ta
badauka bere bizitza,
baina orduan gaisorik zegon
herriko bertsolaritza.
Sari hori zen lorategi hau
bustitzen zuen gau intza,
geroztik pozez han eta hemen
txorien gisa gabiltza.

Joxe Fermin

Oraindik orain saio haietaz
ez naiz gutxi gogoratzen,
lehen aldia mikrofonoan...
neretzako gogorra zen.
Ilusioa zen nire arma
bertso alorra jorratzen
saia ezean bertso zuhaitza
oso zaila da loratzen.

Joxemiel

Bertsolariak urri zeuden da
zaletasun eskasia,
bertsolaritza galdutzeraino
hargatik zegoen ia.
Lesakarekin ote daukagu
zor dezakegun guzia,
bainan bai berak hartu zuela
jarraipenaren zuzia.

Joxe Fermin

Hego-lparrak urrats berritan
batera gara ibili,
euskaran alde bertsoa dugu
helburutzat erabili.
Nahiz odei beltzak zeru sapaia
inoiz dezaken estali
Lesakak piztu zuen zuzia
inoiz ez bedi itzali.

BERTSOLARITZA IRAKASKUNTZAN

Nafarroako bertsolaritzaz egiten ari garen behaketa honetatik landa ez dezakegu utzi bertsolaritzak irakaskuntzan egin duen bidea. Bide horri Lontxo Aburuza irakaslea lotu zitzaion, duela zazpi urte, eta 1984tik honat berak eraman du aitzinera bertsoaren lekukoa Nafarroa Garaiko ikastetxeetan.

Orain dela 36 urte Bidanian (Gipuzkoa) sortua, Aburuzak irabazia behar du dagoeneko nafar izateari dagokion "karneta", gure herrialdeko bazterretan barna bertso irakasteko lanbidean bota dituen kilometroengatik, behintzat. Lontxorentzat irakasketa ez da sekulan arrotz izan, irakasketagaia arrot ezberdina egokitu baldin bazaio ere. Bere egitekoan egun darabilen helburua bitartekoak paratzea da, haur, gaztetxo eta gazteak bertsolaritzaren munduan abia daitezen.

Iruñeko San Anton karrikan "*Nafarroako Bertsolarien Lagunak*" elkarteak duen egoitzan izan dugu harekin izateko parada, eta hasmentatik beretik erakutsi du zeinen ongi eduki duen buruan bertsoa eta irakaskuntzari doakion gauza oro. "Atzokoan balitz bezala oroitzen naiz, -dio Lontxok-, Xabier Amurizak Iruñean eman zuen bertso ikastaro hartaz, Eusko Ikaskuntzak antolatutakoa". Izan ere, langile mugimenduan bete-betean sarturik zebilen garaian atsedenaldirik hartu nahian bezala, erdi kuriositatez, erdi morboz, Iruñean horren arrotz egiten zitzaion ikastaro horretara hurbildu zen, eta "...gaur egun bertso irakasle...". Azken hau erran du bere buruaz kontent, bidenabar, harrituxearen itxura dariola.

Etzanoko maisuak ikastaroaren lehendabiziko saioan agertu bezala, aurkitu zuen bazela biderik bertsoak egiteko edo asmatzeko. Hori bai, burua harri eginik zuela. Etxera joanik, sekulan bertso idazketaren ofizioan probatu gabeko ariketetan murgildu zen, loak harrapatu bitartean. Lehenbiziko saio hari dozenaka gehitu zitzaizkion, Iruñerriko euskaldun franko lagun zuela. Denak zintzo, hutsik egin gabe aritu ziren ikastaroa burutu artean.

Bideari lotu zen, beraz, eta jakin bazekien ez zela laburra izaren, amen batean egiteko modukoa, luzaroan ibiltzekoa baizik, hau da, ongi pentsatutako urratsak bertze pausoari txanda hartuko zionekoa. Handik goiti, bertsoaren pindarrak sutegi goxoa aurkitu zuen Iruñeko "*Zaldiko Maldiko*" elkartearen, jarraipena emanez hasierako ikastaroari. Zaldikotarrek beraiek bulkaturik, Nafarroako plazetan lehiatu zen 1983ko Txapelketan. Beretzat ordea, irakaskuntzari lotu zitzaioneko urratsa da, emandako guzietan, handiena.

GALDERA: *Beraz, mintza gaitezen urrats haundi horren gainean, hastapenetatik hasita. Nola izan zen irakaskuntzan bertsolaritza lantzeko ideia?*

ERANTZUNA: Xabier Amurizarekin aritu nintzen prestakuntzan. Bera, jakina, hasia zen eskola eta ikastoletan, eta bazuen programa egina. Noski, Xabierrek 1981ean Iruñeko Eusko Ikaskuntzan eman zuen ikastaroak izugarri erakarri ninduen, gero eta gehiago gainera, saioak aurrera joan ahala. Eta ikastaroa pasatuta ere, Zaldikon jarraitu genuen, Amurizarengandik prestaketa hori hartuz. Bertze herrialdeetan esperientzia hasia zegoen, Gipuzkoan, batez ere, Bizkaian ere bai, eta egoki eritzi genion hemen ere bertsoa eskolan sartzeari hameka arrazoiengatik. Ideia hori posible ikusten genuen, baina sarbidea aztertu beharra zegoen. Hau da, bertsoa irakatsi bai, baina ezeri kalterik egin gabe edo ezer kendu gabe. Hori argi izan genuen, bertsoak ez zuen deus ere ordezkatu behar, lekua hartu baizik, azalduz nondik norakoa. Eta iritsi zen proposamena, orai dela zazpi urte luzatu genuena.

G: *Proposamena aipatu duzu. Zein izandu zen, hortaz, irakaskuntzan hasteko aurkeztu zenuten proposamen zehatza?*

E: Gure helburu nagusia zen bertsolaritza ezagutzera ematea O.H.O.eko bostgarren mailatik aurrera ikastetxe guzietan, euskaraz maila horretatik gora ari ziren ikastetxe guzietan. Hanken azpian oinarri sendoa izateko, jakin beharra zegoen zein ote zen ikastetxeetan bertsolaritzaz zuten jarrera: alde ote ziren, edo kontra, interesgarri joko ote zuten edo hutsaren hurrengoari baino balio exkaxagoa emango ote zioten. Hori jakiteko modu bakarra galderen bidea baliatzea zen eta inkesta bidali genuen Nafarroako Gobernuaren, Nafarroako Ikastolen Federazioaren eta "*Nafarroako Bertsolarien Lagunak*" elkartearen sinadurekin. Hamar galdera ziren eta hogeitabost ikastetxetara igorri genuen. Hilabetearen buruan denek erantzun baikorra eman zuten, bertsolaritzari ateak zabalduz. Eskaria luzatu ziguten bertsolaritzako programarekin has gintezen.

G: *Hiru erakundeen sinadurak ezarri zenituzten galdeketa orrian proposamenari indarra emateko, behar bada. Baina, zaila suertatu al zitzaizuen Nafarroako Gobernuaren laguntza eskuratzea?*

E: Begira, bertze herrialdeetan Ikastolen Federazioaren eskutik ari ziren bertsolaritza lantzen, eta horien ardurapean diraute gaur egun ere. Gure herrialdean ordea, giroa ezberdina zen, eta egoki iruditu zitzaigun gure atzetik ahalik eta jende gehien biltzea gure asmoa bizkortzeko. Erran beharra dago, hasieratik beretik harremanetan ibili ginela Nafarroako Ikastolen Elkartearekin, baina eskola eta ikastolen arteko balizko liskarra aurre ikusita elkarre bezala sartu ginen gu ere. Elkarre hau, 1984ean berean eratu berria zen "*Nafarroako Bertsolarien Lagunak*" izenarekin. Bertsolaritzak eztabaida horien gainetik izan behar du. Beraz, elkarreak bultzatuko zuen asmoa, baina sarrerazi behar genituen euskarazko irakaskuntzan zebiltzan bi aldeak: ikastolak batetik, eta eskola publikoak, bestetik. Bestera erranda, Ikastolen Elkarrea eta Nafarroako Gobernua. Azken sinadura horrek gainera, garrantzi handia zuen proposamenari ofizialtasuna emateko. Diputaziora jo genuen, Kultura Sailera, eta ez zen inolako arazorik suertatu. José María Romera eta Pedro Manterolarekin mintzatu ginen. Lehendabiziko hori arduraduna, eta bestea aholkularia, eta hauek baietz erran zuten garbi, ados zirela, baina Kultura Sailetik eraman beharrean, Hezkuntza Sailetik eraman behar zela. Orduan, irakaskuntza ez erregulatuaren arduradunarengana abiatu ginen, eta Guillermo Herrerok oneritzia eman zion proposamenari, eta segituan komenioa sinatu zen.

G: *Tramiteak arinko gairak, asmoa, proposamena gauzatzeari heldu behar. Ikastetxetako giroarekin topo egiten zenuten orduan. Uste bezala, uste baino hobea, txarragoa... Nola zebilen nafar bertsolaritzari buruzko giroa 1984ean?*

E: Ba, Nafarroan aitortu behar da oso nabarmena zela txapelketa ezaren eragina. Kontuan izan 66tik 79ra bitarte, hamahiru urte luze iragan zirela lehiaketa saiorik antolatu gabe, eta Lesakan "*Paulo Yantzi*" sariketari 1979an ekin baldin bazitzaion ere, benetan oihartzun eskaxa zuen. Bertsolaritza beraz, ahantzibidean zegoen, ahaztuxea. Bertsolariak elkarrekin harremanetan ibili gabe, hirurogeigarren urteko hamarkadan aritutako asko eta asko adinez oso aurrera, jendaurrean kantatzeko aukerarik gabe, plazetan saio gutxi... Erran daiteke bertsolari gutxi segitu zuela lotuta bertsolaritzari, eta jendeak, jende gazteak behintzat, ez zuen bertsolari horien berri izanen. Gutxitan suertatuko zitzaien bertsolariak entzun ahal izatea. Noski, aldea bazen eskualde batetik bestera, eta, zer erranik ez, herri euskaldunetatik herri erdaldunetara. Egoera horretaz jabeturik, ba, lanari ekiteko lau herri euskaldun hautatu genituen, hots, Goizueta, Lesaka, Bera eta Leitza, eta baita erdaldun bat ere, Lizarra. Egoera horren lekuko Beran gertatutakoa azpimarragarria da. Bertsolariak zeintzu diren edo nor diren galderari, horra zer nolako erantzuna eman zion Berako haur euskaldun batek: "aitun zaharrak txapelarekin". Horixe zen Berako haur euskaldun batek bertsolaritzaz zuen ideia. Geure aldetik zer edo zer gehiago erran dezakegu: herriko plazan noizean behin kantari ibilitakoa, adineko gizona, txapelaz jantzia, "kaxero" edo baserritarraren itxurakoa. Hori zen duela zazpi urteko ideia, aski zabalduko zegoena. Hori Beran baldin bazen, pentsa zer izan ote zitekeen Iruñean, Lizarran edo, zer erranik ez, Erriberan.

G: *Azken borren haritik abiatuz Lontxo. "...Aitun zaharrak txapelarekin..." Berako haur euskaldun batek emana baldin bada, zer egiten du bertsolariak Lizarran edo Tafallan? Edo zer egin lezake, behintzat?*

E: Ba, egitekorik badu eta asko egin dezake, gainera. Bertsolaritza ezagutzera ematea, esate baterako, edo bertsolariak ezagutzera ematea; bertso zaharrak abestea, doinuak ikastea, hitza ikastea, ulertu, ulermena landu, hiztegia zabaltu, euskara landu, memorizazioa, ... Egitekorik bada, ikus daitekeenez, kanpotik ikusita uste direnak baino gehiago, eta bai Lizarrako haurrari, bai Tafallakoari arras baliagarriak gertatuko zaizkionak. Aipatu ditudan gauza horiek denak elkarrekin lotuta daude, bertsoaren irakaspenerekin batera agertuko dira, bata bestea erakarriko du eta horrek denak on egiten dio ikasleari. Euskararen maila hobetzeko, esate batera. Beraz, bertsoak ematen du eta ez du deus ere kentzen, baita erdaldun giroan, bertso sena ez zuten tokietan ere. Noski, metodologian asmatu beharko da tokian tokiko egoerara egokituz.

G: *Lau herri euskaldun eta erdaldun bat hautatu zenituzten lanean hasteko. Lizarran ulertu al zuten zure asmoaren nondik norakoa?*

E: Lizarrako kasuan koplaren bidetik hasi eta haurrak berehala konturatu ziren sekulan urratu gabeko bidea zutela begien aurrean eta aukeran. Erran nahi dut, ohartu zirela koplak bidea ematen duela aldamenekoari zirikatze edo adarra jotzeko. Bertsoak ate hori zabaldu egiten die eta ikasleak baliatzen dira ironia puntua emanez koplari. Ohartu ziren, irakaskuntzamolde ezberdina zela, eta bapatekotasun horrek estuasuna apurtzen duela. Aurrera ez zen lan handiegia

izan motibatzeko. Kopletan paratu zituzten beraien arteko disputak. Maiztxo frenatu beharra zegoen hori, baina bata besteari zetorkiona botatzeko bidea zen.

G: *Lizarra, Leitza, eta, noski gero Iruñea eta beste toki aunitz bakoitza bere ezaugarriekin. Alde horretatik metodologia bera al da toki guzietan erabiltzen dena?*

E: Bai eta ez. Erriberan egiten dudanak Mendialderako balio lezake, baina azken hauei gehiago eskatu behar zaie. Beraz, metodo kontua baino gehiago erritmo kontua da. Batzuk azkarrago ohartzen dira eta aurreratuago doaz. Aipatu ditugu gure herrialdean dauden diferentziak leku batetik bestera, eta hori kontutan hartu beharra dago, bestela okerreko bidetik abiatzea litzateke. Gauza bera gertatzen zaigu Nafarroa eta bertze herrialdetan duten egoera aldean paratuz gero. Oinarri moduan, han eta hemen liburu edo ikaspide batzuk erabiltzen ditugu: "Bertso Trena", "Bertso Galaxia" eta "Bertso Ostata", baina haiek eta guk dugun giroa ezberdina da, eta batzuk bestek baino errazago irensten dute.

G: *Metodologiak ari zarenez, bertsolaritzak hezkuntz garapenean duen garrantzia azaltzeari heldu diezaiokezu.*

E: Hasteko, argitu beharra dago, gaur egun, hirugarren mailatik gora ari direla haurrak bertsolaritzaren ikasketan, eta hirugarren maila duten ia ikastetxe guzietara iritsi dela bertsolaritzaren plangintza xumea. Noski, euskarazko irakaskuntzan dabilzan horietan. Ikastetxe batzuetan euskararen orduan ari gara, besteetan aldiz, musikaren orduan. Batzuetan sistematikoki, beste batzuetan ordea, ez horren sistematikoki. Beraz, hori erranda, komenigarria litzateke azaltzea zein den bertsolaritzaren ekarpena hezkuntz garapenean. Helduen ekintzei erreparatuz gero, eta horiek imitatuz soilik, ez da haurraren garapen egokia garantizatzen. Beraz, multzoko, inguruko kulturaren ezaugarriak sakontzeko beharrezkoa izaten da eskolaren interbentzioa. Eta helburu jakinak lortzeko ekimen bereziak proposatzen dira. Noski, hezkuntz garapenak taldearen kultura bereganatzea du helburutzat, eta argi dago horretarako hizkuntzak lehentasuna duela. Alde horretatik, haurren lengoia mailaren hobekuntza bide aunitzetatik planteiatzen dugu, eta horretarako lan ezberdinez baliatzen gara: haur literatura, usadiozko aho literatura eta bertze idazlan egokiak erabiliko ditugu. Hezkuntza adin honetan balia gintezke abenturaren munduan murgiltzeko, ipuin eta fantasiez gozatzeko, eta era anitzetan taldeko kulturaren sakontzeko...

G: *Literaturak hezkuntzarako duen garrantziaz ari zara. Kontutan izanik aho literatura oso aberatsa izan dugula Euskal Herrian, eta, noski, bertsolaritza aho literatura dela, bertsolaritza lantzeak bide emanen dio ikasleari literatura molde horretan sartzeko?*

E: Bai, jakina. Aho literaturak Euskal Herrian izan duen inportantziaz jabeturik, aisa konprenitzen da bertsolaritzak eskolan duen garrantzia. Ahozko literaturaren bitartez, euskalkiak edo hizkera mota ezberdinen ezagutza lortzen dute eskoletako ikasleek. Haur literaturaren barnean ahozko produkzio tradizionalek bere erritmo eta espresibitatearengatik izugarritzko garrantzia dute. Beraz, atal honetan koplarrak eta bertsolaritza bete-betean sartzen dira. Hori ez digu inork ukatuko. Horregatik, egungo irakasleek gai hau ongi menperatzea premiazkoa jotzen dugu. Hala ere, inork ez dezala pentsa honekin euskal kulturako bertze adierazpenak baztertu egiten ditudala, hala nola antzerkia, olerkia eta narratiba bera. Lehenago ere aipatu dut bertsolaritzak ez duela deus ere kentzen, eman baizik.

G: *Inguruari begira, edonork ikus dezake gaur egungo euskal kultur mugimenduan bertsolaritzak duen protagonismoa. Honek bidea erretzen al dio bertsolaritzari ikastetxeetan sartzera?*

E: Beno, argi gera bedi bertsolaritza berez, gauza ona dela hezkuntza bidean sartzeko, eta arrazoiak erranak dira. Bertzalde, egia ere da ahozko literaturan bertsolaritza dela indarrean eta goraka doan altxorra, eta toki berezia hartu duela herri kulturako mugimendu horretan. Egungo bertsolariak, Unibertsitateetatik ateratzen ari diren gazteak dira. Gaur egun, ez dago herriko festarik bertsolaririk gabe; hameka ekitalditan, molde ezberdineko ekitaldietan, bertsoak izaten dira, jaialdi nahiz mitinetan, ezteiak nahiz bataioetan; egunkarrietan eta aldizkarietan egunero agertzen zaizkigu han hemengo bertso paper lehiaketak; bertso txapelketa, bertze kultur ekintzak ez bezala, gai da zortzi orduko saioan hamar mila lagun edo gehiago biltzeko. Irratietan astero izaten dira programak eta ETBn ere bada bertsolaritzari buruzko saiorik. Argi aski dago hortaz, bertsolaritzak egun duen eragin sozial handia. Jendea horretaz ohartzen da, noski. Bertsolaritzaren ezaugarriek bide ematen dute hainbat eta hainbat gauza lantzeko. Konparazio batera, bapatekotasunak erreflexuen azkartasuna eta espontaneitatea dakartza. Jende aurreko ekintza izanik, entzuleari zuzenean eskeintzen zaio, bertako giroa eta egoera kontutan izanik, gainera. Bertsoa ahotik ahora ibili da. Beraz, memoriak badu zer erran

haundia. Bertsolaritzak izugarri landu egiten du memoria, hizkuntzaren hiztegia, sufijazioa, errima eta bukaerak kontutan hartuz. Bertsoa, bertzalde, kantatzekoa da, eta abesterakoan musika lantzen dugu, bidenabar. Baita erritmoa ere. Bada zer lantzekorik bertsoaren bitartez.

G: *Bertsolaritza eta hezkuntz garapena ikusita, egitarauaz mintzatzera pasa gaitzke. Ikastetxeetan ikasleak ari dira, eta baita irakasleak ere. Egitarauak batzuk zein besteak kontutan hartu beharko ditu.*

E: Bai, egitaraua bi hanka horietan oinarritzen da. Irakasleei dagokienez, erran beharra dago, hogeit hamar orduko ikastaroak hartu dituztela ehun eta hogeit hamar irakasle, hogeit hamar taldetan banaturik. Ikastaro hauek ikastorduetatik aparte izan dira. Argi utzi behar dut irakasle gehienek ez zutela bertsolaritza ikasleekin lantzeko asmo zuzena, baizik eta bertsolaritza ezagutzea. Dena dela, batzuek benetako interesa erakusten zuten gerora haurrekin lantzeko. Zenbait ikastetxetan bertzalde, ia bere kabuz ari dira funtzionatzen. Ikastaroetan bertsoa aztertzen saiatu dira gaia, teknika eta estiloari begiratu, eta saiatu dira bertso berriak sortzeko bideak urratzen ere. Irakasleei doakienez ordea, hiru hilabeteko ikastaroak egiten dira, denetara dozena bat ordu emanez. Hauekin inguruko giroari dagozkion bertsoak lantzen saiatzen gara, eta "Bertso Trena", "Bertso Galaxia" eta "Bertso Ostatua" izeneko liburuxketan agertzen diren ariketak tartekatzen ditugu.

G: *Eta honek denak, egiten ari zireten honek denak ba al du justifikaziorik? Edukiari ari naiz.*

E: Beno, jadanik hamabost urte hagan dira bertsolaritza irakaskuntzan lantzen hasi zirela, eta ongi baino hobeto frogatuta dago planteamenduaren zuzentasuna. Bertsolariak, euskarazko irakaslerik trebeenetzat jo daitezke eta iturri emankorra izanen du hitz jokuak, esaldi zaharrak eta abar bereganatzeko. Herri kantak edo doinuak lantzeko aukera aproposa eskeintzen die haurrei bertso paperen bidez, Euskal Herriko ohiturak eta Historia landu daitezke. Hauetan datu piloa aurkitzen bait dugu. Hizkuntza ikasteko elementu motibatzaile bezala erabili daiteke, eta hortik emaitza bikainak lortu ditugu. Bertzalde, eskola eta herriaren arteko loturak sendoa izan behar baldin badu, nahitaezkoa zaio irakasleari herri giroa ezagutzea eta menperatzea. Kopla zaharrek euskal egutegiko hainbat egunetan duten garrantzia ere azpimarragarria da: Santa Ageda, Olentzero, Urte Zahar gaua eta abar. Hortaz, okertzeko beldurrik gabe erran genezake ahozko literaturan bertsolaritza dela fenomenorik ezagunena eta hedatuena. Azkenik, bertsolaritza aintzinatik datorkigularik ez da fenomeno estatikoa, baizik eta aldakorra. Berrikuntzak bere baitan har ditzake, eta gaur egun korrante ezberdinak nabari dira. Azkenaldian era askotako bertso saioak ikusten ari gara, eta ez dago ziurtatzerik biharko bertsolaritza nota izanen ote den. Beraz, egungo fenomeno kultural honetatik kanpo gelditzea nahi ez badugu, garbi dago bertze zenbait gairen parean landu behar dugula bertsolaritza.

G: *Orain artean ikusitako hau dena zertan zehazten da? Zein da urteko egitarau zehatza?*

E: Ba, bost puntutan laburbiltzen da egitarau zehatza baina guztiak elkarloturik doaz. Bata bertzea gabe herren geldituko litzateke eta, horregatik, denak dira beharrezko. Bost puntu, beraz: Irakasleekin ikastaroak, batetik bertsolaritza bere kabuz ikasleekin lantzen dutenekin, eta, bertzetik, bertsolaritza lantzen ez dutenentzat; ikasleengana gelara hurbiltzea, oraindik aitortu beharra baldin badago ere zazpi ikastetxetan azaltzeko behar hainbateko betarik ez dudala izan; bertsolari gaztetxoekin saioak, eta hauei buruz inolako zalantzarik gabe erran dezakegu oso premiazkoak direla bertsolaritzako giroa hurbiletik ezagutzeko. Ikastetxez ikastetxe hamabi bat egiten dira urtero. Gipuzkoa eta Bizkaitik ekartzen ditugu bertsolari gaztetxoak ikasleen aitzinean kantari ari daitezen. Bertso paper lehiaketa ere aipatu beharra dago. Orain artean egindakoak arrakastatsu suertatu dira, eta bertsolaritza bultzatzeko tresna egokia izan daitezke. Horretaz landara, urtean zehar idazten diren bertso onenak liburuxka batean argitara eman ditugu. Dagoeneko, hiru atera ditugu.

G: *Egitaraua aurrera eraman eta gero baloraziorik egiten al da?*

E: Bai, urtero Nafar Gobernuari ematen zaio egindako lanaren berri eta,aldi berean, ikasturte berrirako egitaraua prestatzen dugu ditugun premiak ikusirik. Dena den, erran beharra dago duela bost urtetik hona irakasle gehiagoren beharra badugula. Eta orai bost urte hasi ginen aldarrikatzen irakasle gehiago behar zela.

G: *Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko hirugarren mailatik hasi eta zortzigarren maila bitartera ari zarete. Gaztetxoak O.H.O. bukatu eta ez al du aukerarik bertsolaritzaren munduan jarraitzeko?*

E: Momentuan, lanbide heziketa eta institutu gehienak ari dira bertsolaritzako irakasleak eskatzen. Baina, ez gara gai horiei erantzun egokia emateko, behar bezala erantzuteko. Ez da irakaslerik eta denborari dagokionez mugaturik gabilta. Bakar bakarrik, iaz gai izan ginen Bortzirietan (Lesaka, Arantza, Igantzi, Etxalar eta Bera) bertso eskola bat

